

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2008, 1
55. liburukia (2. aldia)
BILBO

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2008, 1
53. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net • web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola

Kideak: Beñat Oihartzabal, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr (†),
Andres Iñigo, Adolfo Arejita eta Pello Salaburu

Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Lege-gordailua BI-1.244-58

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Emfasis
Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

SAGRARIO ALEMAN ASTITZ EUSKALTZAIN BERRIAREN SARRERA-HITZALDIA

Ongietorria, <i>Maria Antonia Iribarren, Imozko alkatea</i>	11
Agurra, <i>Andres Urrutia, euskaltzainburua</i>	13
Berdetik horira. Sarrera-hitzaldia, <i>Sagrario Aleman Astitz</i>	15
Gorritik horira. Erantzuna, <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	35
Amaiera hitzak, <i>Juan Manuel Facenda, Etxalekuko kontzejuburua</i>	41

AURELIA ARKOTXA MORTALENA EUSKALTZAIN BERRIAREN SARRERA-HITZALDIA

Ongietorria, <i>Jean-Baptiste Sallaberry, Hendaiako auzapeza</i>	45
Agurra, <i>Andres Urrutia, euskaltzainburua</i>	47
Bazterrez. Sarrera-hitzaldia, <i>Aurelia Arkotxa Mortalena</i>	49
Aurelia Arkotxaren sarrera-hitzaldiari egin ihardespena, <i>Beñat Oihartzabal</i>	61

IKER SAILA

ONOMASTIKA

Irizpenak	73
<i>Bera</i> herri izenaz txosten osagarria, <i>Andres Iñigo</i>	75
Legutio , <i>Onomastika Batzordea</i>	81

EUSKARAREN HISTORIA

Le basque, langue eurasiennne, <i>Michel Morvan</i>	85
---	----

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Ageriko bilkura	95
Bilbon, 2008ko urtarrilaren 25ean	97
Bilbon, 2008ko otsailaren 29an	101
Ageriko bilkura	105
Bilbon, 2008ko apirilaren 4an	109
Donostian, 2008ko apirilaren 25ean	113
Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean	117
Ageriko bilkura	121
Bilbon, 2008ko ekainaren 27an	125
Hendaian, 2008ko uztailaren 18an	129
Ageriko bilkura	131
Euskaltzaindiaren adierazpena. Frantses Akademiak 2008/06/12an egin- dako adierazpena dela-eta	135
Déclaration de l'Académie de la Langue Basque. À propos de la déclara- tion de l'Académie Française du 12 juin 2008	137

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

153. <i>Araua</i> : hiztegi batua: G letra	141
154. <i>Araua</i> : Europako eskualde historiko-politiko nagusiak	173

BERRIAK

Jose Antonio Arana Martixari gorazarrea	231
---	-----

EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPENAK Aurkezpenak

<i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> eleberriaren ekarpena XX.mendeko euskal narratibaren testuinguruan.	235
Bilboko Liburu Azoka: 2008: <i>Leturiaren egunkari ezkutua, Sebastián Gartzia Trujillo</i>	237
Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarraren Agiriak	243
Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan	245
Literatura Terminoen Hiztegia	247
Euskaltzaindia Sarako euskal idazleen XXV. Biltzarrean: <i>Euskaltzainak</i> Bilduma berriaren hasiera eta aurkezpena	249
<i>Euskaltzainak</i> bildumaren 2. eta 3. zenbakiak	251
Pedro de Yrizarrek euskal aditz laguntzaileari eskainitako lan osoaren azken liburukia	253
III. Onomastika Jardunaldien Agiriak.	255

BESTE BERRI BATZUK

Euskarazko tesien Koldo Mitxelena Saria-ren aurkezpena	259
Euskaltzaindia eta Olaso dorrea sorrerakundea	261
Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena: 2008	263
<i>Euskalerrria</i> Irratia.	265

* * *

Zuzenkizunak / Fe de erratas, EUSKERA, LII (2007,3)	267
--	-----

**SAGRARIO ALEMAN ASTITZ
EUSKALTZAIN BERRIAREN
SARRERA-HITZALDIA**

Etxaleku, 2008-V-31

ONGIETORRIA

*Maria Antonia Iribarren,
Imozko alkatea*

Ongi etorri Euskaltzaindiko kide guztiak, udaletako ordezkariak eta gainerako erakunde eta lagunak.

Sagrario Aleman Euskaltzaindira sartzen dela ospatzeko bildu gara hemen, Etxalekun, Imotzen.

Sagrariok bere jaioterrian ospatu nahi izan du. Herri honek bizirik eduki du bere hizkuntza, eta belaunaldiz-belaunaldi pasatu da, etenik gabe, guraso-enganetik seme-alabengana, baita Sagrarioren gaztaroko urte zailetan ere.

Sagrario euskaltzale fidel eta sutua izan da, euskararen zabalkuntzaren eta osasunaren alde egin duena, bere eginez Euskaltzaindiaren beraren leloa: «ekin eta jarrai».

Euskaltzain oso izendatze hau urtetan euskararen alde egin duen lanaren errekonozimendua da. Hori dela-eta, harro gaude Imozko herritar guztiok, gure hizkuntza maite baitugu. Maite dugu, bai, eta horregatik haren aldeko konpromisoa berritzen dugu, ikertu eta hobetu dadin, eta arlo guztietan dagokion tokia eman diezaion (hezkuntzan eta erakunde publikoetan).

Zorionak, Sagrario.

AGURRA

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Agintariok,
euskaltzainkideok,
herritarrok,
Sagrario Alemanen etxeko eta senideok.

Egun on guztioi.

Imoz ibarreko Etxaleku herrira etorri da lehenengoz Euskaltzaindia. Ez, ordea, euskaltzainak, Antonio Arrue eta Aingeru Irigarai hain zuzen ere, euskaltzain oso zirenak, hona iritsi baitziren 1959. urtean, Nafarroako Diputazioaren eskutik, euskara sustatzeko eta biziberritzeko asmoz.

Orduko ekitaldiaren lekuko dugu egun Euskaltzaindiaren sarrera-ekitaldia eginen duen Sagrario Aleman etxalekuarra. Orduko hartan haur euskaldun zena, egun irakasle prestu eta trebea dugu, euskara sustatzeko eta biziberritzeko asmo hura ezin egokiago betetzen duena euskararen irakaskuntzaren bidez.

Zinez aberasgarria da Sagrarioaren ahotik hainbat esaera, esamolde eta esateko modu entzutea, zorrotz bateratzen baitira bere esan eta erranetan euskararen tradizio herritarra eta egungo eskakizun linguistikoak.

Askotan aipatzen da gure artean euskararen naturaltasuna, berezkotasuna, euskarak modurik naturalenean gure ezpainetara etorri behar duela azpimarratuz.

Bego hori. Esan dezadan, alabaina, Sagrario Alemanek bermatzen dituela bere ekinean Euskaltzaindiarentzat ezinbestekoak direnak: bateko, euskararen aldetik, oinarri sendoa, betikoa, ekialdeko doinu erakargarria eta gogo irmoa, emakumearen ahots eta aldarte taxuzkoak moldatua; eta besteko, euskara bera, gure nortasun- eta komunikazio-tresna izan dadin ahaleginean barruratua.

Sagrario Alemanek eskarmentu luzea du euskalgintzan; askoz luzeagoa, hala ere, bere maisutasuna euskararen transmisioa bermatzen Nafarroan. Esan gabe doa, Sagrario Aleman bera eta beraren modukoak behar ditugula gure hizkuntzaren bizirautea bermatu nahi badugu.

Datorrela, hortaz, Sagrario Aleman gure artera, sarrera-hitzaldia egin dezan eta entzun ditzagun, arreta osoz, haren hitzak, berak duela mende erdi, hemen, bere sorterrian, beste bi euskaltzain haien esanak entzun zituen moduan.

Sagrario dugu gaur euskaltzain oso, eta gu, euskaltzaleok, entzule adiguratsu.

BERDETIK HORIRA

Sarrera-hitzaldia

Sagrario Aleman Astiz

Alkate andrea,
Euskaltzainburu jauna,
agintariak,
euskaltzainak,
etxeakoak,
jaun-andreak,
egun on.

Ohitura da sarrera hitzaldian bi atal egitea. Lehenean, aurretik aulki hori zuenaren gorazarrea egiten du euskaltzain berriak, bigarren atalean nork berak egoki deritzon gaia azaltzen du, betiere, euskararekin lotura duena.

Hogeita zazpigarren aulki hau, aurretik ez zuen inork, Euskaltzaindiak, berriki arte, hogeita hamar ez, baizik eta hogeita lau euskaltzain besterik ez baitzuen, ez dagokit bada, aurrekoaren gorazarrea egitea. Hala ere, bi atal eginen ditut. Lehenean Etxalekuz, euskara eman didan herriaz, eta transmisioaz ariko naiz. Bigarrenean berriz, helduen euskalduntzeaz, ardatz gisa IKAKo Arturo Campion euskaltegia harturik.

ETXALEKU. TRANSMISIOA

Imotz udalerrian dugu Etxaleku. Mugako herria hizkuntzari dagokiola, izan ere, nire gaztaroan, Imozko Eraso, Oskotz, Latasa eta Urritza edo Basaburuko Ihaben, Udabe, Beramendi eta beste zenbait erdalduntzat genituen, bertan jende asko euskalduna izan arren. Muskitz, Zarrantz, Golaratz eta Etxaleku berriz, Imozko herri euskaldunak ziren. Gaur askoz zailagoa da horrelako bereizkuntzarik egitea, lehen euskaldun deitzen genituen horietan erdararen indarra askoz handiagoa delako eta euskara ez dakitenen kopurua txikiagoa herri erdaldunak deitzen genituen horietan. Hala ere, gaur, Imotz Nafarroako Euskararen Legearen arabera mugan dago, euskal eremuak eta mistoak hemen egiten dute muga. [x] eta [j] ere hemen elkartzen dira, herri batean bata, ondokoan bestea, erabiltzen dugu. *Esan* eta *erranekin* gauza bera dugu. Horretatik hartu du izena he-

mengo irratiak, *Esan-erran*. 1958 eta 59an, Jose Manuel Lasarte eta Sagrario Navarro mintzatzen zitzaizkigun *Berueteko radioa* isildu eta, urte luzez, deus gabe egon ondoren, 1998an sortu zen *Esan-erran* irratia.

Inguruko herri askotan haurrak erdaraz hasi ziren berrogeiko hamarkadan, Etxalekun berriz, euskaraz bizi ginen, euskaraz pentsatzen, sentitzen, mintzatzeko eta jostatzen ginen, euskara zen gure hizkuntza, herritarren arteko harremanak eta komunikazioa euskaraz ziren, eskolako hizkuntza erdara bazen ere. Horixe zen gaztelania, eskolako hizkuntza eta euskaraz ez zekiten erdaldunekin aritzeko balio zuena. Etxalekura etortzen ziren familia erdaldunetako umeez euskaraz agudo ikasten zuten, karrikan ez baitzuten besterik entzuten, transmisio bikaina egiten zuten herritarrek.

Hori zen hain zuzen, herri euskaldunen eta besteen arteko aldea, herri euskaldunetan, etxeko, karrikako eta elizako hizkuntza euskara zela, elizan latinarekin batean jakina, eta besteetan berriz, erdara. Erdaldun izendatzen ditugun hauetako zenbaitetan apezak elizan erdaraz hasi ziren ez dakigu zein Jainkoren izenean; gurasoek seme-alabei ez zieten euskararik irakasten etxe askotan, «guk sufritu duguna sufriri ez dezaten» zioten gizonezko askok, beren soldadutza garaia gogoan; eskolako ikasketak ongi egiteko, zailtasunik gabe, euskara jakitea oztopotzat zeukaten frankok, maistra-maistruek horrela esanik. Garai horretakoa da Muskizko eskolan gertatua. Eskoletara, ez dakit urtean behin edo, inspektorea etortzen zen, emakume zorrotza zen hura, haurrak ez ezik maisuak ere arras beldurtzen zituen. Etorri da, bada, Muskitza, eta bertako mutiko bati galdera bat egin dio, eta honek beldurra edo dena delakorengatik ez du erantzuten asmatu. Maistrak, aitzakiaren bat behar bere burua zuritzeko eta, *badakizu euskalduna da eta...* Euskara jakitea beste edozer ikasteko traba balitz bezala. Gure aita zena, udaleko idazkaria, han izaki ordea, eta idazkariak ongi ezagutzen haur guztiak, zein zen euskalduna eta zein ez. Eta hara zer entzuten duen, Muskitzen euskaraz ez zekien haur bakarria euskalduna zela! Zergatik euskalduna eta, zekien hizkuntza bakarrean inspektore andreak galdetutakoa ez erantzuteagatik.

Euskarak prestigiorik ez zuen, eta euskaldunak gutxietsiak ziren, beraz, ez da harritzekoa herri askotan euskarak atzeraka egitea. Gurasoek, erdizka zekiten gaztelania besterik ez zieten transmititzen beren seme-alabei, eta haur hauek, euskara jakinki ez eta etxean euskaraz aritzen zirenek baino gaztelera kaxkarragoa zuten maiz.

Prestigioa ematearren, eta herri askotan gertatzen ari zena geldiarazi nahian, *Principe de Vianako Sección de Fomento del Euskera* zelakoak hainbat herritan bestak egin zituen eta euskaraz zekiten haurrei sariak ematen zizkien. Etxalekun, 1959ko maiatzaren 17an izan zen, Mendekoste egunean, goizean elizan elkartu zen jendea. Probidentziak hala ekarrita, Euskal Herriaren eta euskaldunen zaindaria den San Migelen irudia ere Etxalekun omen zen euskara sustatzen. Pentsa sein den euskalduna San Migel, Iruñean berean ere, urtez urte, oraindik ere, euskaraz kantatzen baitu jendeak bera iristean.

Etxalekuko bestara itzuliz, elizan bildurik zeudenek elizatik plazarako bidea egin zuten agintari eta txistulariak aurrean zituztela. Plazan, Imozko jendeaz gain, Basaburua, Atetz eta Ultzamatik etorritakoak ere elkartu ziren. San Antonio Eskolaniaren kanten ondoren, Aingeru Irigarai euskaltzainak, gero ariko ziren Mitxelena eta Uztapide bertsolariak eta hizlari nagusia, Arrue euskaltzain jauna, aurkeztu zituen. Eta jakina, bertako hizkuntza galtzen ez uzteko erregua egin zigun eta gazteak, gonbidatu zituen garai bateko bertako bertsolariak izan ziren Oskozko Erdabide, Goldarazko Andres Astitz eta Ziako Txantxoren bidea jarrai zezaten.

Arruek, gure arbasoen ondareak gordetzen saiatzen garen gisara, euskara gordetzeko eskatu zigun, ondare hau arrazoi handiagoz gainera, besteak ez bezala, bizia delakoz. Gure zabarkeriaz galtzen uztea lotsaemangarria litzateke, euskara interes eta mirespenez ikusten duten herri kultuen aurrean. Hauek ez dira, hala ere, arrazoi nagusiak euskarari eusteko. Gure hizkuntza da, eta hori da eusteko arrazoi nagusia. Hizkuntza honetan transmititu ziguten gure aurrekoek beren nortasuna, kultura eta hezkuntza, eta geure izaera ere eman digute hizkuntzarekin batean. Hau da gure hizkuntza. Hori gara gu. Geure hizkuntza da geure gogoaren adierazpiderik egoki eta bidezkoena. Beharrezkoa da, bada, guztion ahalegina euskarak duen balioa berreskuratzeko. Horrela aritu zitzaigun Arrue euskaltzaina.

Hitzaldia bukatuta, aurki ere, haurrek benetan itxaroten zuten ueña ailatxi zen, sarien ueña. Gozokiak, eta 50 pezeta zituen kartila bana haur bakoitzari *Caja de Ahorros de Navarra*. Hura zen hura kontentua! Eta hara zer diren



gauzak, berriki, eskola ematen ari nintzen batean, gauza hauetaz ari ginelarik, ikasle batek, Fernando Gartzia, esan zidan bera izan zela Kutxaren izenean kartila haiek banatzen herri honetan, orduan ez bezala, orain euskaraz ari den Fernando.

Besta horren berri izateko, nire adin ttikiak edota oroimen kaxkarrak lagundu ez eta, egunkarietara jo dut eta bertan irakurri dut, Paz Ziganda eta Maria Puy Ruiz de Alda andreak ere, Iruñetik etorriak, gure artean izan zirela.

Hiruretan hogeiko hamarkada ere aurrekoaren antzekoa izan zen herri ttiki hauetan, erdaraz hasiak eta haziak ziren haietan, erdaraz segitu zuten, eta euskaldun iraun zuten besteek. Hiruretan hogeita hamarrekotan, gauzak okerre-ra egin zuten, eskolak elkartu egin zituzten eta haurrak beren herrietatik atera eta giro eta herri euskaldunetatik lekutu. Haur euskaldunak gutxiengo ziren komunitate horietan, eskola handi horietan, eta bertako hizkuntza bakarra, hor, erdara zen, euskarak ez zuen tokirik. Imozko haurrak, bertako jende askoren iritzien kontra, Irurtzunen, arras bizimolde diferentea zuen herri kozkorrean bildu zituzten 1976an, herriko helduengandik arras aparte hainbeste orduz, transmisioaren etena handituz. Erdaraz ari zen Irurtzunen, 736 ikasle eta 26 irakasleko herria osatu zuten eskolan. Horietatik, 65 besterik ez Imozkoak.

Zorionez, 1985eko Lege zirriborroan ez bezala, 1986ko Euskararen Legeak eremu euskaldunean sartu zituen Imotz eta Arakil, Irurtzun eta bertako eskola barne, jakina. Ondorioz, aurretik, 1979an, ezarritako D eredia indartuz joan zen eta Imozko ume gehientsuenak geroztik eredu horretan aritu dira.

Imotzen euskaldunen kopururik ttikiena, ehunekotan, 96an izan zen, eta ez dirudi horretatik goiti egin dugunik, 1991tik 1996ra 8 puntuko galera izan zen; egia da, aurreko bost urteetan ehuneko lau egin zuela goiti. Hiruretatik bi gara euskaldun, nonbait. Basaburuak ere 1991tik 1996ra galera handixkoa izan zuen, eta geroztik goiti egin du zerbait, ehuneko 83 da euskalduna 2001eko erroldaren arabera.

Euskaltzaindiaren Jagon bilduman Gros y Lladósek, argitaratu berri duen *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuan, etorkizunerako egiten duen aurreikuspenean dio, hamarkada gutxian euskararen erabateko galera zekarren maldan beherako joera hori geldiarazi dela, joera hori irauli dela. Hori esateko, 1991 eta 2001a bitartean, euskara dakitenean adin tartek hartu ditu kontuan. Horrela, 15 urtetik behehitiko ehuneko 72,4k zekien euskaraz 1991an, Imotzen, eta 2001ean berriz, 77,4k, eta 15 urtetik 25 urte bitartekoetan, 39,6tik 62,5era pasatu zen euskaldunen ehunekoa. Basaburuan, 88,5etik 94,2ra eta 67,5etik 91,1era, hurrenez hurren.

Grosek mendebaldeko ibarrak deitzen dituen hauetan, *-Araitz, Larraun, Betelu, Basaburua, Imotz eta Lekunberri-*, 2001ean, populazioaren ehuneko 80,3k dio euskara badakiela eta urte berean, haurren ehuneko 91,5 da euskalduna. Ibilbide horrek etorkizun itxaropentsua dakar, dudarik gabe. Datuak hor

dira, euskararen berreskuratzean egindako lana ere bai, tartean eskolak, garai bateko erdalduntze lanaren norantza kontrara eginez, beste neurri eta moldez, jakina. Orainari eta egunekoari begiratzen diot nonbait etorkizunari bezainbat. Nondik gatozen ikasi, nora irits gintezkeen aztertu, erdietsi nahi dugun horrekin amets egin, eta oraingoa bizi. Etorkizunean ehuneko ehun euskalduna liteke inguru honetako populazioa.

Noiz eta zenbateko populazioa izanen ote da? 1935ean, Etxalekun, 272 lagun bizi ziren, horietatik, 20 urtetik beheitikoak, denak euskaldunak, 138 ziren, hau da, populazioaren erdia, (15etik beheitikoak 112, %41 Etxalekun) eta Imotzen %43 (1.112tik 482lagun, 15etik beheitikoak 383, hau da, %34). 65 urtetik goitikoak berriz, 9 lagun besterik ez zen Etxalekun. Imotzen 1.112tik 58, ehuneko bost, hortxe-hortxe. Nork usteko zuen orduan, berrogeita hamar urte geroago, 1986an, Imotz ez zela Etxaleku halako bi ere izanen? Hauek ditugu 1986ko datuak: 439 bizilagun, 15urtetik beheitikoak %15 eskas, 20tik beheitikoak %21 eta 65etik goitikoak %18.

Populazio tikiagoa, beti behera. Inguru honetan beren xokoa edota maitea aurkitu eta kanpotik heldu diren asko, erdaldunak, Etxalekun betiere, euskaldunak joan eta erdaldunak etorri. Erdaldun elebakarren kopurua absolutuan ez ezik, ehunekotan ere goraka eta populazioa berriz, ttikitzen eta zahartzen. Jendea zaharrago eta etxekoiago, karrikak hutsago, herria motelago eta totelago, jenderik ez, hitzik ez, esan genezake. Autonomia ere gero eta tikiagoa du herriak, lana, erosketak, ikasketak, jostaketa, aisialdia dena kanpoan egin behar. Eta hori dena erdalduna den Pamplona handian egin behar, Iruñea aurkitzea kosta egiten baita maiz.

Etxalekura bizitzera etortzen ziren haur erdaldun guztiek ikasten zuten euskaraz gure haurtzaroan; euskara ikasten ari zen heldu zenbait ere etorri izan da hona maila hobetu nahian eta mintzatzeko erraztasuna erdiestearren. Orain, zailago lukete frankoz ere, arestian aipatu arrazoiengatik. Eskolako hizkuntza da euskara, ez ordea jostaketakoa. Eta eskolan ez da mintzamina askorik lantzen, ikasleak ikastetxeko patio eta atarietan erdaraz entzutea ez da batere harrigarria. Eta herrian ere, ez ote dira erdaraz errazago aritzen beraien artean? Eta euskara ez dakien haurren bat hurbiltzen bazaie inolako eragozpenik gabe eta ohartu ere gabe pasatuko dira gaztelaniaz mintzatzera. Etxalekuko populazioa ttikia eta zaharra izanik, jende gutxi dabil karrikan eta nonahi ere; gainera, euskara ez dakitenak ere badira. Elkarrizketa asko ez entzuteaz gain, hauetako zenbait erdaraz izanen da, gainera. Txillardegiren azterketa matematikoa erabil genezake Etxalekun zenbatetan gertatuko den hori, aztertzeke; orain nire asmoa ez da ordea, kalkulu horren egitea. Baina, argi esan dezakegu herriak, nahiago bada herritarrek, transmisio ahalmen tikiagoa dutela.

Elkarrizketa gehienak, oraindik ere, euskaraz egiten direla eta, herri euskalduntzat jo dezakegu Etxaleku? Adiskide baten ustean oso inportantea omen da herri euskaldunak izatea Nafarroan, diren ttikienak izanik ere.

1992an inauguratu zen Imozko Udaletxea. Besta hartara, nola ez, Nafarroako Gobernuko ordezkariarik etorri zen. Egunak, 1959an egindako euskararen bestaren antzekotasunik izan zuen, egitarauan, meza, agintarien eta herri-tarren ibilbidea edo segizioa, hitzaldiak, bertsolariak... Eta dena euskaraz egin zen, egun hartan bezalaxe, udaletxearen bedeinkazioa barne. Dena ez, Gobernuaren bedeinkazioa erdaraz izan zen, Gobernuko ordezkariak euskaraz ez baitzekien eta nonbait inor ez zen ohartu euskal eremura zetorrela eta inork ez zion hitzalditxo euskaraz prestatu. Ordezkaria ordea, hemen, ohartu zen non zegoen eta bere hitzaldia horrela hasi zuen: *Vascos, Navarros todos...* Badakigu Nafarroan *vasco* euskaraz ari denari esaten zaiola. Etxaleku herri euskalduna da? 1992an erantzuna, bisitan etorri zitzaigun Nafarroako Gobernuko ordezkariak berak eman zigun.

Transmisioa ez da etxean bakarrik egiten, herriak ere egiten du. Lehen guztiengandik ikasten genuen, haurren batek *zun attei ikus diot* esaten bazuen, hagitz agudo erantzunen zuen helduren batek *ze ikus diozu ba?* Edota *juankoa eskurtsioa?* aditzen bazuen baten batek, zerbait esanen zuen berehala. Joanen edo *juain* esan beharrean *juanko* esatea itsusia ez ezik, haurkeria ere baitzen eta gaur ere halakoxetzat daukagu, haurren hizkera kaxkartzat.

Hiruretan hogeita hamarreko hamarkadan, herrian, transmisioa makaltzen hasi zen, esan bezala, haurrak herritik kanpo ordu luzez egoten ziren, gurasoren batzuek euskaraz ez zekiten, erdararen presentzia handiagoa zen komunikabideak zirela eta, batez ere telebista zela eta, Euskal Telebista hogeigarren mende hondarra arte ez zen ikusterik izan hemen. Telebistak etxe guztietan edo ia guztietan izan baitzuen sarrera, horratx, erdara sukalderraino sartua inoren baimen berezirik gabe eta ausardia osoz. Belaunaldien arteko harremana etena, edo etena ez bazen, ahuldua bai, betiere. Hau nabaria da hizkeran.

Hamarkada horrez geroztik sortutakoek Etxalekun erabiltzen diren hainbat hitz ez dituzte inoiz erabiltzen, eta beste asko ez erabiltzeaz gain, ez dituzte ezagutzen. Eta guk, helduagook ere, gero eta gutxiago erabiltzen ditugu, gazteek eskolan ikasitakoa eta telebistan entzuten duguna, nahitaez, gurea baino hobea delakoan. Eta berriki arte esaten genituen hitzak inongo hiztegitan baztertuak utzi ditugu.

Kanpokoari ederresteko eta etxekoa zokoratzeko eta gutxiesteko joera ez dugu oraingoa halere, lehen ere ongi irakatsi ziguten euskararik hoberena Tolosakoa dela.

Gure euskara kaxkarra zela eta zenbatetan ez ote dugu Etxalekun, *det* erabili kanpotarren aurrean, gure arteko *dut* erabili ordez, baita batuan *dut* onartu eta gero ere. *Ondo* eta *hobeto* bikotea *ongi* eta *hobeki*-ri gain hartzen ari da. Ez da inor *jostatzen*, orain, denak, *jolastu* egiten dira. Aldaketa hauek ez dira hemen bakarrik izan, oso hedatuak daude, hango eta hemengo kirolariak berak ere *jolastu* egiten dira eta *jokatu* gabe irabazi nahi izaten dute gainera. Esan bezala, zuzentasunaren izenean eta euskara batuaren aitzakian,

batuan horrela izan gabe gainera askotan, nonahi egiten dira aldaketa hauek, eta euskararen indarra galtzen ari den herrietan errazago, bertako hitzek laster uzten baitiete tokia eskola edo komunikabideetan aditzen dituzten beste hauei. Aldi berean, harrigarriki, hedadura ttikia duten zenbait hitz oso barneratuak ditugu eta horiek erabiltzen ditugu: *kisuskile* (*igeltsua* baino nahiago *kisua*), *oren bata* beste guztiak orduak badira ere, ez gara erortzen *bota* baizik, *ailatxi* (*iritsi* oraindik ez da *ailatxi*), *ortotsa* (*trumoi* hotsik ez da oraingoz gehiegi aditzen), *hitz egiteaz* landa *jolasa* ere egiten dugu. *Deus, ebatsi, ixiki (izeki), agudo, atije, ortzi...*

Ortzi, Etxalekun beste inon entzun ez dudan hitza adiera horrekin, arras agerian dugu, ez zaigu *ezkutatu*, estetika kontua ote da? Niri behinik behin, askoz politagoa zait *ortzi*, *ezkutatu* baino. Jostaketa pare batean ere agertzen zaigu *ortzi* hitza. *Zirik ortzitzen* lehen askotan jostatzen ginen. Kuriketean gabiltzalarik, berriz, hauxe kantatzen dugu: *kuriketan-koketan, ortzitzen ez dena, bera bete. Bale zaudete? Ortzitzen* eta ez *orzten* iduri lukeen bezala.

Gazteek ezagutu arren ez darabilte, herritarrekin ari direlarik ere ez, *igan, iratzarri* eta *heldu* (etorri trinkoetan) aditzak. Instrumentalean *zeta* egiten dute eta ez *ese, berris* (berriz), *aldis* (aldiz), *oines* (oinez) hemen bezala. Nahi dutelako ez dute esaten *dutelakos*. *Norantz* erabiltzen dute, ez *norata*, hemen bezala, eta hortaz ez dute *honata, horrata* eta *hata* esaten.

Zer esanahi duten *igarririk ematen* ez dioten hainbat hitz badarabiltzagu, oraindik, baina belaunaldiz belaunaldi pasatu ez ditugunak. Inoiz entzun ere ez dituztenak, *Baldinbes!* Arropa bezala hizkuntza *erkozten* ari zaigu. Deusen *esparik* ez. Elurrarena ere ez? Aspaldixkoan ez bi ez bost *eri* ere ez dugu izan, bada. *Aparretsirik*.

Aparretsirik? Zer da hori? Adiskide bat hortxe ari da hiztegieta begira ea batean edo bestean ageri ote den, apika interneten bidez ere galdera egina duen, baina etsiturik esan dit ez duela inon irakurri edo entzun. Nola itzuliko zenuke erdarara? Ez dakit bada, «enviciado» edo horrelako hitzik baldin bada, betiere, gaztelania hiztegian. Baina, hara, lehengo egunean, Euskadi Irratian hor ari ziren Felisa izeneko emakume batekin, garai bateko jostailuak zirela eta ez zirela, eta emakume honek esan zuen gaurko umeak ordenagailura *engantxaute* zeudela. Haratx, hortxe erabiliko nuke nik *aparretsirik*.

Hauek ere ez ditugu berdin esaten: pilotan edo futboleko dabiltzanean, haur eta gazteek tantoak kontatzean *eta-rik* ez dute esaten, bat *eta* bost esanen genukeen guk, eta ez *bat bost*. Guk, *bat eta bat ere ez* Jean Etxepare idazlearen *pilota partida Lekornen* idatzian bezala, gazteek *bat huts*.

Gazteek, oharkabea, naturaltasunez mintzatzeko erraztasun gutiago dute, idazteko eta irakurtzeko ordea, ustez behintzat, handiagoa. Lehen, beti euskaraz ari izan arren elkarrekin, idatzi, erdaraz egiten genuen, erdaraz arras juxtu moldatzen ziren gurasoek ere, seme-alabei, eskutitzak erdaraz idazten zizkie-

ten. Nola ez zuten erdaraz eginen idatzia, ahozko komunikazioa bera ere, telefonoz, telefonoa sartu berritan hala egiten bazuten? Esku artean horrelako tresna deabru bat zutelarik ezinezkoa zitzaien euskaraz aritzea. Arantzazuko takoa, dotrina, elizako kantuak, *Umeen deia* eta etxe guztietan doan banatzen zen *Principe de Viana* aldizkariak landa, deus gutxi irakurtzen zen euskaraz herri hauetan. Duela hogeiren bat urte, gogoan dut, hemengo gizon zaharrek Mariano Izetaren *Negarrez sortu nintzen* liburua zein gustura irakurri zuten, eta leittu ahala nola pasatzen zioten elkarri. Euskara eta gaia hurbilekoak zitzaizkien eta horrela irakurtzea erraza zen. Orain uste dut irakurtzeko gehixago baden etxeetan. Asko ez, hala ere. *Pulumpe* aldizkaria Imotz, Basaburua, Lantz, Ultzama, Atetz eta Odieta etxe guztietan hartzen dute. Udalaren erabakien berri emanez esku-papera, euskaraz eta gaztelaniaz banatzen dute.

Basaburuko eta Imozko udaletan ez da, segur aski, kanpora begira diskurtso instituzional askorik egin baina, azken urteetan egin direnak, uste dut euskaraz egin direla gehientsuenak. Lehen gogora ekarri dut Imozko gertakari bat, orain Basaburuko beste bat aipatuko dizuet.

Orain sei bat urte izan zela uste dut, udaletxearen berriztatze lanen amaieran. Alkateak euskaraz prestatu zuen, udal zinegotzi, Nafarroako Gobernuaren ordezkari eta herritarren artean irakurri behar zuen hitzaldia. Euskaraz irakurri zuen, euskal eremuan eta euskaldunen aurrean, Gobernutik etorritako ordezkaria haserretu egin zen ordea, berekiko errespetu faltatatzat jo zuen euskaraz mintzatzea eta horrexekin hasi zuen bere hitzaldia, besteei errespetu falta egotziz, erdaraz jakina. Horrelakoak entzun eta irakurri ondoren euskara, gauza solemneetan, formaletan eta idatzietan erabiltzeko ez dela dirudi.

Euskal Herriko toki gehienetan bezala, hemen ere idatzi gutxi ikusiko ditugu eta haiek erdaraz. XVIII. mendeko Etxalekuko hiru etxek dute atalburuan idatziren bat, *-Zapatineneak, Dorrotoak eta Etxaundiak-*, eta hirurak erdaraz, XIX. mendeko elizan bezalaxe. Eta XVII. mendeko *Ernautenean* berriz, ez dakigu zer jarri nahi izan zuten ere, idatzi nahia bazela dirudi, baten batek alfabeto edota hizkuntza bereziren batean ote zegoen ikertu nahi izan du, hala ere. XX. mendean ordea, euskaraz idatzi zuten plazan (1921) eta San Pedro ermita zegoen tokian (1964), baita Joxe Jabier anaia zenaren omenez ezarritako oroitarrian ere (1997).

Euskaraz idazteko ohiturarik ez izan arren, Euskal Herrian idatzirik iritsi zaigun kopia zaharrenetakoa, Etxalekuko dugu.

«Ancareac oyna xabal buztayna labura norc berea demana beti da bellaco Marticho Musu da alaquo eta ala caynezco» (AGN, Procesos, n. 197511). Honen berri, Ricardo Urrizola Hualdek eman digu *Fontesen*, 2007an, 104. zenbakian. Dokumentua aurkitu berriz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia irakasle eta katedraduna den Maria Isabel Ostolazak.

Nonbait, 1491n, Etxalekuko jauregian, *Julinearen* gibeledko aldean edo, Maria Iturburua zeritzan emakume bat bizi zen, alargundu eta bere bigarren

senar Martitxo Musurekin. Diru beharretan izaki Iturburu andrea eta etxaldea garai hartako jauntxo bati, Uhartre Arakilgo Felipe Beaumonti, saldu bide zion eta honen etxean, eroslearen Uharteko etxean, hartu zuen bizitokia Mariak, Martitxo Musuren kezka handirik gabe. Bai Etxalekuko jendeak koplak atera ere hagitz agudo zero-lur beste aterperik gabe gelditu zen Martitxori!

Berrogeita hamar bat urte geroago, 1541ean, jauregia zela-eta auzia izan zuten bi emaztek, Isabelek, Feliperen alabak batetik, eta Maria Iturburuaren alabak bestetik. Auzi honetan lekuko aritu ziren Etxalekuko Maria Dorralde, lauretan hogeitorteko, Arbeyzaren alarguna, hiruretan hogeitorteko eta Maria Iribarren, hiruretan hogeita hamahirukoa. Azken honek, bere testigantzan aipatzen du Martitxo Musuri egin zioten koplak. Urrizolak dioenez, 1541eko dokumentu hau liteke euskarazko koplarik duen dokumenturik zaharrena, Garibairen *Compendioa* 1576koa baita.

Gaur, zirikatze, irri egiteko, madarikatze, txisteak egiteko, axakatze, haserretze, ironia erabiltze... erdarara jotzen ote dugun maizegi eta erraxegi beldur naiz, ez dakit euskaraz koplarik egiteko graziaz edota ahalmenik badugun, baina oraindik, ahuldadeak ahuldade, Etxalekun, euskararen transmisio-katea ez da hautsi. Zaharrena den lauretan hogeita bederatzitorteko osaba Joxanjelgandik hasitako soka, gazteena den hamar hilabeteko Kattalinenenganaino, bere ttatta-tta eta baba-ba horretan, euskarazko soka da, tartean, soka zirpildurik badago ere.

HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Ez dute denek euskaraz mintzo den herri batean eman beren haurtzaroa, eta ez dute beraz euskaraz jostatzeko aukerarik izan, zoritxarrez. Eskolak ere ez ditu euskaldun egin, ez lehen leheen inolako babesik ez zenean, ez gero ere. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako eskualde euskaldunetan, bertako leheen arabera, ikasle guztiek oinarrizko eskolatzaren bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun aski behar badute ere, denak ez dira euskaldun.

Haurtzaroan euskara ikasi ez eta heldutakoan ikasi duenik bada ordea, eta ez gutxi, gehienak helduen Euskalduntze-Alfabetatze mugimenduaren esker. Mugimendu honek berrogeiren bat urte du. Hasieran, batez ere alfabetatzeko eskolak izan ziren, euskaldunak alfabetatzea zuten helburu, eta gau-eskolak zeritzen, eskolak iluntzean ematen ziren eta.

Euskaltzaindiak, 1966an, Alfabetatze Batzordea izendatu zuen eta 80ko hamarkada hasiera arte Euskaltzaindiaren babespean egon zen mugimendu hau, orduko, euskalduntze lanetan alfabetatzen baino murgilduago. 1966an Rikardo Arregik Jose Mari Satrustegiri igorritako eskutitzean honela zioen: «Gainera, zu naparra zeran ezker, beste zerbait esan nahi nizuke. Ez ote legoke Naparro'ko beste euskaldunekin beste orrenbeste egiterik? Gu, gazte

talde bat, prest gaude edozertan laguntzeko...» Alfabetatzeaz ari da, jakina. Laster, Etxarri eta beste herri bakar batzuetan hasi ziren lan horretan 70eko hamarkadan.

Nafarroan, Iruñean behinik behin, aurretik euskara eskolak ematen zituzten han eta hemen, Nafarroako Diputazioak, 1956an, *Principe de Vianaren* barnean sortu zuten *Sección para el Fomento del Vascuenceren* bidez eta beste. Lehen ikastola sortzen aritu zirenak batetik, eta Nafarroako Unibertsitatean ikasten ari ziren gazte euskaldun zenbait bestetik, asmo beraren inguruan bildu eta sortu zuten Arturo Campion euskaltegia 1972an. Eskolapioetan izaten ziren eskola haiek, baina laster Mendigorriko emakume bati Compañía karrikan lokal bat alokatu eta ikastetxeak hantxe izan zuen bere lehen egoitza. Babes legala berriz, Javier Cunchillosek gidatzen zuen Etorikizuna elkarreke ematen zion. Eta Patxi Zabaleta izan zuen lehen zuzendaria ikastetxe hark. Ikastetxea diot, garai hartan ez baikeuen euskaltegia hitza erabiltzen ikastetxea baizik.

Euskaltegi hitza Imanol Berriatuak, Xabier Mendigurenek eta Xabier Kintanak sortu omen zuten Israelgo ULPAN itzultzeko. Euskaltzaindiaren Euskalduntze-Alfabetatze Batzordeari izena aldatzeaz, mugimenduaren barnean hainbat eztabaida egin zen 1979an, eta proposamenetako bat *Goiherriko Euskal Eskolako* talde eragileak egin zuen, bertan, hain zuzen **euskaltegi** hitzaz ere beraien iritzia eman zuten: «...euskaltegi hitzari ongi moldatua deritzogu... halere, belarrira guztiz bitxia egiten zaigu...». Nori zaio bitxia gaur? Askotan, zail da asmatzen hitzek zein bide egingen duten!

Euskalduntze-Alfabetatze izena ere kritikatzeko zuten, askorentzat ahoskatzeko zaila izateaz gain, itsusia zelako. Gure artean aditz nominalizatuak erabiltzeko den abusuari jarraitzen ziola izen horrek eta ea zertarako ditugun beste atzizkiak galdetzen zuten Goierrikoek.

Izenekin jarraikiz Arturo Campion euskaltegiarenarekin segi nezake. Hainbeste urteren buruan, oraindik, nola idatzi oso garbi ez dugu, hau da komedia *Komedia* karrikan duguna! Euskaltegian, orain dela 20 bat urte, italiar bezala idazteko erabakia hartua dugu, hainbat paperetan ordea, izugarriko anabasa dugu. Idaztekoan ditugun arazoak arazo, oso egoki deritzogu helduak euskalduntzeko ikastetxe batentzat, Euskaltzaindiaren sortzaile izan zen Campionek berak euskara heldutakoan ikasi baitzuen, gramatika aztertzen eta idazten iaioagoa izanik ere, mintzatzen baino.

Euskalduntzearen helburua ahalik eta euskal hiztun gehien ahalik eta epe laburrenean erdiestea da, euskararen gainean jakitunak egitea ez da gure xedea, horretarako baditugu beste instituzio zenbait. Mugimenduaren jomuga hasieran euskaldunak ziren, euskaraz alfabetatu beharrekoak; gaur ordea, euskaraz bati ere edo zerbait dakiten erdaldunak dira. Eta ikasten ari denaren edo ikasteko asmoa duenaren helburua ere hori bera da. 1996an, *Siadecok*, Euskal Herrian, 20 eta 29 urte bitartekoan artean egindako azterketan, euskara ikasteko asmoa



zuen nafarren %74k euskaraz hitz egiten ikastea zuen helburu, eta hamaika urte geroago, Arturo Campion Fundazioak eskatuta, *Taller de Sociologiak* Iruñea, Atarrabia, Burlata eta Barañainen egindako azterketan ere hori bera dakusagu, %74,2k eguneroko bizitzan erabiltzeko adinako gaitasuna erdietsi nahi duela, edota ulertu bederen. Lanerako titulua atera nahiko luketenak ere, badira franko, %18,5.

Euskara ez ikasteko erabiltzen duten arrazoi nagusia azterketa gehienetan dakusagunez *denbora falta* da. Euskara *zaila* dela diotenak ere ez dira gutxi. *Ez dut euskararen beharrik* esan zuten 1996an 20 eta 29 urte bitarteko askok, orain, 32 eta 41 urte artean dauden horiek. Campion Fundazioak eskatuta, iaz, Iruñerrian egindako azterketan berriz, ez ikasteko arrazoi nagusia *adinekoa izatea* da. Joan den hamarkadan denborarik ez eta ikasi ez zutenak orain zaharregi dira!

Azterketa horretan berean Iruñea, Barañain, Burlata eta Atarrabiako 15 urtetik goitiko populazioaren %19,7k esan digu *ez duela euskara ikasteko inolako* interesik, eta besteek, lehen aipatu bezala, arrazoi hau edo beste dabilte euskaltegira ez etortzeko epe motzean. Txepetxek dio bigarren hizkuntza ikasten hasteko motibazio aski behar dela, motibazioaren basoa neurri bateraino betetzean, hurrengo basora isurtzen hasten da, hau da, ikasten.

Zerk bulkatzen du ikastera? Ez da erraza gaurko ikuspegitik garai bateko ikaslearen motibazioa zein zen esatea, gaurkoarekin kutsatzeko arriskua baitugu. Garai hartako ikasleei orain galdetuko bagenie, aurki ere, arazo bera

izanen lukete, garai hartako beren pentsamendua zein zen esateko zailtasuna izanen lukete. Euskaltzaindiak 1979an argitaratutako *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* liburuan irakurri dugu, euskara ikasteko arrazoi nagusia herri honetakoa izatea dela, herri batek irauin ez dezakeelako bere hizkuntzarik gabe. Liburu honetan berean, 1976-77an, helduen euskalduntze- alfabetatzea zertan den ageri zaigu, hau da, mugimendua sortu eta hamar urtera. Honatx datuak: 40.000 ikasle eta 2.000 irakasle Euskal Herriko herrialde guztietan barna. Gehienak euskalduntzen ari dira, nahiz eta alfabetatzen ere jende franko ari den, batez ere, Gipuzkoa eta Bizkaian.

Motibazioari lot nakiom. Afektibo ideologikoak dira nagusi; «maite dudalako» edo «gure herriko hizkuntza delako» bezalakoak. Arrazoi komunikatzaileek ere badute pisua, eta garrantzi gutxien, berriz, pragmatikoek, 1996ko azterketan. Iruñeko inguruan oraintxe egin dugun azterketan ere arrazoi guztien artean identitatea nagusitzen da, gure hizkuntza izateaz gain kultura ondasuna ere baita. Gazteenengan arrazoi pragmatikoak indar handia du halere. Seme-alabekin mintzatzeagatik ikasi nahi dutenen artean gehienak emakumezkoak dira, nahi duenak hel biezaio hari mutur honi, zer esan franko izanen du eta.

Maider Sukunzak Arturo Campiongo ikasleen artean egin zuen azterketan ere, motibazio integratzailea azpimarratu du, eta instrumentala ez dela ageri dio, batzuek, agian, etorkizunean euskara jakitea ongi etor dakiekeela aitortu arren.

Ez da naski, arrazoi bakarra eta garbia izaten euskara ikasten hasteko. Kantak ulertzeko, belarrira polita zaidalako, halakori entzun niolako, gustukoa dudan idazlearen liburuak jatorrizko hizkuntzan irakurri nahi ditudalako, deiturak aztertzen hasi nintzelako, historia ikasten hasi nintzelako...

Badira euskara ingurukoei zor dieten *begiruneagatik* ikasten dutenak. Beti euskaraz aritzen garen horiekin erdaldunen aurrean ere euskaraz aritzeagatik, hamaika aldiz, esan izan digute edukazio arrastorik ez dugula. Alderantziz, berriz, gogorra edo gordina da, politikoki ez zuzena izateaz gain, erdal elebarrak euskaldunoi bere hizkuntza inposatzen digula esatea. Askotan erdalduna gu baino kontzienteagoa da honetaz, eta bera han egonik ere, euskaraz hitz egiten segi dezagun eskatzen digu, tarteka berari erdaraz mintzatzen bagatzaizkio, erabat kanpoan utzi gabe. Eta bada jendea, hain zuzen ere, horrexegatik ikasten duena, besteenganako errespetuagatik, inori deus inposatu nahi ez diolako. Elkar ulertzeko ahalegina biek egin behar dutela baitakite, ez alde batekoak bakarrik, bestenaz, mendekotasun harremana sortzen da eta ez elkar ulertzekoa.

Euskara hizkuntza zaila da, ordea, dio askok. Moreno Cabrerak dio hizkuntzak ez direla zailak edo errazak, beti dakigun hizkuntzatik ikasi nahi dugun horretara dagoen aldearen arabera dela zailtasuna. Portugaldarrentzat gaztelania alemana baino errazagoa da, eta alemanentzat nederlandera gaztelania baino errazagoa. Xamarrek dioen bezala, bi hizkuntzen arteko alde

bera da alde batetik edo bestetik begiratuta. Hortaz, distantzia edo zailtasun bera du erdara –frantsesa edo gaztelania– ikasi behar duen euskaldunak edo euskara ikasi behar duen erdaldunak. Hau horrela izanik ere, ahalegina diferentea izanen da, erdara ikasteko bitarteko eta laguntza guztiak ditugulako; euskara ikasteko, berriz, dena zailtasun eta oztupo. Bai jendartean dituenak, bai administrazioetik jartzen zaizkionak.

Lege eta oztupo guztien gaintetik, eta hodei ilun guztien azpitik, euskara ikastera hurbiltzen da hainbat heldu. Hasiera hartan oso gazteak, 25 urtetik beheitikoak, ziren etortzen zirenak, kultura, dantza eta mendi taldetan zebiltzanak asko, ikasleak, giro politiko jakin batean mugitzen zirenak. Lehen aipatu dudan *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* liburuan, 1977an, ikasleriaren honako ezaugarri hauek ageri dira: emakumeak %60, eta ehuneko bertsuan 25 urtetik beheitikoak, gehienak bertakoak eta ikasketa-mailari dagokiola berriz, nagusiki erdi-mailako ikasketak zituztenak eta unibertsitatean ikasten ari zirenak ere asko. 1986-87rako aldatu zen ikaslearen tipologia, ikaslea ez da lehenengo gune beretik heldu, jendartea ere aldatu baita asko, adinez ere helduagoak dira, lauretatik hiru hurbil, 20 eta 30 urte bitartekoak dira, gazteagoak %17,5 izanik. Iruñeko AEK, IKA eta Hizkuntza Eskolan, 2000. urtean, Arrese, Bueno eta Perez andreek egindako azterketan, ikasleen %81k 20 eta 40 urte bitartean zituen. Eta gaur, Campionen, bi heren 20 eta 40 urte artean dago, eta heren bat, berriz, zaharragoa da, 20tik beheitiko ikaslerik ia ez dago. Argi esan dezakegu ikasleria gero eta zaharragoa dela, nahiz eta euskaltegitik euskaltegira datuak aldatzen diren ehunekotan,. Ez da naski harritzekoa populazioa gero eta zaharragoa izanik eta gazte frankok D erduan egin dituela ikasketak jakinik. Euskaltegietan euskara ikasten ari direnen artean gizonezko baino emakumezko gehiago ari da, lehen urteetan izan ezik, eta beti horrela izan da gainera. Iruñean, 2000. urtean %56 zen emakumezkoa. HABEren datuetan 2005-06an, Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasleen bi heren baino gehiago emakumezkoak ziren. Ikasle gehienak, oraindik ere, bertakoak dira. Iruñean 2000. urtean, ikasleen %81 Nafarroan jaioa zen. Horregatik deigarria da oso Jakes Bortairuk ematen digun datua: Iparraldean, ikasleen %32k Euskal Herrian 10 urte baino gutxiago darama.

Irakasleriaren perfilaren datu askorik ez dugu eskuartean, Bat aldizkarian HABEtik emandakoetan esaten da adinari dagokionean 40 urtetik beheitiko dela, gehienak lizentziatuak edo diplomatuak eta %70 inguru emakumezkoa. Arturo Campion euskaltegian ere, lehenengo urteetan izan ezik, emakumezkoak gehiago izan dira. Euskaltegi honetan sorreratik gaur arte 250en bat irakasle aritu da, batzuk urte gutxian beste zenbait luze, gaur ari direnen %44k 20 urtetik goiti egin du lan horretan. Mattin Manterolak euskaltegiak hainbat urte du ikastetxe honetan, ez da asko izan beste horrenbeste urte egin duenik helduen euskalduntze eta alfabetatzean! Campionen aritu diren 250 irakasleetatik gehienak nafarrak izan dira eta horietako franko aurretik euskaltegian berean euskaldundua edo alfabetatua, gaur erantzule dudana Patxi Salaberri bezala.

Euskalduntzen hasi ginen garaian, guztiok ere ezjakinak ginen hizkuntzen irakaskuntzan. Hasiera hartan Patxi Altunaren *Euskara hire laguna* hartu genuen metodotzat, eta gogoan dut Patxi bera etorri zitzaigula, Nafarroa Behereko etorbidean dagoen Centro Xabier horretara nola irakatsi erakustera. «Ikasleak ez beza deus esan, entzun baino lehen; ez beza deus irakur, esan baino lehen...». Ikasleak gauza bat nola eta zergatik den aditzea eta gauza hori bera ikasleak esaten jakitea oso gauza desberdinak direla esan zigun. Ikasleak errepikatzearen poderioz ikasten duela; aurrean ditugun gauzetatik hasi behar genuela erreferentziak ematen, eta beste hainbat aholku eman zigun Altuna jaunak. Eta hortxe hasi ginen «hau eskua da» eta «hauek begiak dira» irakasten. Lasatarrak eta Gernikako beste hainbat familia euskaltegian izan genituen gurekin, liburuaren bidez haien gorabeherak ikasten genituen.

Gero, *Euskalduntzen* liburuak iritsi zitzaizkigun. Itxura berriagoa zuten hauek, arinagoa. Imanol ageri zen eskola ematen. Eskaintza ere polita zuen bizkaitar irakasle haiek egin zuten lehen liburuak: «Barakaldotik Tuteraraino euskaraz ikasten ari direnei». Baina Iruñean, Campionen, ez genuen asko erabili, zenbait oso zalea bazen ere, nafar burugogor gehienontzat arrotzegia zen «etxe aurrean, gurdia egon da eta belar meta bat ere bai» irakurtzea eta gurdia eta belar meta han ikustea, marrazkian. Nola *egon da? hemen dago* eta.

Liburuak eta kantak ere hor genituen lagungarri. Orduan orain baino askoz gehiago kantatzen genuen, indar handia baitzuen garai hartan euskal kantagintza berriak, eta ikasle askok kantari esker euskara ederki ikasten zuen. Buruz ikasten genituen kantak ikasle eta irakasleok, eta afalondoan ez zegoen kanta liburuxka atera beharrik orain bezala.

Aditz koadroa ikasle guztiak eskuratu nahi zuten altxorra zen. Irakasle batek aditza lantzeko jostailu polit bat asmatu zuen eta Mañueta karrikan txurroak nola horrelaxe saldu genituen jostailu haiek. Ikasle eta irakasle guztien obsesioa izan zela uste dut. *Nor, nori* eta *nork* beti inguruan, euliak behiarenean bezala. Ikasleak matrikulatzera etortzen zirenean ea zein urrats egin ote zuen aurreko euskaltegian edo ikasturtean galdetu eta, nor-nork lehen aldian landu zutela erantzuten zuten, halako edo honelako urratsa egin zuela erantzun ordez. Gaitza larria izan zen eta erremedioa bilatu behar nonbait. Azkenean, *nor, nori* eta *nork* balkoitik beheiti bota behar izan genituen. Laugarren pisuan egonik irtenbidea ez zen txarra izan. Denak lasaitu ginen pixka bat.

Bitarte horretan beste metodo zenbait ere etorri zen gurera, *Hitz egin* eta *Jalgi Hadi* marrazkiz lagundurik. Gero etorri ziren AEKren talde didaktikoaren lanak eta *hormairudiak*. Iraultza neurri batean bederen, metodo komunikatiboz hitz egiten hasi baikin. Eta geroago Gasteizko IKAREN *Hitzetik hortzera*. Gaur, ez dut uste inon liburu bat hartzen duten metodotako. Ikastunitate bereziak prestatzen ditu euskaltegi bakoitzak bere eskoletan erabiltzeko. Ikus-entzunezko euskarriak ere gero eta gehiago erabili izan ditugu.

Hasieran, lehenengo egunetan, ikasleari kosta egiten zaio gure irakas-sistemaz jabetzea, itzulpena eta adierazpen gramatikalak nahi izaten ditu, eta guk, argi uzten diegu eskolan hizkuntza bakarra euskara dela. Esaldiak buruz ikasi behar dituela esaten diogu, leroek bezala errepikatzeko behin eta berriz, behin eta berriz, buruz ikasi arte. Horrela gero, behar orduan, esaldiak, ohar-kabea, naturaltasun osoz esanen dituztela, hitzez hitz pentsatu eta lotzen hasi gabe. Eta ikasleren bati, halako batean, «aizu, nola esaten da *como se dice*» entzuten diogunean kontent izaten gara irakasleok, gure metodoak ongi funtzionatzen duela eta.

Azken urte hauetan, auto-ikaskuntzak indar polita hartu du zenbait tokitan. Jende asko da *on-line* ikasten duena, *Boga* edota *Bai & by* sistemen bidez euskaltegira joan beharrik gabe.

Orain, irakaskuntzan, askoz ere bitarteko tekniko gehiago dugu, materiala ere bai, baina ikasleak ahalegin bertsua egin behar izaten du. Lehen esan dut, hizkuntzen arteko aldea zenbat eta handiago orduan eta zailago egiten zaiola ikasleari bigarren hizkuntza hori ikastea. Horrexegatik beharbada, kostatzen zaio hainbeste euskara ikasleari, hasieran, esaldiaren ordenaz jabetzea. Zergatik esaten ditugun gauza guztiak atzekoz aurrera esaten digute, euskaraz dena aldrebes egiten omen dugu. Gaur, sarrera hitzaldi honetarako marrazkiak egin dizkidan Asisko Urmenetaren erantzuna ematen diegu honelakoetan:

Altxorraren bila jostaketan aritzeko askoz ere errazagoa delakoz euskararen ordena zuzena, erdararen aldrebesa baino. *Hurrengo pista, beheitiko pisuko sukaldeko ezkerreko armairuko eskuinaldeko bigarren kutxan dago*. Eta erdaraz hor hasiko zara, *en el segundo cajon del armario...* Hara, erdaraz hori irakurri orduko, euskarazkoa irakurri duen ikaslea lehenengo pisuan da.

Sachant que le basque est une langue stable qui a conservé certains termes sans modifications très importantes, il convenait de chercher si ces termes pouvaient être retrouvés dans les langues caucasiennes. C'est le cas. Bien entendu vu le nombre important de langues de la région du Caucase, il fallait fouiller en profondeur dans bon nombre d'entre elles pour trouver les correspondants du basque. C'est ainsi que j'ai pu découvrir le terme *hagin* «dent» en gunzib, langue caucasienne du nord-est (CNE), pour lequel l'appui sur une reconstruction n'est même pas nécessaire. Lorsqu'il y a reconstruction proto-caucasienne, il faut s'en tenir aux plus simples pour éviter les erreurs commises par des chercheurs comme J. D. Bengtson qui s'obstine malgré mes mises en garde (7) à voir par exemple dans le basque *ukondo* «coude» un composé d'un prétendu préfixe *u-* et d'un terme *kondo* «coude» alors que tous les bascologues savent évidemment qu'il s'agit de *uko* «avant-bras» et *ondo* «base» du lat. *fundum*.

En s'appuyant sur un bon comparatiste comme S. Starostin on peut découvrir des cognats du basque. Ainsi le basque *luze* «long» correspond au proto-nord-caucasien (PNC) **lVjsV* «id» et au proto-sino-caucasien (PSC) **lujsV* que S. Starostin a reconstruit à partir du lak *lisu* «étroit» et du sino-tibétain **loj* «long». La comparaison avec le terme basque est d'autant plus remarquable que S. Starostin a eu connaissance tardivement de la forme basque.

Parmi mes découvertes récentes se trouve également le cas du nombre «cent». On a essayé de rapprocher le baque *ehun* du germanique (anglais

(5) T. BURROW, M. B. EMENEAU, *op. cit.*, n° 506, p. 49.

(6) T. BURROW, M. B. EMENEAU, *op. cit.*, n° 4879, p. 435.

(7) M. MORVAN, En réponse un article de J.D. Bengtson, *Fontes Linguae Vasconum*, n°74, 1997, p. 70.

hundred, allemand *Hundert*) ce qui n'est pas très sérieux. Cette comparaison désespérée avec le germanique fait fi du *e-* initial du terme basque et de la finale du terme germanique. Conscients tout de même de la fragilité de cette comparaison, les chercheurs ont tenté de contourner la difficulté en faisant appel au gotique *taihun* qui aurait perdu sa dentale initiale afin d'obtenir une forme plus proche de la forme basque. Mais le gotique *taihun* signifie «dix» et non pas «cent» (c'est l'ancêtre de l'allemand *zehn* et de l'anglais *ten*).

On voit bien qu'il y a là un désarroi des chercheurs du XXe siècle (cf. A. Zytsar en dernier lieu) (8). On a imaginé cette hypothèse fautive de mieux parce qu'on n'avait rien d'autre à se mettre sous la dent comme on dit. Voilà le genre de mésaventures qui arrivent lorsqu'on s'obstine à croire que le basque n'a pas de parentés avec d'autres familles pré-indoeuropéennes d'Eurasie.

Le parent du terme basque *ehun* «cent» se trouve une fois de plus dans les langues caucasiennes du nord-est. Ainsi en botlikh on a *bechunu-da* «cent», en tindi *behan-da* «id.» et en andi *bechono-gu* «id.» (9). Les segments finaux *-da* et *-gu* représentent ce que l'on nomme des suffixes de comptage. On voit que dans la forme tindi le *ch* est déjà passé à *h*. Cela incite à restituer en basque une forme proto-basque **behun* < **bechun*, à condition que le *b-* initial appartienne à la racine et ne soit pas un vieux préfixe de classe fossilisé. Cette comparaison apparaît extrêmement solide et confirme la très ancienne parenté du basque et des langues caucasiennes, au même titre que les termes déjà vus précédemment.

J'ai évoqué plus haut le dravidien *micai*, *misal* «moustache». Le caucasien possède lui-aussi ce terme sous les formes *misai*, *bizal* «barbe, moustache». La parenté avec le basque *bizar* «barbe» est très probable.

Le cas des termes dits expressifs est également très intéressant. Certains sont indépendants dans chaque langue et sans véritable étymologie, mais d'autres proviennent de très loin dans le temps et sont apparentés. Il faut donc en tenir compte lorsqu'on compare les langues. Le cas du basque *khe* «fumée» est remarquable à cet égard. Il est apparenté au tcherkesse *k'e* «id» ainsi qu'au dargwa *qhe* «tousseur». On voit ainsi que ce terme désignant la fumée est issu de l'idée de la gêne provoquée par la fumée qui fait tousser. Il s'agit d'un très vieux terme eurasién. Le fait qu'il soit d'origine expressive ne change absolument rien quant à sa valeur comparative et à son ancienneté.

On notera en outre que les termes expressifs constituent une exception en phonétique basque. Alors que le basque sonorise les occlusives initiales, le cas des termes d'origine expressive fait exception à cette règle. Ils peuvent

(8) A. ZYTSAR, Sobre el origen de los numerales vascos «ehun» y «(h)ogei», *Fontes Linguae Vasconum*, n° 75, 1997, p. 155.

(9) S. STAROSTIN, Andian etymology, Tower of Babel database, 30 novembre 2003, p. 8.

conserver les sourdes initiales comme on vient de le voir avec l'exemple de *khe* «fumée».

Voici maintenant un autre terme très intéressant. Le basque *nini* «pupille de l'oeil, poupée» existe également en caucasien. Le surprenant concept «pupille» = «poupée» existe donc depuis très longtemps.

D'autres termes expressifs peuvent être retrouvés à travers le temps et l'espace. Ainsi S. Starostin a reconstruit une forme sino-caucasienne **tchVr-Vlito* désignant un oiseau. Ce terme est un parent de l'espagnol *chorlito* en dépit de son caractère expressif.

Nous voici donc à la croisée des chemins. Pour la première fois dans l'histoire de la linguistique basque et du comparatisme, de véritables parentés sont enfin découvertes. Il aura fallu attendre le début du XXI^e siècle pour les voir apparaître. Lorsqu'on sait que les comparaisons ont commencé au début du XIX^e siècle, cela fait donc deux cents ans de recherches et d'espoir. La vérité se dévoile enfin. Le basque est issu de l'Eurasien préindoeuropéen ou Proto-Eurasien qui s'est trouvé morcelé il y a très longtemps par l'irruption des langues indoeuropéennes. Il représente une branche de ce super-phylum au même titre que les langues caucasiennes représentent une autre branche du même phylum. Mais il doit être bien clair que l'on ne parviendra pas, étant donné la profondeur chronologique de l'Eurasien, à établir des correspondances aussi régulières que dans le cas de familles bien délimitées. C'est ce qui a égaré les chercheurs jusqu'à présent et les a empêchés de trouver les bonnes correspondances lexicales. Il ne faut pas non plus qu'une certaine frilosité des chercheurs européens dont une partie prendra sans doute le train en marche continue de freiner le progrès de la recherche. Ce n'est désormais plus de mise.

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**

BATZAR-AGIRIAK

AGERIKO BILKURA

Bilbon, 2008ko urtarrilaren 24an

Urtarrilaren 24an, arratsaldeko 17:30etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du egoitzan, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren omenez.

Ageriko bilkuran bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Saggarna, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Joan Mari Torrealдай euskaltzain osoak. Ezin etorria adierazi dute Xabier Kintana idazkariak, Henrike Knörr Iker sailburuak eta Jean-Louis Davantek, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k, Pello Salaburuk eta Mikel Zalbidetik.
- Piarres Andiazabal, Koldo Artola, Joseph Camino, Jean Baptiste Dirassar, Karmelo Etxenagusia, Joseba Intxausti eta Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainak. Ezin etorria adierazi du Xabier Gereñok.
- Dorleta Alberdi, Xabier Altzibar, Luis Alberto Aranberri “Amatiño”, Gotzon Aurrekoetxea, Erramun Baxok, Xabier Erdozia, Jose Ramon Etxebarria, Pruden Gartzia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Peio Jorajuria, Mikel Gorrotxategi, Abel Muniategi, Lourdes Otaegi, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Patxi Uribarren, Patri Urkizu eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dute Gorka Aulestiak, Jose Mari Etxebarriak, Elixabete Perez Gazteluk eta Xarles Videgainek.
- Lutxi Alberdi, Nere Altuna, Begoña Amundarain, Jon Artza, Ricardo Badiola, Olatz Etxeberria, Annie Etxeberri, Maixa Goikoetxea, Gema Insausti, Iñaki Kareaga, Amaia Okariz, Josune Olabarria, Emilio Porras, Resu Orbe eta Itziar Rekalde Euskaltzaindiko langileak. Ezin etorria adierazi du Kristina Aranak.

Bilkuraren aurretik egin den ekitaldian, Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute: Max Brisson Erakunde horren buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren nondik-norakoa azaldu du, hitza, lehenik, Beñat Oihartzabal eta Jose Luis Lizundia omenaldi-liburuaren arduradunei emanek.

Beñat Oihartzabalek, hasteko, Jean Haritschelharri buruzko zertzeladak eman ditu. Iparraldean Euskaltzaindia ezagutarazteko egin duen lana eta Iparraldeko herri aginte-

ak Euskaltzaindiarengana hurbiltzeko egin dituen ahaleginak eta lortu diren emaitzak. Haritschelharrek jaso dituen omenaldi eta sariak ere aipatu ditu, eta bereziki, gaur Euskaltzaindiak eskaintzen dion omenaldi-liburua: 33 kidek parte hartu dute hor, era guztietako gaiak aztertuz. Oihartzabalen esanetan, ikertzaileentzat ezin utzizko erreferentzia bihurtu da Haritschelhar unibertsitate jakintzan, Pierre Topet Etxahun koblakariari buruz egin zuen tesiaren ondoren, eta arlo horretan Haritschelharrengandik beti jaso duen laguntza eskertuz bukatu du mintzaldia.

Jose Luis Lizundiak, Jean Haritschelharren omenez gaur aurkezten den *iker - 21* liburukia dela eta, Euskaltzaindiak dituen argitalpen-bildumak aipatu ditu eta Haritschelhar euskaltzainburu izan zen garaian argitaratu ziren liburuen berri eman. Haritschelharren omenezko liburuan parte hartu dutenen jatorria ere aipatu du, lurraldeka. Amaitzeko, Lizundiak berak omenezko liburuan Jean Haritschelharrez idatzi duen lanaren izenburua aipatu du “Haritschelhar 38 urte Zuzendaritzan”, eta horren azpiatalak aurreratu: Zuzendaritzan Iparraldeko ordezkari; Zuzendaritzan buruorde; Zuzendaritzan buru; batzorde ardurretan eta, Haritschelhar herri gizon/plaza gizon.

Andres Urrutia euskaltzainburuak Jean Haritschelharrek Euskaltzaindiari eskaini dion lana azpimarratu du, urte luzez Erakundearen gobernarenera zerbitzuan egindako ahaleginak. Akademiaren berriztatzaile izan dela aipatu du Villasanterekin batera, Euskaltzaindia garai berrietako premietara egokituz. Hainbat euskaltzaini –Andres Urrutia bera barne– euskaltzain-dilpoma eman dien Haritschelharri orain omenaldi-liburua ematea ohore handizat duela esan du Euskaltzainburuak.

Ondoren, zutiturik, *Jean Haritschelhar-i omenaldia* izeneko liburua eman dio Andres Urrutiak Haritschelharri eta, ondoren, *Casa bombardeada* izena duen Remigio Mendibururen eskultura, egileak sinatua, 8 / 24 zenbakiduna eta horren guztiaren ziurtagiriaren diploma.

Jean Haritschelharrek, bertaratu diren guztiak agurtzearekin batera bere poza agertu du Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekiko hizarmena sinatzea gaur egin delako. Ondoren, Euskaltzaindian egin duen bidearen ildo batzuk aipatu ditu, euskaltzain oso izendatu zutenetik: 1968an Euskaltzaindiak eman zuen urrats garrantzizkoa, Akademiaren lana sustatzeko sortu zen batzorde-sistema eta arlo ezberdinetan gauzatu diren egitasmoak, Hegoaldeko Administrazioek Euskaltzaindiari egin dioten aitortza –Hezkuntza Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta hiru Diputazioek– eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarena. Esker onezko hitzak izan ditu bukatzeko: lehenik Colette beren emaztearentzat, beti ondoan eta lagun izan duelako; Euskaltzainburuarentzat, Beñat Oihartzabalentzat eta Jose Luis Lizundiarentzat, omenaldi-liburua gauza zedin egin duten lanagatik eta, azkenik, liburuan parte hartu duten egile guztientzat.

Bukatzeko, Euskaltzainburuak lore-sorta eman dio Colette Haritschelharren emazteari, aretoko guztien txalo artean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

Bilbon, 2008ko urtarrilaren 25ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Pierre Xarritton,
Patxi Zabaleta eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Jose Antonio Aduriz, zegokion gaian.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Adolfo Arejitak, ahala Jose Luis Lizundiari (egon ez den tarterako); Jean-Louis Davantek,

ahala Beñat Oihartzabali; Andoni Sagarinak, ahala Andres Urrutiari (egon ez den tarterako); Henrike Knörrek, ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak, ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen agertzen diren euskaltzainak bertan direla.

Batzarra hasi aurretik, euskaltzainburuak hala eskatuta, Juan Jose Zearretak Xabier Kintanaren osasunaren berri eman du, adieraziz hobeto dagoela eta gaur aterako dela ospitaletik. Bakean uzteko aholkua ere zabaldu du.

1. Aurreko akta onartzea. Aurreko batzarreko akta gaur aurkeztu da, Xabier Kintana ez dagoelako, eta otsaileko bilerran onartuko da.

2. Hasierako oharra

2.1. Arautegiko 24. artikularen arabera, idazkaria batzarrean ez badago, azken euskaltzain izendatuari dagokio batzarrearen akta egitea. Horregatik gaurko batzarrearen akta Miren Lourdes Oñederak egingo du.

2.2. Gaurko batzarra Bibliotekan egin da, baina otsailekoa batzar-gelan egin ahal izango da, ordurako prest egingo baita.

2.3. Ongietorria eman zaie Joan Mari Torrealdai eta Miren Lourdes Oñederrari, lehen aldiz etorri direlako osoko batzarrean. M. L. Oñederrari zorionak eman zaizkio Donostiako Udalak eman dion merezimendu dominagatik.

2.4. Batzarra goizean amaituko dela gogorarazi du Euskaltzainburuak eta ordutegiaren aldetik gaiak nola antolatuko diren iragarri, azkenerako utziz Miquel Gros i Lladó jaunak *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuaz egingo duen aurkezpena.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 3. zerrenda (Britaniar uharteak eta Eskandinavia) onartzea. Ez zaio oharririk egin eta onartutzat eman da.

3.2. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 4. zerrenda (Finlandia, Estonia, Letonia, Lituania eta Polonia) aurkeztea. Jose Luis Lizundiak argitzeko daudenak azaldu ditu: nola antolatu diren zerrenda eta taulak. Aintzat hartutako arrazoi linguistiko eta azalpide historikoak ere adierazi ditu. Zenbait euskaltzainek egindako galderei erantzun die Jose Luis Lizundiak: Patxi Salaberrik «-a» markaz, Jose Antonio Arana-Martijak *Suomi* hizkuntzaz eta lurraldeaz, eta Miren Azkaratek *Oulu* (vs. *Oul*) izeneko *-u* bukaeraz.

Exonomastika Batzordea otsailaren 15ean bilduko dela hurrengo adierazi du Jose Luis Lizundiak, eta, beraz, odurako bidali behar zaizkio oharrak idazkariordeari.

Euskaltzainburuak oharrak egiteari buruzko prozedura azaldu die gaurkoa lehen batzarra duten euskaltzainei.

3.3. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. Pello Salaburuk, Jose Antonio Adurizen laguntzaz, gidatu du Hiztegi Batuko hitzen eztabaida eta, Euskaltzainburuak hala eskatuta, hiztegi lan honen mekanika azaldu die euskaltzain hasi berriei. Hiztegi Batuan, *erlats-etik eroslehtasun*-erainoko oharrak eztabaidatu eta onartu dira.

4. IKT: Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak

4.1. IKT: «Bereziki babestu beharreko edukien erabilerari buruzko araudia» onartzea.

4.2. IKT: «Baliabide informatikoen erabilerari buruzko araudia» onartzea. Andoni Sagarnak, euskaltzainburuak hitza berari eman ondoren, azaldu du abenduko osoko batzarrean aurkeztu ziren bi txosten horiek ez dutela oharririk jaso. Onartutzat eman dira biak.

5. Esku artekoak

5.1. Euskaltzaindiak erosi berri duen Leizarragaren *Testamentu Berria* Euskaltzaindian dagoela adierazi du Euskaltzainburuak, eta Pruden Gartziari hitza eman dio liburu horren nondik norakoak azal ditzan, euskaltzainek liburu artean zerabilten bitartean.

Patxi Zabaletak Nafarroako Aurrezki Kutxaren faksimilearen berri eman du, Joana de Albret Erreginari eskaintza omen dena. Horri buruzko eztabaida laburra izan da.

5.2. Idazkariordeak Eusko Ikaskuntzatik *Jakiunde*z etorri den erantzuna irakurri du. Atzo Zuzendaritzak eztabaidatu zuen gaia eta gaur euskaltzainen iritzia ezagutzeko ekarri da batzarrera. Jean Haritschelharrek bere horretan uztea proposatu du. Pierre Xarritonek bere iruzkinak gehitu ditu. Jose Luis Lizundiak azaldu du zehazki Euskaltzaindiak bidaliko lukeen gutunaren testuaz eskatzen direla iradokizunak. Eztabaida labur baten ondoren, erabaki da otsailaren 8rako bidali behar zaizkiola iradokizun horiek idatziz idazkariordeari. Hilaren 15ean ikusiko da Zuzendaritzan eta erabakiko

erantzutea merezi duen ala ez; ezezkoan, bere horretan geldituko da kontua eta, bestela, berriz ekarriko da gaia batzarrera.

5.3. Otsaileko Osoko Batzarra hilaren 29an izango da egoitzan, goizez. Arratsaldeko ageriko bilkuran txostenak aurkeztuko dira (hilberri-txostenak eta *Ergoien*-i buruzko txostena).

6. Banatzekoak eta azken ordukoak

6.1. *Jean Haritschelhar-i omenaldia* liburua (*IKER 21*) jaso dezakete, bilkura amaitzean, atzo hartu ez zutenek.

6.2. Liburu aurkezpena. 13:20an, Biblioteka utzi eta aretora jaitsi dira euskaltzainak. Hor, *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuaren aurkezpena egin die egileak –Miquel Gros i Lladó– euskaltzainei.

Besterik ez zela, batzarra 14:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

Bilbon, 2008ko otsailaren 29an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberrri,
Ana Toledo,
Pierre Xarritton eta
Patxi Zabaleta euskaltzainak.

Jose Antonio Aduriz, zegokion gaian.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Adolfo Arejita, ahala Jose Luis Lizundiari (egon ez den tarterako); Jean-Louis Davantek,

ahala Txomin Peilleni; Patxi Goenagak, ahala Beñat Oihartzabali (egon ez den tarterako); Xabier Kintanak, ahala Jose Luis Lizundiari; Pello Salaburuk, ahala Jean Haritschelharri; Joan Mari Torrealdaik, ahala Andoni Sagarnari; Andres Urrutiak, ahala Jose Luis Lizundiari (egon ez den tarterako); Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori, (egon ez den tarterako); Mikel Zalbidek ezin etorria adierazi du.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen agertzen diren euskaltzainak bertan direla.

Ezin etorriak eta ahalak irakurri dira.

1. Aurreko agiriak onartzea

Lau batzar agiri onartzea egokitu da gaurkoan: 2007ko abenduaren 20koa, Zaldubiren omenaldikoa; 2007ko abenduaren 21eko osoko batzarrekoa; 2008ko urtarrilaren 24koa, Haritschelharren omenaldikoa; 2008ko urtarrilaren 25eko osoko batzarrekoa. Onartutzat eman dira inork oharrik egin gabe.

2. Hasierako oharrak

- Euskaltzainburuak batzarreko gaiak zein ordenatan tratatuko diren azaldu du.
- Joan den urtarrilean, Patxi Salaberrrik katedra lortu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Euskal Filologia arloan. Zorionak eman dizkio Euskaltzainburuak euskaltzainkideen izenean.
- Batzar gelan egin diren berriztatze eta berrikuntzen berri eman dute Kudeatzailak eta Informatikariak: batzar gela berriztatua nola gelditu den erakutsi diete euskaltzainei; halaber nola bideokonferentzien bidez bilkurak egin ahal izango diren.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 4. zerrenda (Baltikoko kostaldeko lurraldeak: Finlandia, Estonia, Letonia, Lituania eta Polonia) onartzea.

Jose Luis Lizundiak aurreko batzarrean Miren Azkaratek eta Patxi Salaberrik egindako galderen erantzunak azaldu ditu. Oharrik egon ez delarik onartua gelditu da.

3.2. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 5. zerrenda (Erdialdeko Europako lurraldeak: Txekia, Eslovakia, Hungaria, Errumania eta Moldavia) aurkeztea. Jose Luis Lizundia Exonomastika batzordeburuak aurkeztu du. Oharrak bidaltzeko epea martxoaren 18a da.

3.3. Exonomastika. Kosovo estatu sortu berria 38. arauan eransteko proposamena aurkeztea. Jose Luis Lizundia Exonomastika batzordeburuak aurkeztu du. Aurkeztu den testuari oharrak egiteko epea martxoaren 18a da.

Arana Martijak toponimoetan sarri agertzen den «-ika» atzizkian «k» hori euskarazko «tz» bezala ahoskatzen dutenez, hala ahoskatu behar ote genukeen galdetu dio M. L. Oñederrari. Honek erantzun dio berak hala uste duela, euskarazko /ts/ «tz» hotsa ordain egoki baita.

Henrike Knörrek *Moravia* izenaren egokitasunaz hitz egin du; halaber, *sudeteak* formaren egokitasunaz zalantzak azaldu ditu.

3.4. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.

Jose Antonio Adurizek azaldu du Batzordearen txostena *erostetxe* hitzetik aurrera. Oharrak eztabaidatu ondoren, *erredaktatu*-rainokoa onartu da.

4. IKT. Euskaltzaindiaren informatika arloko segurtasun plana.

4.1. «Datuak sailkatzeko gida».

4.2. «Sailkatutako informazioa erabiltzeko gida».

Andoni Sagarnak, aurkeztu diren gida bi horien eduki nagusiei buruzko azalpenak eman ditu. Hilaren 18rako eskatu dira oharrak.

5. Esku artekoak

5.1. G letrako zerrendarekin urtarrilean bidali zen gutunean agertzen diren epeak gogorarazi ditu Euskaltzainburuak: hitzak markatzeko, apirilaren 25a; oharrak egiteko, ekainaren 27a.

Patxi Salaberrik hitz berriez galdetu du: horiek gerorako gelditzen direla azaldu zaio. Jose Luis Lizundiak aurrekoarekin lotutako galdera egin du: ea egindako ohar guztiak ikusterik izango den. Idazkariordeak azaldu dio nork zeri oharra egin dion zerrendatu eta emango dela. Andres Iñigok galdetuta, berriro azaltzen da hitz berriez oharrak bidali bidal daitezkeela, baina ez direla orain tratatuko.

5.2. Eusko Jaurlaritzak, sortu berri duen Etxepare Euskal Instituturako ordezkaria izendatzea eskatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak, otsailaren 15eko bileran, Euskaltzainburua proposatzea erabaki zuen eta berretsi egin da.

5.3. Eusko Ikaskuntzaren gutunari erantzuteko Patxi Zabaletak idazki-proposamena egin du, horretarako jarri zen epean. Banatu egin da testu hori eta martxoaren 18a bitarteko epea zabaldu da testu horri oharrak egin ahal izateko.

5.4. Hurrengo batzarra, martxoari legokioketena, Aste Santua dela eta, apirilaren 4an egingo da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

6. Banatzekoak eta azken ordukoak

6.1. Batzarraren amaieran *Euskalgintza XXI. Mendeari buruz. XV. Biltzarra (Iker 19)* banatuko dela iragarri da. Liburu horretan 2001eko irailaren 17, 18 eta 19an Euskalduna Jauregian Euskaltzaindiak egin zuen XV. Biltzarreko hitzaldi eta txostenak argitaratzen dira. XV. Biltzarraren bigarren zatiko hitzaldi eta txostenak (irailaren 20 eta 21ekoak) *Iker14*an daudenez argitaratuta, bukatutzat ematen dira honekin Biltzarreko argitalpenak.

6.2. Jean Haritschelharrek, gaur jaso duen *Iker 21* liburuaren ale berezia erakutsi du, eta bere esker ona adierazi die euskaltzainei opariagatik eta liburu horretarako idatzitako lanengatik.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

AGERIKO BILKURA

Bilbon, 2008ko otsailaren 29an

Otsailaren 29an, arratsaldeko 17:00etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du egoitzan, hilberri-txostenak irakurtzeko.

Ageriko bilkuran bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Sagrario Aleman, Patxi Goenaga, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Ana Toledo eta Patxi Zabaleta euskaltzain osoak. Ezin etorria adierazi dute Xabier Kintana idazkariak, Jean-Louis Davantek, Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k, Pello Salaburuk eta Mikel Zalbidek.
- Jose Antonio Aduriz, Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Sebastian Gartzia Trujillo, Jacinto Iturbe, Rosa Miren Pagola, Pello Telleria eta Patxi Uribarren euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dute Ricardo Badiolak, Ricardo Gomezek eta Juan Jose Zearretak.
- Lutxi Alberdi, Amaia Okariz eta Emilio Porras Euskaltzaindiko langileak.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ongietorria eman die bertaratuei, eta ekitaldiak izango dituen atalak gogorarazi: lehenik, bi hilberri-txosten: Jose Manuel Lasarterena Patxi Zabaleta euskaltzain osoak irakurriko du eta, Jesus Atxarena Jose Luis Lizundia euskaltzain osoak; azkenik, *Ergoien*-i buruzko txostena, Angel Ibisate euskaltzain urgazleak egina, Henrike Knörrek irakurriko du.

Patxi Zabaleta: «Jose Manuel Lasarte»

Hitzaldian zehar Jose Manuel Lasarteren bizitzaren atal ezberdinak bildu ditu Patxi Zabaletak. Larraun ibarreko Etxarri izeneko herrian jaio zen 1927ko ekainaren 20an eta 2007ko apirilaren 17an hil zen Iruñean.

Jose Manuel Lasartek 1939an Iruñeko seminarioan hasi zituen apaiz ikasketak, eta 1951ko uztailaren 22an, Iruñeko Katedralean, ordenatu zuten apaiz. Seminarioko garaian izan zen euskal giroari buruzko xehetasunak eman ditu Zabaletak: Euskal kultura eta euskal folklorea ikasi eta bultzatu zituen, txistua, dantzak, abestiak eta musika, bertso zaharrak eta batez ere hizketa, eta tartean zebilen gehienetan Jose Manuel apaizgaia horrelako ekimenak eta saioak zeudenean. Apaiz lanetan aritu zen Luzaiden, eta denbora hartu zuen dantza, txistu eta kanturako zaletasuna herrian piz-

teko eta, dirudienez, *Luzaide* aldizkariaren sortzaileetarikoa izan zen. Ondoren, 1955ean Beruetera bidali zuten apaiz, eta han ere euskal musikari eman zion, abesbatza sortuz, eta irratia sortu zuen: «Berueterako Irratia». Hain zuzen, Berueterako irratian euskararen alde egindako lanarengatik, batik bat, izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle Jose Manuel Lasarte.

Leitzan egindako urteak aipatu ditu, ondoren Zabaletak. Batetik, Eskola Tekniko Profesionala sortu zuen Lasartek Leitzan eta, bestetik, Amazabal Patronatuaren kudeatzaile izan zen. Sakanako Uharte Arakilko herriko abade edo parrokoa izendatu zuten ondoren, 1979an, eta baita ere Nafarroako Artzapezpikutzako euskal eremuko pastoralaren arduradun. Abesbatza eta dantza taldea sortu zituen herrian. Iruñean izan zen 1991tik aurrera eta Diozesiko Caritas erakundeko kudeatzailea zen. Idazle ez baina hizlari eta sermoilari ona zen Jose Manuel Lasarte. Atseginago zitzaion ekimenak bultzatzea eta kudeatzea, eta ez hainbeste azterketan eta idaztean aritzea.

Idatzi zuenetarik, liburuxka moduan bi argitalditan kaleratutako *Gurutze Bidea* –*Via crucis*, euskaraz eta erdaraz dagoena erakutsi du Patxi Zabaletak, Jose Manuel Lasartek Etxarri-Larraun bere jaioterriko elizarentzat egindakoa 2004an eta 2005ean, eta Euskaltzaindiari eman dio.

Jose Luis Lizundia: «Jesus Atxa Agirre»

Jesus Atxa Aretxabaletan jaioa zen, 1920ko maiatzaren 28an, eta 2007ko urriaren 23an hil zen, Iruñean, 87 urte zituela. Durangoko jesuiten ikastetxean ikasle izan zen, eta ondoren Belgikan, Caracasen eta Kolonbian izan zen ikasketa ezberdinak egiten, harik eta 23 urte zituelarik Jesuitak utzi zituen arte.

1945ean Euskal Herrira itzuli zenean izan zituen lanak aipatu ditu Jose Luis Lizundiak: Elorrioko LINCE lantegia, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, FUNCOR enpresaren inguruan sortutako Kontsumo Kooperatiba, Araban pentsu saltzaile. 1960ko hamarkadan erabat murgildu zen euskalgintzan eta ikastolen munduan. EDILI, S. A. argitaletxe euskaltzalearen zuzendaria izan zen, euskal liburu batzuk argitaratuz eta beste batzuk banatuz. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, 1965etik, lehen urtetik bertatik parte hartu zuen EDILik, eta Gerediaga Durango Merinaldeko Adiskideen Elkarteko bazkide ere egin zen. Jesus Atxa, hiri batzuetako kultur asteak eta egunak zirela medio, «Euskal Jaien» inguruan eratzen ziren tokiko liburu eta disko azoken antolatzailea izan zen, hala nola Eibarren, Arrasaten, Bergaran, Gasteizen, Iruñean eta Zarautzen.

Aretxabaleta bere jaioterriko ikastolaren sortzaileetarikoa izan zen Jesus Atxa, eta Bizkaiko lehendabiziko ikastolen bultzatzaile sutsua ere bai: Ondarroa, Ermua, Berriz, Zornotza, Galdakao, Durango eta Bilbo. Gipuzkoako herri batzuetan ere lan bera egin zuen eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak sortu aurretiko bileretan eta ekimenetan ere parte hartu zuen. 1970. urtean Iruñeko San Fermin ikastolako zuzendari izendatu zuten eta bertan jardun zuen 1984 arte, jubilatua zen arte. Bitarte horretan, Nafarroako beste herri batzuetan sortzen ari ziren ikastolen suspertzaile ere izan zen: Etxarri Aranatzen, Altsasun, Tafallan, Lizarran, Beran, Lesakan... 1977an Nafarroako Ikastolen Elkarteko sorreran parte hartu zuen. 1990ean Nafarroako Ikastolen Historiarako Artxiboetako arduradun izendatu zuten, Ikastolen Elkartearen babesean. *Urteurrena 1970-1995. San Fermin Ikastola* da argitalpen aipagarriena. Zenbait ipuin liburu euskaratu eta argitara-

tu zituen eta aldizkari hauetan parte hartu zuen: *Zeruko Argia*, *Txistulari*, *Anaitasuna* eta *Gerediaga*. Euskaltzaindiak 1977ko abuztuaren 25ean euskaltzain urgazle izendatu zuen eta, euskaltzain ohorezko, berriz, 1998ko apirilaren 24an.

Angel Ibisate: «¿Ergoienak alavesas? La Hergoiena salvaterrana. Las ergoienas de Salvatierra»

Txosten hau Angel Ibisate euskaltzain ugazleak egina da, baina osasun-arazoengatik ez du etortzerik izan eta Henrike Knörrek irakurri du haren izenean.

Agustin Kardaberazen *Euskeraren berri onak* eta *Kristauaren bizitza* liburuetan «ergoien» hitzaz egiten den aipamenetik abiatzen da egilea. Araban, *ergoienak* esaten zitzairen herrixkei. *Euskeraren berri onak*-en Arabako herrixkei deitzeko erabiltzen den hitz arrunta da, eta *Kristauaren bizitza*-n, aldiz, Agurain inguru herrixka jakin batzuk izendatzeko erabiltzen da. Egileak, herrixka horiek zein izan ote zitezkeen ikertu du, toponimo hori aipatua agertzen den herrien arteko auziak aztertuz: Opakua eta Okariz edota Arana, Asparrena eta Donemiliagaren artekoak. Okarizko elizako artxiboetan ere ageri da *ergoien* hitzaren aipamena.

Bigarren adiera batean, ordea *Ergoyena*-k goian, goiko aldean, dauden herriak izendatzeko erabiltzen da. Ikerlearen ustez, bi adiera horiek egiazkoak dira, eta horretarako artxiboetako aipamen historiko ugari jarri du mahai gainean. Kardaberazen esaldiek, beraz, bi adierei eusten diete: batetik, *Euskeraren berri onak*-en hau dator, Arabazo herrixkak izendatzeko: «beren [...] ergoienetan (herri txikiak honela Araban deitzen diete)», eta, bestetik, *Kristauaren bizitza* liburua Aguraingo lau herrixkez ari da: «Salbatierrac, ta aren ergoienetako [...]».

Batzarra 18:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

Bilbon, 2008ko apirilaren 4an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Pierre Xarritton,
Patxi Zabaleta eta
Mikel Zalbide euskaltzainak.

Jose Antonio Aduriz, zegokion gaiian.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Adolfo Arejitak, ahala Jose Luis Lizundiari (egon ez den tarterako); Miren Azkaratek, ahala Pello Salabururi; Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni; Patxi Goenagak, ahala Beñat Oihartzabali (egon ez den tarterako); Xabier Kintanak, ahala Andres Urrutiari; Ibon Sarasolak, ahala Pello Salabururi; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori, (egon ez den tarterako).

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen agertzen diren euskaltzainak bertan direla.

Ezin etorriak eta ahalak irakurri dira.

1. Aurreko agiriak onartzea

Bi batzar agiriak (2008ko otsailaren 29ko osoko batzarrekoa eta egun bereko ageriko bilkurakoa) onartutzat eman dira inork oharririk egin gabe.

2. Hasierako oharrik

- Batzarra goizez bakarrik izango dela argitu du Euskaltzainburuak.
- Batzar gelako Azkueren irudia erakusketa batera eraman delako dago jarrita, haren ordeztu, Euskaltzaindiaren estandartea.
- Ekainaren 19an, Bilboko hiru euskaltegik (Bilbo Zaharra, Ulibarri eta Juan Mateo Zabala), ikasturtearen amaiera ospatzeko, besteak beste, Arriaga Antzokian *Gero*-ren irakurketa antolatu dute. Irakurketa horretan parte hartzea eskaini diote Euskaltzaindiari. Irakurri nahi duenak goizean zehar idazkariordeak pasako duen orrian eman beharko du izena eta nahiago duen ordua adierazi.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 5. zereñda (Europako lurraldeak: Txekia, Eslovakia, Hungaria, Errumania eta Moldavia) onartzea.

Henrike Knörren oharra aztertu zen Batzordean. Horren berri emateko bildutako-
ei banatu zaien txostena irakurri du Jose Luis Lizundiak. Henrike Knörr entzun ondo-
ren, *Sudeterria* forma onartu da. Patxi Salaberrik adierazi du *minus a* jarri behar dela
ondoan eta onartu da. Onartutzat eman da zerrenda osoa.

3.2. Exonomastika. Kosovo izena eta jentilizioa onartzea.

Ez da oharrik izan eta bere horretan onartu da. Henrike Knörr, Patxi Salaberri eta
Miren Lourdes Oñederrak labur eztabaidatu ondoren, onartu da ez dela azentuari bu-
ruzko araurik emango, aintzat hartuta euskaraz esaldiaren arabera azentuera desberdi-
nak erabiltzen direla. Andoni Sagarnak Espainolezko Hiztegi Panhispanikoak dioena
adierazi du azentuaz.

3.3. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 6. zerrenda (Balkanak –Bulgaria, Jugoslavia ohia, Grezia, Albania– eta Zipre) aurkeztea.

Apirilaren 25ean izango da hurrengo bilkura eta, beraz, apirilaren 17rako egin
behar dira oharrak. Jose Luis Lizundiak eskatu du arreta berezia ematea transliterazio-
aren arazoari; taulak banatu dira hori aztertzeko.

3.4. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta era- bakitzea.

Ez da oharrik jaso, baina Salaburuk agertu du Batzordean berriro eztabaidatu dela
lehenago batzarrean onartu zen *errebindikatu* formaz: *errei-* vs. *erre-* aukera eztabaida-
tu da. Berretsi da *errebindikatu* onartzen dela, ondoko *errebindika-* eta gainerakoei
dagokion lerroa kenduta.

Gaurko zerrendari ekin zaio *erredentore*-tik hasita. Oharrak eztabaidatu ondoren,
erregionalista-rainokoa onartu da.

4. IKT. Euskaltzaindiaren informatika arloko segurtasun plana.

4.1. «Datuak sailkatzeko gida» onartzea.

4.2. «Sailkatutako informazioa erabiltzeko gida» onartzea.

Aurreko batzarrean banatu ziren bi gida horiei inork oharrak egin ez dienez gero,
onartu egin dira bere horretan.

5. Esku artekoak

5.1. Martxoaren 12an banatu ziren 2007ko Azkue Sarien berri ematen da karpe-
tan banatu den dossierrean.

5.2. Euskadi Literatura Sarirako ordezkari bana izenda dezan eskatu dio Eusko
Jaurilaritzak Euskaltzaindiari: Euskarazko Literatura epaimahairako eta Itzulpen epai-
mahairako; lehenengorako, Txomin Peillen izendatu da; Adolfo Arejitari egingo dio
proposamena, bigarrenorako, Euskaltzainburuak. Arejitak onartuko ez balu, Euskal-
tzainburuak berak erabakiko du nor bidali, egitekorako gaitasuna aintzat hartuta.

5.3. Atzo Zuzendaritzan eztabaiadatu zen Eusko Ikaskuntzaren gutunaren gaia.
Patxi Zabaletaren gutuna bere egina zuen Zuzendaritzak ukitu batzuekin. Patxi Zaba-
letaren gutuna eta Miren Azkarate eta Jean Haritschelharren oharrak irakurri dira. Patxi
Zabaletak zenbait azalpen eman ditu eta baita, gero, Jean Haritschelharrek ere. Miren

Azkarateren gutuna Jose Luis Lizundiak irakurri du. Eztabaida izan da ondoren: Arana Martijak, Jose Luis Lizundiak, Jean Haritschelharrek, Pello Salaburuk, Andres Iñigok eta Sagrario Alemanek parte hartu dute. Euskaltzaindiaren historiari zerbait pasarte gogoratu dituzte arazo honen eta antzekoen inguruan. Eskutitza bidaltzeaz adostasunik egon ez denez, Euskaltzainburuak proposatu du gestio pertsonala egitea zuzenean Eusko Ikaskuntzako buruzagi den Retegi jaunarekin, eskutitz idatzia bere horretan bidali beharrean. Apiril-maiatzean burutuko da lan hori eta Eusko Ikaskuntzaren erantzunaren berri emango zaie euskaltzainei, lortutakoa aztertu eta egin beharrekoa erabaki dezaten. Ontzat eman da horrela egitea.

5.4. Humanitate Saria. Zuzendaritzaren proposamenez, aurten ere Jose Antonio Arana Martija aurkeztea onartu da.

5.5. Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlea martxoaren 8an hil zen, 79 urte zituela. Hilberri-txostena nork egingo duen erabaki behar da. Euskaltzainburuak proposatu du Joseba Intxausti ohorezko euskaltzaina izendatzea horretarako. Onartu da. Jose Antonio Arana Martijak adierazi du prest dagoela orain dela zerbait urte Telletxea Idigorasen omenez egin zen liburuaren erreseina bat egiteko; Euskaltzainburuak egiteko eskatu dio, horretarako *Plazaberrri* argitalpen digitala eskainiz.

5.6. Jacques Etxeberri euskaltzain urgazlea martxoaren 22an hil zen, 86 urte zituela. *Plazaberrin* agertzeko irudiak-eta eskatu dira. Hilberri txostena beranduago prestatuko da. Etxeberri buruzko zerbait informazio gaur Prentsa arduradunari eman diola adierazi du Pierres Xarrittonek, eta eskerrak eman dizkio denon izenean Euskaltzainburuak.

5.7. Hurrengo batzarra apirilaren 25ean izango da, Donostian.

6. Azken ordukoak

«Euskaltzainak» bildumako 2. zenbakia –*Pierres Broussain (sa contribution aux études basques)*, Pierres Charritonon tesiaren berrargitalpena– banatuko da. Sarako azokan aurkeztu zen martxoaren 24an.

«Euskaltzainak» bildumako 3. zenbakia –*YOLANDA eta beste euskarazko idazlanak*, Pierre Lhanderena, eta *aitzin solasa, ojharra eta solas-ondoak*, Jon Casenavereña– banatuko da. Sarako azokan aurkeztu zen martxoaren 24an.

Pierre Xarrittonek eskatu du Euskaltzaindiak gogoan izan dezan Kardinala eta Elizako Printzea den Roger Etxegarai jauna euskaltzain ohorezkoak egiteko garaia heltzen denean.

Batzarra 15:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

Donostian, 2008ko apirilaren 25ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Sagrario Aleman,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Pierre Xarritton,
Patxi Zabaleta eta
Mikel Zalbide euskaltzainak.

Jose Antonio Aduriz, zegokion gaian.

Ezin etorriak eta ahalak:

Henrike Knörrek, ahala Andres Urrutiari;
Adolfo Arejitak, ahala J. L. Lizundiari;
Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutia-

ri; Miren Azkaratek, ahala Pello Salabururi; Patxi Goenagak, ahala Pello Salbururi; Xabier Kintanak, ahala Andres Urrutiari; Andres Iñigok, ahala Patxi Salaberriri; Joseba Lakarrak, ahala Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala Sagrario Alemani, egon ez den tarterako; Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutiari, egon ez den tarterako.

1. Aurreko agiria onartzea

Patxi Zabaletak alde zuzenetik idazkari lanetan ari den M. L. Oñederrari bidalitako oharrak irakurri ditu. P. Xarrittonek ere bere oharrak egin ditu. Patxi Zabale-taren zuzenketa biak onartu dira.

2. Hasierako oharrak

Batzarra goizez bakarrik izango dela gogorarazi du Euskaltzainburuak.

Henrike Knörr Landazuri Elkartearen ohorezko buru izendatu dutela eta, Euskaltzaindiak bere atxikipen eta zorionak helaraziko dizkio.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 6. zerrenda (Europako lurraldeak: Balkanak –Bulgaria, Jugoslavia ohia, Grezia, Albania– eta Zipre) onartzea.

Prekmurje eta *Jonia* izenei buruz izan da eztabaida, Jean Haritschelharrek egin duen oharretik abiatuta, «i» idaztea proposatzen baitu «j»-ren ordez. Ezin da aldatu «Jonia»-ren kasuan 70. arauan hala finkatuta dagoelako eta Lizundiak eskatu du araua izatera duenetik dagokion garaian berrikusi beharko dela. *Prekmurje* izenari buruz, ordea, onar zitekeen J. Haritschelharren oharra ziriliko idatzia izan balitz, baina nola den Esloveniako eskualde bat eta esloveniera latin karakterez idatzia den, dagoen-dagoenean utzi beharko da eta ez euskal exonimorik sortu. Beraz, zerrenda ontzat eman da.

3.2. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 7. zerrenda (Ekialdeko eslaviarrak –Ukrania, Bielorrusia eta Errusia–) aurkeztea.

Lizundiak zenbait azalbide eman ondoren, oharrak bidaltzeko epea maiatzaren 20an finkatzea erabaki da. EHUko Gasteizko errusierazko espezialistekin harremanetan jartzea gomendatu du Salaburuk eta Lizundiak saioa egingo duela adierazi.

3.3. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.

Gaurko zerrendari ekin zaio *erregistratu*-tik hasita. Oharrak eztabaidatu ondoren, *errenazimentu*-rainokoa onartu da.

Errei hitzaren eztabaidak ondorio ekarri du erabakitzea Administrazio erakundeetara itzultzaileei, bereziki, foru administrazioei eskutitza bidaliko zaiela eskatuz autobideetan edo autobideetako aritzean *lerro* erabil dezaten *errei* erabili beharrean. *Plazaberri*-n ere barreiatuko da ohar hori.

4. Esku artekoak

4.1. Idazkaritzak prestatu duen *2007ko Oroitidazkia* banatu da. Laster webgunean ere izango da.

4.2. Kultura Ministerioko 2008ko Sari Nazionalerako epaimahaikoak: Itzulpen sailerako Sagrario Aleman hautatu da eta Letrak sailerako, Miren Lourdes Oñederra. Gainerako bost sarrietan, berretsi egin dira Zuzendaritzak, Literatura Ikerketa batzordearen proposamenez, onartu dituen kideak: Narratiba sailerako, Arantxa Urretabizkaia; Poesia sailerako, Xabi Rojo; Saiakera sailerako, Adolfo Arejita; Antzertia sailerako, Aizpea Goenaga eta, Haur literatura sailerako, Xabier Etxaniz.

4.3. Koldo Mitxelena Sariaren deialdiaren berri eman da gero. Euskal Herriko Unibertsitateak dei eginda parte hartzen du Euskaltzaindiak sari horretan. Erabakiaren testua banatu da eta zenbait gai azpimarratu ditu Euskaltzainburuak. Argitu du EHUko Errektoretzarena izan dela ideia eta erabakia. Diruzainak informazioa osatu du, batez ere sariaz, eskultorearekin egin den akordioaz eta bestez. M. L. Oñederrak gehitu du EHUko kide zenbaitek lehen berri Euskaltzaindiari eskerrak izan dutela eta eskerrak eman ditu horregatik. Aurelia Arkotxak galdetu du ea gerora izango duten aukera beste unibertsitateetako tesiek ere Sarian. Euskaltzainburuak azaldu du iniziatiba ez dela Euskaltzaindiarena izan.

4.4. Jacques Etxeberriren hilberri-txostena. Zuzendaritzaren proposamenez, eginkizun hori Pierre Xarritoni eskaintzea onartu da.

4.5. Sinatu berri da Espainiako Hezkuntza Ministerioarekin urteko hitzarmena, dagokion urteko igoerarekin. Euskaltzainburuak eta Diruzainak zenbait xehetasun eman dituzte.

4.6. Nafarroako agintariek egoitzara egin duten bisitaren berri eman du Euskaltzainburuak. Iaz sinatu zen hitzarmena aurreko berritu egingo da beste lau urterako. Harremanetan hautematen den giro ona eta egitasmoen sendotasuna azpimarratu ditu Euskaltzainburuak.

5. Azken ordukoak

Hurrengo batzarra maiatzaren 30ean, arratsaldeko 16:00etan izango da Iruñean, eta 31n, Sagrario Alemanen sarrera-hitzaldia Etxaleku haren jaioterrian. 30eko batzarra

arratsaldean izango da, baldin eta goizean Nafarroako agintariekiko hitzarmena sinatzea lortzen bada. Beraz, agian aldaketa txikiren bat izan daiteke deialdiaren aldetik

Batzarra 14:30etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo,
Pierre Xarritton,
Patxi Zabaleta eta
Mikel Zalbide euskaltzainak.

Jose Antonio Aduriz, zegokion gaian.

Ezin etorriak eta ahalak:

Adolfo Arejitak, ahala Jose Luis Lizundia-
diari; Bernardo Atxagak, ahala Andres

Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala Patxi
Goenagari; Xabier Kintanak, ahala An-
dres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek, aha-
la Jean Haritschelharri (egon ez den tar-
terako); Pello Salaburuk, ahala Jean
Haritschelharri; Ibon Sarasolak, ahala
Pello Salabururi; Joan Mari Torrealdaik,
ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak,
ahala Andres Iñigori, egon ez den tarte-
rako.

1. Aurreko agiria onartzea

J. L. Lizundiak 3.1. puntuari buruz egin-
dako zuzenketak onartu dira.

2. Hasierako oharrak

H. Knörren heriotzaren berri eman du
Euskaltzainburuak, halaber adierazi du
familiari doluminak eta elkartasuna hela-
razi zaizkiola Euskaltzaindiaren izenean.

P. Goenaga zoriondu du EHUn maiatza-
ren 15ean egin zitzaion omenaldiagatik
eta 60 urte bete dituelako

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 7. ze- renda (Ekialdeko eslaviarrak –Ukraina, Bielorrusia eta Errusia–) onartzea.

Bujak, Jamalia, toponimoen grafiaz izan da eztabaida. J. Haritschelharrek, alde
aurretik batzordeari idatziz igorritako oharraren bidetik, adierazi du «j» idazteak [x]
ahoskera errazten duela eta hori ekidin behar dela. J. L. Lizundiak erantzun du toponi-
moekin batera zabaldu behar dela ahoskera zuzenaren araua oinohar baten bidez. Eus-
kaltzainburuak agindu du batzordeak idatz dezala oinohar hori. Ados agertu dira eztabai-
dan parte hartu duten Tx. Peillen, J. Haritschelhar, J. L. Lizundia eta M. L. Oñederra.

3.2. Exonomastika. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 8. ze- renda (Portugal, Espainia eta Frantziako eskualde historiko batzuk) aurkeztea.

J. L. Lizundiak zenbait azalbide eman ondoren eta egindako galderei erantzunda,
oharrak bidaltzeko epea ekainaren 20an finkatzea erabaki da.

3.3. Hiztegi Batua. G letrako hitz markatuak banatzea

J. A. Adurizek prozeduraren berri eman du. Gogorarazi da ekainaren 25erako bidali behar dituztela ohar horiek agindu dituztenek (batzarrean banatutako hitz markatuen zerrendan agertzen direnek, alegia). Oharrrik egin gabeko zerrenda, beraz, ontzat eman da. Banatu den hitz markatuen zerrendarekin batera, euskaltzainek proposatu dituzten hitz berrien zerrenda ere banatu da. J. L. Lizundiak proposatu du letra bakoitzaren osatu arte oharrak ez argitaratzea. Pello Telleriak azaldu du bigarren itzulia hasi zenean, prozedura aldatu zela; letra bakoitzeko ohar guztiak eztabaidatzea eta onartzea asko luzatzen delako erabaki zen zatika argitaratzea.

3.4. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.

Gaurko zerrendari ekin zaio *errenbolto*-tik hasita. Oharrak eztabaidatu ondoren, *erreskadan*-rainokoa onartu da.

4. Esku artekoak

4.1. Nafarroako Gobernuarekin gaur sinatu da aurtengo hitzarmena. Diru hornikuntza 123.000tik 160.000 eurora doa. Urtero gehituko da. Egitasmoak bi motatakoak izango dira: orokorrak eta beren-beregiak (Nafarrorako egitasmoak alegia). Giroa erabat aldatu dela argi dago Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanetan.

4.2. Urriaren izango den Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarren (*Pirinioetako Hizkuntzak: Lehena eta oraina*) berri eman du Euskaltzainburuak. Egitaraua aurkeztu du eta antolabidearen zenbait azalpen ere eman ditu. J. L. Lizundiak antolaketaren nondik norakoak azaldu ditu ondoren. Joseba Lakarrak ere xehetasun batzuk eman ditu egitarauaz. Pentsaren aurreko aurkezpena izango da, baina ez dago oraindik data finkatuta. Batzorde Akademikoarekin hitz egingo da horretarako. Antolaketa Batzordea eta Batzorde Akademikoa aritu dira eta ari dira Biltzarra prestatzen.

4.3. Ekainaren 3an Bilboko Liburu Azokak omenaldia egingo dio Henrike Knörri. Ekitaldirako deia zabalduko zaie euskaltzainei, nahiz ez den hau Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldia. Euskaltzaindiak egingo dio bere omenaldia H. Knörri.

4.4. *Euskera* aldizkariaren hurrengo zenbakian *Leturiaren egunkari ezkuaren* inguruko mintegiaren argitalpenak kaleratuko dira. Hemendik aurrera *Euskera* aldizkariaren hiru zenbaki aterako dira urtero, bigarrena gai akademikoei eskainiko zaielarik.

4.5. *Euskararen Historia Soziala* egitasmorako langileak kontratatu dira: Alazne Gorrotxategi, informatika arduradun bezala eta, Lionel Joly, koderatzaile arduradun bezala.

4.6. Zuzendaritzak txosten bat egin du euskaltzainei azaltzeko zein den Henrike Knörren heriotzak sortzen duen egoera. J. L. Lizundiak irakurri du Zuzendaritzak prestatutako txosten hori. Txostena euskaltzainei banatu zaie, eta ontzat eman da hor adierazitako prozedura eta egutegia.

Aldarrikatuta geratzen da honenbestez Henrike Knörren hutsartea. Beraz, ekainean eta uztailean aurkeztuko dira hautagaiak eta irailean bozkatuko da.

Henrike Knörrek Iker Sailburu zen bezainbatean utzitako hutsartea urriaren aldarrikatutako da eta azaroan bozkatuko. Zuzendaritzaren berriztatzea ere epe horretan egingo da.

31. zenbakidun euskaltzain osoa hautatzeko deia abenduan egingo da, urtarrilean eta otsailean aurkeztuko dira hautagaiak eta martxoan bozkatuko.

4.7. Henrike Knörren hilberri-txostena Jose Luis Lizundiak egitea onartu da.

4.8. Henrike Knörren heriotzaren ondoren, Gasteizko Toponimia egitasmoaren zuzendaria Jose Luis Lizundia izango da aurrerantzean.

4.9. Gogoratu behar da Henrike Knörr zela Euskaltzaindiaren ordezkari Arabako ordezkari izan. Manu Ruiz Urrestarazuk, ordezkariordea izanak, hartu du orain ordezkari izatearen ardura.

4.10. Pello Telleriak biharko ekitaldiaren ordutegiaren eta antolaketaren berri eman du.

5. Azken ordukoak

J. A. Arana Martijaren eskutitza irakurri du Euskaltzainburoak. Eskutitz horretan azaltzen du J. A. Arana Martijak ezin izango dela Sagrario Alemanen sarrera hitzaldian izan familia ospakizun bat duelako.

Hurrengo batzarra ekainaren 27an izango da Bilbon.

Batzarra 20:10ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Miren Lourdes Oñederra,
idazkari lanetan (Arautegia, 24. art.)

AGERIKO BILKURA

Etxalekun, 2008ko maiatzaren 31n

Gaur, maiatzak 31, egin da Sagrario Aleman Astitz euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Etxalekun, Dorrotoa izeneko etxean, goizeko 11:00etan hasita.

Bildu dira:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi du Jose Antonio Aranak.
- Ohorezko euskaltzainak: Pello Apezetxea eta Koldo Artola. Ezin etorria adierazi dute Xabier Gereño, Patxi Oroz eta Karmele Rotaetxek.
- Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Dionisio Amundarain, Iñigo Aranbarri, Jon Aurre, Ricardo Badiola, Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Iñaki Irazabalbeitia, Jazinto Iturbe, Paula Kasares, Maria Pilar Lasarte, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Patxi Uribarren, Juan Jose Zearreta eta Juan Jose Zubiri. Ezin etorria adierazi dute Xipri Arbelbide, Xabier Erdozia, J. M. Etxebarria eta Paskual Rekaldek.
- Batzordekidea: Erramun Osa.
- Langileak: Amaia Okariz, Gema Insausti, Lutxi Alberdi eta Itziar Rekalde.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 57.8 eta 57.9 ataletan esaten dena beste, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu.

Maria Antonia Iribarren Imozko alkate andreak ongi etorria eman die bertaratu direnei. Ondoren Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak esan ditu; besteak beste, euskaltzain berriak euskalgintzan duen eskarmentu luzea gogora ekarri du: «Esan gabe doa, Sagrario Aleman bera eta beraren modukoak behar ditugula gure hizkuntzaren bizi-irautea bermatu nahi badugu».

Euskaltzainburuak amaitu orduko, Andoni Sagarna eta Patxi Zabaleta euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Sagrario Aleman *Berdetik horira* izeneko sarreara-hitzaldia irakurtzeko.

Sagrario Aleman: *Berdetik horira*

Bi ataletan banatu du Sagrario Alemanek sarrera-hitzaldia: batetik, hizkuntzaren transmisioa eta, bestetik, helduen euskalduntze-lana, bere bizitza zeharo markatu duten arloak. Ume eta gaztetako oroitzapenekin hasita, Etxaleku sorterriaz mintzatu da lehenik eta behin, Euskal Herriko beste hainbat gune euskaldunetan gertatu den eboluzioa azaldu nahian. Eta ondotik, helduen euskalduntzearen lanean bizi izandakoak bildu ditu.

Euskararen biziberritzeak azken 40 urteotan izan dituen gorabeherak aipagai izan ditu, panorama gazi-gozoa irudikatuz, prozesu guztietan bezala kasu honetan ere argi-itzalak daudelako. Euskarak prestigiorik ez zuen garaian izan zuen atzerakada aipatu du, eta eskolak elkartu zituztenean haurrak beren herrietatik atera zituztenekoa gogorarazi du, horrela haur euskaldunak gutxiengoa izatera behartuz. D eredia sortzeak irtenbide egokia eskaini dio eskola-munduari. Estatistikari dagokionez, populazioaren ehuneko ehun izanda ere, biztanle-kopurua eta adina ere kontuan hartzekoak dira. Bestetik, kanpotik etortzen diren erdaldunek ere eragina dute harremanetan. Etxeko euskara ahultzen ari da, euskara batuaren izenean bertako hitzak eta esamoldeak baztertuz. Alemanen ustez, euskararen erabilera horretan datza, hizkuntzaren lekuan lekuko nortasunari eustean, adibide franko jarritz.

Euskararekiko harreman horretan, herri euskaldunean berezkoa duten transmisio-tik, bestelako transmisiora jo du, helduen euskalduntze-alfabetatzera, Arturo Campion euskaltegiko irakasle izaki. Besteak beste, azken berrogei urteotan indarrean izan den euskalduntze-prozesuan Euskaltzaindiaren esku-hartzea izan du gogoan, Akademia zutabe nagusi izan baitzen euskaltegien mugimenduaren sorreran. Hausnarketa-gai izan du, halaber, tarte honetan euskaltegien ekarpena: gaur, atzo bezala, «helburua ahalik eta euskal hiztun gehien ahalik eta epe laburrenean erdiestea» delarik, nahiz eta ikasleen motibazioa, akaso, aldatuz joan den. Gazteenengan –gaineratu du– arrazoi pragmatikoak indar handia du halere. Aldaketak gora-behera, euskalduntze-lanak eboluzio sakona izan du: «Euskalduntzen hasi ginen garaian, guztiok ere ezjakinak ginen hizkuntzen irakaskuntzan». Altunaren «*Euskara hire laguna*», *Euskalduntzen* metodoa eta material modernoagoak etorri dira eta gaur egun ordenadore bitarteko autoikaskuntzaraino iritsiak gara.

Aurrerakada agerikoa da eta jendea euskalduntzen ari da, Alemanen esanetan «norbanakoaren ahaleginaz, baina lana arintzeko ahalik eta erraztasun handienak eman behar dizkiogu, zama guztia norbanakoaren bizkar utzi gabe». Ekin horretan, aitortzen du euskalduntzea oraindik sendotu gabe dagoela Nafarroan, eta hitzaldiaren azken tartean, Nafar Gobernuari zuzendu zaio, dirulaguntza politika behingoz aldatu dezan: «Normalizazioaren bidean abiatuko ahal da Nafarroako Gobernu! Oraindik berde dagoen helduen euskalduntzea behingoz ontzeko, behingoz horitzeko».

Patxi Salaberriren erantzuna: *Sagrario Alemanen ekarpena biziki garrantzizkoa da*

Gauza askok lotzen dute Patxi Salaberri, erantzuna emateaz arduratu dena, Sagrario Alemanekin, baita Etxaleku herriarekin ere. Biak ere lankide izanak dira Arturo Campion euskaltegian. Hori baino lehen, «euskara serio ikasten hasi nintzenean, Sagarrioren anaia, Jose Manuel, izan nuen irakasle, eta gero, 1977 eta 1978an, hemen,

Alemandarren Etxalekuko etxean ikastaro labur-trinkoa egiteko aukera izan nuen». Ez Sagrariok bakarrik, euskal eremuetatik Iruñera joandako askok «ez dakite, oharkabeen ere, zenbat lagundu didaten niri eta ni bezala euskara etxean jasoa ez zuten beste irakasleei, ikasleei ez ezik».

Salaberriren esanetan, Sagrario Alemanek adierazia berretsiz, horretan datza euskararen benetako aberastasuna: nafarrek euskara batuari egin diezaioketen ekarpenik handiena Nafarroako herrietan hain ugaria den, hainbeste ñabardura dituen hiztegiarekin aberastea da batetik eta, esamoldeen munduan sartzen diren esaldi egin baina ez erabat finkatu horiek in osatzea, bestetik.

Orain, Euskaltzaindian berriz bat egin dutelarik, Salaberrik argi dauka Sagrario Alemanek lan faltarik ez duela izango Akademian: «Iruditzen zait Sagrarioaren ekarpena, hiztegi batua apailatzean etxean ikasitako hitzak sartzeari alegia, biziki garrantzizkoa dela euskararendako eta Nafarroarendako, irudi baitu Imotz alderdi hau, hein batez bederen, Iruñerriarekin edo Iruñerriaren iparraldeko zendea eta ibarrekin zegoela loturik hiztegiaren aldetik eta, beraz, Imozko hitzei sarbidea ematea erdararen bulkadaren aitzinean lekuak hustu behar izan zituen hizkerari sarbidea ematea dela, neurri batean».

Eta Alemanen hitzaldiaren hariari jarraikiz, Patxi Salaberrik adierazi duenaren arabera, «euskara helduei irakastea ere garrantzizkoa izan da azken hamarkadetan eta garrantzizkoa izanen da ondokoetan, eta seguru nago eremu honetan ere Sagrarioaren lana ezinbestekoa izanen dela bi «akademietan», Euskaltzaindian eta Arturo Campionen, gure hizkuntza irakatsi eta sustatzeko zereginetan».

Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta 27. zenbakia duen domina eman dizkio. Ondoren, banan-banan euskaltzain guztiek zoriondu dute.

Ekitaldi akademikoa amaitu denean honako opariak hartu ditu Sagrario Alemanek: Imozko Udalaren izenean, Maria Antonia Iribarren alkate andreak Mikel Okiñena etxalekuarraren eskultura bat eskaini dio; Jose Maria Facenda Etxalekuko kontzejuburuaren eskutik zazpi begi dituen makila hartu du; lagunaren izenean Pedro Aleman aitaren jaioterriaren puxkatto bat izan nahi duen oroigarria: Amaiurko paisajea erakusten duen koadroa; Etxalekuko elkartearen izenean Gartzzen Belokik saski bat oparitu dio; Arturo Campion euskaltegiko ordezkari batek Joseba Sarrionandiaren poema bat irakurri dio; San Fermin taldeko kantariak bi kanta abestu dituzte: *Goizean* eta *Euskal Herria*; Erkuden Flores, Itziar Flores eta Iñigo Goikoetxea musikariek *Nafarroa arragoa* jo eta kantatu dute.

Azkenik, Jose Maria Facenda Etxalekuko kontzejuburuak ekitaldiari bukaera eman dio, bertaratu direnak agurtuz eta Dorrotoa etxearen jabeei eskerrak emanez.

Ekitaldia eguerdiko 13:00etan bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2008ko ekainaren 27an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Pierre Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria, idazkariordea eta Jose Antonio Aduriz zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak:

Sagrario Alemanek, ahala A. Iñigori;
Miren Lourdes Oñederrak, ahala Aurelia Arkotxari; Miren Azkaratek, ahala P.

Goenagari; Joseba Irazuk, ahala A. Urrutiari; Andres Urrutiak, etorri bitartean, ahala Jose Luis Lizundiari; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,00etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzako batzar gelan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

Aurretiko oharrak. Idazkariak bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren helduriko ahalak irakurri ditu. Horren hurrengo, A. Urrutiaren absentsziagatik euskaltzainburuordearen zuzendaritzapean bilera hasi da eguneko gaien arabera.

1. Aurreko akta onartzea. Aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hizkuntza-gaiak

2.1. Exonomastika: Europako eskualde historiko-politiko nagusiak: 8. zerrenda (Portugal, Espainia eta Frantziako eskualde historiko batzuk) onartzea. Jose Luis Lizundiak aurkeztu du, eta J. Haritschelharrek eginiko oharrak ikusi ondoren, onartu egin dira, zerrendako gainerako izen guztiekin batera.

2.2. «Ierro» hitzaz IVAPen eskaria. IVAPeko Eneko Oregik eta HABEko Joseba Erkiziak egindako oharrak ikusita, Jose Luis Lizundiak azalpen batzuk eman ditu. Beñat Oihartzabalek oharrak dagozkion batzordeari helaraztea proposatu du. Pello Salaburuk era honetako oharrek sorraraz diezazkiguketan nahasbideen arriskua nabarmendu nahi ukan du. Adolfo Arejitak eta Xabier Kintanak, IVAPek arlo horretan daukan urte askotako eskarmentua, nolana dela, kontuan hartu beharko litzatekeela esan dute. Eztabaiden ondoan argi gelditu da oharrak begiratzeko gelditzeak ez duela esan nahi ohar guztiak automatikoki aintzat hartuko direnik.

2.3. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. Pello Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *ebatzi-tik erroldaritzea*-rainoko hiztak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

3. Eskuartekoak

3.1. «Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina». Karpetan, izen horrekin Iruñean aurrean, urriaren 6tik 10era eginen den XVI. Biltzarrari buruzko materiala banatu da, web gunekoa, orain arteko antolaketa zertan den erakutsiz.

3.2. Frantses Akademiaren adierazpenari egindako erantzuna. Frantziako Frantses Hizkuntzaren Akademiak frantsesa ez diren gainerako hizkuntzez egin berri duen erdeinu eta gutxiespenezko adierazpena dela eta, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak adierazpen proposamen bat egin du, euskaltzainek pasartez pasarte aztertu eta, ukitu batzuekin, berretsi dutena. Dagozkien agintari eta hedabideei helaraztea erabaki da.

3.3. Oharrak egiteko epea luzatu. G letrari buruzko oharrak egiteko epea uztailaren 14raino luzatzea proposatu du Zuzendaritzak. Hala onartu da.

3.4. Batzorde- eta egitasmo-buruei eskaria. 2009ko aurrekontuak prestatzeko, batzorde- eta egitasmo-buruei eskatu zaie uztailaren 22rako adieraz dezatela ea 2009rako ezer berezirik egingo ote duten (90. urteurrena barne).

3.5. 2008ko hitzarmena sinatu. Egitasmo-zuzendariek 2008ko hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiarekin gaur.

4. Azken ordukoak.

4.1. J. A. Arana Martijari omenaldia. Gaur Eusko Ikaskuntzak Jose Antonio Arana Martija euskaltzainari omenezko ekitaldi bat eskainiko dio arratsaldeko 7etan Bilboko Koral Elkartearen egoitzan. Euskaltzain guztiak bertaratzeko gonbidaturik daude.

4.2. Hurrengo osoko batzarra. Uztailaren 18an, ostiralean, izanen da Hendaia-ko udaletxean, arratsaldeko 15,30etan. Zuzendaritza-bilera goizean egingo da.

4.3. Aurelia Arkotxaren sarrera-hitzaldia. Aurelia Arkotxa euskaltzainaren sarrera hitzaldia uztailaren 19an, larunbatean, izango da Hendaia-ko udaletxean, goizeko 11:00etan. Gonbita datorren astean bidaliko da.

4.4. Euskal Herria izena dela eta. Espainiako Parlamentuak Euskal Hezkuntza-ko Curriculumean Euskal Herria aipatzeko erabiltzen den izena, hots, Euskal Herria, maiseatu eta testuliburuetatik kentzeko asmoa aipatu da. Autonomia estatutuan ere agertzen den izen hori dela eta, Euskaltzaindiak duela urte batzuk gure nazioaren izen historiko jator eta zaharrenaren alde bere iritzia argi eta garbi adierazi zuenez gero, eta arazoa Madrilen oraindik eztabaidan dagoenez, oraingoz adierazpen berririk ez egitea hobetsi du.

5. Banatu diren liburuak:

Henrike Knörr (1947-2008) izeneko liburuxka (*in memoriam*), ekainaren 3an, Bilboko Liburu Azokan Henrikeri omenaldia egin zionean Euskaltzaindiak banatua.

Literatura Terminoen Hiztegia, Literatura Ikerketa Batzordeak aspaldiko urteotan prestatu eta ondu duen ikerketa-lanaren emaitza.

2007an sarituriko lanen argitalpenak:

– Felipe Arrese Beitia poesia saria: *Hitzak orbainetan*, Karmele Igartuak egina.

- Toribio Alzaga antzerki saria: *Kontrako bidean*, Pablo Barriok egina.
- Mikel Zarate saiakera saria: *Euskara ibarguen-Cachopin-en kronikan*, Julen Arriolabengoak egina.

Batzarra eguerdiko 14:30etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Hendaian, 2008ko uztailaren 18an

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra
Emile Larre
Miren Lourdes Oñederra,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton,
Patxi Zabaleta eta
Mikel Zalbide, euskaltzainak

Pello Telleria, idazkariordea eta Jose Antonio Aduriz zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Jean-Louis Davantek, ahala A. Sagarnari; Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagarnari.

Batzarra arratsaldeko 15,30etan hasi da Hendaiaiko Herriko Etxean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko aktak onartzea. Maiatzaren 31ko batzar agiria dela eta, A. Iñigok *Kanpion/Campion* izenaren idazkerari buruzko oharra egin du, koherentzia eskatzeko. J. L. Lizundiak, bestalde, jendaurreko ekitaldietan idazkariaren parte hartzeaz zehaztaper bat adierazi du. Horiek salbuesita, aurreko batzarren aktak ontzat eman dira.

2. Hizkuntza-gaiak

2.1. Hiztegi Batua: IVAP eta HABEren eskaria. Lantaldearen aburuz *lerro* da gehien erabiltzen den forma egokia. Zirkulazio-kodean bestelako bereizketa premiarik balego, bere momentuan ikusiko da, definizio egokiarekin. P. Goenagak, B. Oihartzabalek, J. L. Lizundiak eta A. Arejitak hitz horiek komunikabide, geografi eta administrazio-eremuetan izaten duten esangura ezberdinetarik sor dezaketen nahasbidea nabarmendu nahi izan dute. P. Zabaletak ere hitz berbera adiera

erabat ezberdinetarako erabiltzeak ekar ditzakeen nahasturaz bere kezka azaldu du. J. Haritschelharrek, ordea ez dakusa kontraesanik hitz berbera bi esanguratan erabiltzean.

P. Salaburuk *lerro* hitzak aspaldian daukan hedadura azpimarratu du. X. Kintanak hitz polisemikoek zientziaren zehaztasunerako dakarketen nahasteaz ohartarazi du. J. L. Lizundiak, ahal delarik, Euskal Herri osorako erabakiak eman beharko liratekeela uste du. A. Sagarnak esan du hizketa arrunteko terminoak eta arlo berezituetaoak, askotan formaz eta erabileraz ezberdinak izaten direla, eta beroriek, eskuarki, teknikarrien eskuetan utzi ohi direla. P. Goenagak pentsatzen du erabakiak ez lukeela hiztun arrunten artean premia gabeko nahasterik sortu beharko. M. Zalbidek era honetako hitzek aldean dakarten problematika xeheki azaldu, eta, irtenbiderik egokiena batzordearen iritzia eustea dela uste du.

2.2. Hiztegi Batua: E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *erroma*-tik *esgrima*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

3. Eskuartekoak

3.1. Milagros Bidegain-en heriotza. M. Bidegain euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman da. Berorren hilberri-txostena Mari Pilar Lasartek egitea proposatu eta ontzat eman da.

3.2. Aurelia Arkotxaren sarrera-hitzaldia. A. Arkotxa euskaltzainak bere sarre-hitzaldia bihar, uztailak 19, egingen du Hendaia Herriko etxean, goizeko 11etan.

3.3. Afaria-eta hotela. Biharko ospakizuna dela eta, Hendaian gelditzeko asmoa duten euskaltzainei, afaria eta ostatua *Bidassoa* hotelean izanen direla jakinarazten zaie.

4. Azken ordukoak

4.1. Euskaltzain berria izendatzeko proposamenak. Henrike Knörr euskaltzain zenduaren hutsunea betetzeko, Patxi Goenagak, Joseba A. Lakarrak eta Lourdes Oñederrak Blanca Urgell andrearen kandidatura aurkeztu dute. Era berean, Jose Luis Lizundiak, Andoni Sagarnak, Sagrario Alemanek eta Jean-Louis Davantek Patxi Uribarren jaunaren aldeko proposamena egin dute. Hautaketa iraileko 26ko osoko batzarrean izanen da.

4.2. Nafarroa oinez 2008. Aurtengo *Nafarroa oinez* ospatzeko, ohi bezala Euskaltzaindiak bertan parte hartu eta jendaurreko bilkura ageria egingen du irailaren 18an.

4.3. Hurrengo batzarra. Irailaren 26ean izanen da Bilbon.

Batzarra 20,10ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Hendaian, 2008ko uztailaren 19an

Gaur, uztailak 19, egin da Aurelia Arkotxa Mortalena euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Hendaiaiko Udaletxean, goizeko 11:00etan hasita.

Bildu dira:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Antonio Zavala, Joan Mari Torrealdei eta Patxi Zabaleta.
- Ohorezko euskaltzainak: Pierre Andiazabal. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Gereño, Joseph Camino, Jean-Baptiste Dirassar, Patxi Oroz, Jean-Baptiste Orpustan eta Karmele Rotaetxe.
- Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Ur Apalategi, Erramun Baxok, Jon Casenave, Jean-Baptiste Coyos, Agnes Dufau, Ricardo Badiola, Eñaut Etxamendi, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Peio Jorajuria, Daniel Landart, Lourdes Otaegi, Paskual Rekalde, Koro Segurola, Patri Urkizu, Pello Telleria, Patxi Uribarren, Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Altzibar, Xipri Arbelbide, Gorka Aulestia, Jon Aurre, K. Josu Bijuesca, Xabier Erdozia, Eñaut Etxamendi, Jean-Baptiste Etxarren, Jose Mari Etxebarria, Marcel Etxehandi, Luzien Etxezaharreta, Joan Mari Irigoien, Odile Kruzeta, Miren Agur Meabe, Mari Jose Olaziregi, Elixabete Perez-Gaztelu eta Xarles Videgain.
- Batzordekideak: Elizabet Kruzeta, Ane Miren Loidi eta Erramun Osa.
- Langileak: Lutxi Alberdi, Annie Etxeberri, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 57.8 eta 57.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu..

Jean-Baptiste Sallaberry auzapezak ekitaldira etorritako guztiak agurtu ditu. Ondoren Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak esan ditu.

Euskaltzainburuak amaitu orduko, Sagrario Aleman eta Jean-Louis Davant euskaltzainek lagunduta, Hendaiaiko Herriko Etxeko batzar aretoan sartu da Aurelia Arkotxa *Bazterrez* izeneko sarrera-hitzaldia irakurtzera.

Aurelia Arkotxa «Bazterrez»

Euskaltzain oso berriak bidaia lerrotu du bere sarrera-hitzaldian, bai espazioan, baita denboran ere, oso berezkoa zaion estilo poetikoaz. Pasealdi bat proposatu die entzuleei, Bidasoaren hegari jarraikiz itsaso handiaren ertzetaraino, hiria, bazterrak nahasirik bizi diren leku hauetan.

Hendaiairen ezaugarri historiko nagusia nabarmendu nahi izan du, kanpora irekia den herria, muga eta frontera den herria. Baina, bestetik, urak lotzen du Hendaia inguruko herriekin, ibai eta itsasoz, eta gauza bera egiten dute bi zubiek.

Herriko Etxean bildutakoak Hendaiaiko karrketan ibili dira gaur, Aurelia Arkotxaren eskutik: hasieran uraren bidea eginez, gero mugaz beste aldean, geltokiaren bazterretan eta itsas portuetan murgildu direlarik.

Hendaiaiko lekuak ez ezik, bertako edo bertan izandako pertsonak ere ekarri ditu gogora Aurelia Arkotxak: Miguel de Unamuno, bost urtez Hendaia bizileku izan zuena; Pierre Loti, aldi baterako Hendaia destinatua eta itsas bazterreko leku honetaz «amorostu» zena: «Leku berri bakoitzaz liburu bat idazten zuenez, Euskal Herriari buruzkoa *Ramuntxo* izan zen. Mundu kurri segitu zuen baina leku hau ezin utzia zuen. Hemen hil zen 1923an».

Hor gurutzatu da Anton Abbadia, eta eskerrona adierazi nahi izan dio Arkotxak, «hainbertze euskarazko eskuizkribu zaindu dituelako». Datorren urtean laugarren mendeurrena beteko da, Pierre de Lancre Bordeleko Parlamentuko kontseilaria 1609an Lapurdia etorri zela, Henri IV.a Frantziako erregeak mandaturik sorginkeriaren kontra aritzeko. Laurogei bat *sorgin*, gehienak emazteak, erreak izan ziren. De Lancrek 1612an idatzi zuen *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons* liburuan hamar bat aldiz aipatua da Hendaiaiko lekua, Hendaian baitira gertatzen sorginen batzarrak. Hendaian, uraren erdian ere trinkatu dira batzuetan Frantzia eta Espainia Europako estaturen destinoak.

Esaera zaharrak dioena gogoraraziz bukatu du hitzaldia Aurelia Arkotxak: *Bidai-de, gogaide*.

Beñat Oihartzabalen erantzuna

Beñat Oihartzabal pixka bat urrundu da horrelako ekitaldietan egiten diren ohiko egin-moldeetarik. Izan ere, bere ihardespenean, Aurelia Arkotxari zuzenean erantzun ordez, irakurri du Joanes Etxeberri Ziburukoari, karia horretara, aspaldiko adiskide gisa egin gutuna: «Zeharbide bat hartuko dut, eta gu bien arteko –Arkotxa eta Oihartzabalen arteko– hainbertze solasaldiren gaia izan den adiskide bati eginikako gutuna irakurriko dut. Adiskide hori, mundu hau duela hiru mende eta erdi edo utzi zuena, inguru hauetako zen, Ziburuko hain zuzen. Eta azken denbora hauetako lapurtar anitzek ahantzixea

baitute haren izena, esperantza dut atsegin hartuko duela Johannes Etcheberrik, ikusiz egun euskaltzainek gaurko poeta bat gure artean hartzean gogoan izan dugula».

Gutun horretan Oihartzabalek, euskaltzain berria aurkeztu dio lapurtar lehen poeta ezaguna izan zenari, Arkotxak euskalgintzan, irakasle eta poeta gisa egin duen bidea zehaztuz.

Bidenabar, Arestiren oroitzapena egin du Oihartzabalek (*Maldan Behera* izeneko Arestiren obra izan baitzen Arkotxaren doktore tesiaren gaia), eta Etxeberriren beraren koplak ere gogoratu ditu, bereziki itsasturientzat egindakoak, Arkotxak *Septentrio* bere liburuan ere gogoan izan dituenak.

Azkenik, Oihartzabalek Etxeberriri Euskaltzaindia ere zer den laburzki azaldu dio, berriki frantses akademiak euskara bezalako mintzairez erranak gogoratuz, eta Ziburuko koplakariak bere garaian hizkuntza berdintasunari buruz hartu zuen jarrera oroituz.

Hitzaldien amaieran, Euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina eta diploma eman dizkio Aurelia Arkotxari, eta euskaltzain guztiek banan-banan zoriondu dute euskaltzain berria.

Ekitaldi akademikoa amaitu denean Hendaiaiko Herriaren izenean Jean-Baptiste Sallaberry auzapezak paisaia erakusten duen koadroa oparitu dio Aurelia Arkotxari eta lore-sorta ugari igorri diote lagunek.

Ekitaldia eguerdiko 13:00etan bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

(Frantses Akademiak 2008/06/12an egindako adierazpena dela-eta)

Frantziako Konstituzioa aldatzeko xedea eztabaidatu da berrikitan Frantziako Parlamentuan. Karia horretara, proposamen bat egina izan da, Frantziako eskualde hizkuntzei nolabaiteko ezagutza emateko, hizkuntza horiek Frantziako ondarearen parte direla Konstituzioan agerraraziz. Lehenik Diputatu Ganberak onartu du aldaketa proposamen hori; ondoren, haatik, Senatuak kenarazi du, gai horren inguruan gizartean eztabaida bizia sortzen zelarik. Frantses Akademia bereziki holako aldaketa baten aurka goraki mintzatu da, akademiakideek aho batez onartu adierazpen batean galdatzen zutelarik aldaketa proposamen hori ken zedin, Frantziako Konstituzioan hizkuntza horiei aipamen den mendrenik ez egiteko, edo ezagutza formalik ez emateko.

Testuinguru horretan, eta Konstituzioaren aldaketa oraino eztabaidatzen delarik, Euskaltzaindiak hauxe jakinarazten du:

1. Euskara euskaldunen hizkuntza da, ez baitezpada hizkuntza bakarra, aspaldi baita euskaldunek eleaniztasunaren beharraren eta haren onuren berri dakitela, bai ordea berezko hizkuntza. Mintzaira horren bidez izendatzen dugu geure burua, haren bidez, halaber, geure herria.
2. Horiek hola, euskara historikoki estatu eta administrazio eremu desberdinetan mintzatua izan da, eta ondorioz beti legezko egoera desberdinetan bizi izana da. Zuzenbide egoera desberdintasun horren gainetik, Euskaltzaindiak aspaldi jakinarazi du euskarari zor zaiola, mendez mende aspaldiko denboretan mintzatua izan den herrialde guztietan, legearen ezagutza eta geriza. Hain zuzen ere, 1994an, bere 75. urtemugakari, Miarritzen egin zuen adierazpenean galdatu zuen Frantziako estatuan ere euskarak izan zezan dagozkion hiru herrialde historikoe-tan ko-ofizialtasuna; (ikus adierazpena ondoko dokumentuan).
3. Egun, berriz ere, printzipio beretan finkaturik, biziro eskatzen dugu Frantziako estatuan ere euskarak izan dezan estatuaren legezko anto-lamenduan zor zaion ezagutza betea, nazioarteko hitzarmen guztietan, bereziki Europakoetan, eskatua den bezala.
4. Deitoratzen dugu, frantses mintzairaren kasuan legearen babesaren beharraz horren kezkatua den Frantses Akademia, hain bortizki eta

itsuski, Frantziako beste hizkuntza anitzez ahulagoen kasuan Frantziako Konstituzioan aipamen sinboliko den gutieneko baten egitearen aurka altxatzea.

5. Euskaltzaindiak jakinarazten du gerturik dagoela, orain arte izan den bezala, herri agintari eta erakunde publiko guztiekin lan egiteko euskarak izan dezan ezagutza ofiziala Frantziako herrialde euskaldunetan.

Euskaltzaindiak aho batez onartua, Bilbon, 2008ko ekainaren 27an.

DÉCLARATION DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE **(à propos de la déclaration de l'Académie Française** **du 12 juin 2008)**

Le Parlement français a récemment débattu du projet de modification de la Constitution. A cette occasion, la proposition a été faite d'introduire une certaine forme de reconnaissance des langues régionales en faisant apparaître dans la Constitution une phrase précisant que ces langues appartiennent au patrimoine de la France. Dans un premier temps, cette modification constitutionnelle a été adoptée par la Chambre des Députés; dans un second temps, elle a été rejetée par le Sénat. Lors du débat qui a suivi dans l'opinion, l'Académie française s'est exprimée avec force pour demander le retrait définitif de cette proposition, et a publié une déclaration, adoptée à l'unanimité, indiquant qu'elle était opposée à l'introduction dans la Constitution de toute mention ou reconnaissance formelle des langues régionales.

Dans ce contexte, alors que les modifications constitutionnelles sont encore en cours d'examen, l'Académie de la Langue basque fait la déclaration suivante:

1. L'euskara est la langue des Basques. Pas nécessairement leur seule langue, car il y a bien longtemps que les Basques connaissent la nécessité et les bienfaits du plurilinguisme, mais certainement leur langue propre et spécifique. C'est par elle que nous nous nommons en basque, par elle également que se nomme notre pays.
2. Historiquement, le basque a été parlé dans des Etats et des entités administratives différentes, et a donc été toujours confronté à un environnement varié du point de vue juridique. L'Académie a depuis longtemps indiqué à plusieurs reprises que, par delà la pluralité des situations que le basque rencontre sur ce plan, il convenait qu'il reçût la pleine reconnaissance et la protection de la loi dans les provinces où il a été historiquement parlé. Ainsi, dans leur déclaration adoptée à Biarritz en 1994 à l'occasion du 75^{ème} anniversaire de la naissance de l'Académie, les académiciens avaient demandé qu'en France également l'euskara bénéficiât de la co-officialité dans les trois provinces basques où il était en usage.
3. Aujourd'hui à nouveau, en nous fondant sur ces mêmes principes, nous demandons de manière pressante que le basque reçoive en France la

pleine reconnaissance juridique qui lui est due, ainsi que le préconisent les divers traités internationaux, notamment européens, qui abordent ces questions.

4. Nous regrettons vivement que l'Académie française, si consciente de la nécessité de faire bénéficier la langue française de la protection de la loi, se déclare hostile, de façon si absolue et brutale, à ce que la moindre reconnaissance –fût-elle purement symbolique– soit attribuée dans la Constitution aux autres langues de France, pourtant confrontées, elles, à des conditions incomparablement plus défavorables.
5. L'Académie de la Langue basque déclare enfin qu'elle demeure disposée, comme elle l'a toujours été, à collaborer avec les autorités et institutions publiques françaises afin que la langue basque puisse bénéficier d'une pleine reconnaissance dans les trois provinces du Pays Basque de France.

Déclaration adoptée à l'unanimité par l'Académie de la Langue basque lors de sa session plénière tenue à Bilbao, le 27 juin 2008

**EUSKALTZAINDIAREN
ARAUAK**

HIZTEGI BATUA

g - guzur

g iz. 'euskal alfabetoaren zazpigarren letra'.

g 'gramo'ren sinbolo nazioartekoa.

gaban* e. **beroki**.

gabarra

gabe: *argirik gabe*; *argi gaberik*; *argi gabe*.

gaberik 'gabe': *argi gaberik*.

gabetarik *Ipar*. 'gaberik'.

gabetasun

gabetu, gabe(tu), gabetzen. *da/du* ad.

gabez *g.g.er.* 'gabe'.

gabezia

gabi

gabia iz. (itsasontzietakoa).

gabiato iz. (itsasontzietakoa).

gabieta iz. 'gabiatoa'.

gabikotu, gabiko(tu), gabikotzen. *du* ad. *g.er.*

gabinete* e. 1 **bulego**. 2 **gobernu**. 3 **kabinete**.

gabirai iz. *Accipiter nisus*.

gabon 1 *Heg.* 'gau on!'. 2 pl. 'Eguberriak'.

Gabon(-)egun

Gabon(-)eske

Gabon(-)gau

Gabon(-)kanta

Gabon zahar

gabondar (herritarra).

gabonsari

gabonzale iz. *g.er.*

gaboronetar (herritarra).

gabota iz. (dantza-mota).

gaelera iz. (hizkuntza). *Sin. gaeliko*.

gaeliko iz. (hizkuntza). *Sin. gaelera*.

gahe iz. *Zub.* 'burruntzalia'.

gai iz.: *zenbait gaitan aditua* (instrumentalean *-e-* hartzen du: *edozein gaiez mintzatu*).

gai izan. *da* ad.

gaihendu* e. **gailendu**.

gaika adlag.

gaikalde* e. **gainalde**.

gaiki iz. *g.er.* 'gaia, materia'.

gaikuntza

gailen

gailendu, gailen(du), gailentzen. *da/du* ad.

gailentasun

gailur

gailurreratu, gailurrera(tu), gailurrerutzen. *da/du* ad.: *eguerdirako gailurreratu dira mendizaleak.*

gailurreria iz.

gailurtu, gailur(tu), gailurtzen. *du* ad.: *haren idazkietan gailurtzen den gaia.*

gain 1 iz.

-az gain

-en gain: *bere gain hartu zuen lana.*

-en gainean ‘-i buruz’.

gain behera adlag.

gainean

gainez gain ibili, joan

gainez gain irabazi *Ipar.* ‘erraz irabazi’: *gainez gain irabazi zuten.*

gain 2 iz. ‘esne gaina’.

gainalde

gainazal

gainazpikatu, gainazpika, gainazpikatzen. *du* ad.

gainbalio

gainbegiraketa* e. **gainbegiratu**.

gainbegirale

gainbegiratu 1, gainbegira, gainbegiratzen. *du* ad.

gainbegiratu 2 iz.: *gainbegiratu bat eman, egin.*

gainbehera: iz.: *erromatar inperioaren gainbehera.*

gainbeherakada* e. **gainbehera**.

gainbide

gaindegi

gaindi iz. eta izond.

-n gaindi postpos.: *elkarrekin zebiltzan Galilean gaindi.*

-z gaindi postpos.

gaindi egin

gaindiarazi, gaindiaraz, gaindiarazten. *du* ad. *Ipar.*

gaindidura

gaindiezin izond.

gaindika adlag.

gaindikatu, gaindika(tu), gaindikatzen. *du* ad. *Ipar.*

gaindikin iz. *g.er.* ‘soberakina’.

gainditu, gaindi(tu), gainditzen. *du* ad.

gainditze

gaindiz adlag. *Ipar. g.g.er.*

gaindosi iz.

gaindu, gain(du), gaintzen. *du* ad. h. **gainditu**.

gainegitura

gainekalde* e. **gainalde**.

gaineko iz. 1 *Ipar.* ‘soinekoka’. 2 *Heg.* ‘otordu batean sarreraren ondoko jakia’.

gainera adlag.

-z gainera postpos.: *euskaraz ongi ikasteaz gainera, lan ikaragarria egin zuelako.*

gainerako

eta **gainerakoak**

gainerakoan

gainerateko izlag. *Ipar.* h. **gainerako**.

gaineratu, gainera(tu), gaineratzen. *da/du* ad.

gainestruktura* e. **gainegitura**.

gainetiko izlag. *Batez ere Bizk.* ‘gainerako’.

gainez adlag.

gainez egin ‘gainezka egin’.

gainezka

gainezka egin

gainezkaldi**gainezkatu**, gainezka(tu), gainezkatzen. *du* ad.**gaineztu**, gainez(tu), gainezten. *da/du* ad. *g.er.* h. **gainezkatu**.**gaingiroki****gaingora** adlag. *g.er.:* *Kartago gaingora zihoan garaile*.**gainka**gainkalde* e. **gainalde**.**gainkarga****gainkatu**, gainka(tu), gainkatzen. *du* ad. 'arra emearen gainean jarri'.**gainontzean** adlag. *Gip.* eta *Naf.* h. **gainerakoan**.gainontzeko izlag. *Gip.* eta *Naf.* h. **gainerako**.**gaintar**gainti* e. **gaindi**.gainzka* e. **gainka**.**gainzurikeria****gainzuritu**, gainzuri, gainzuritzen. *du* ad.gaizo* e. **gaixo**.gaisto* e. **gaizto**.**gaita** iz. (musika-tresna).**gaitasun****gaitu**, gai(tu), gaitzen. *da/du* ad.**gaitz 1** iz.

gaitz egin

gaitz erdi adlag.

gaitz erran, gaitz erraten. *Ipar.*

gaitz esan, gaitz esaten.

gaitz 2 izond.

gaitz iritzi

gaitzaldi**gaitze****gaitzegoki** iz. *g.er.* 'zorigaitza'.**gaitzeko** izlag. *Ipar.:* *gaitzeko arrakasta izan zuen*.**gaitzerizko** iz. *Jas.***gaitzeru****gaitzesgarri****gaitzesgarrikeria****gaitzesle****gaitzespen****gaitzeste****gaitzetsi**, gaitzets, gaitzesten. *du* ad.**gaitzets izan**. *du* ad. *g.er.* 'gaitzetsi'.gaitzgabe* e. **gaizgabe**.**gaitziarazi**, gaitziaraz, gaitziarazten. *du* ad.**gaitzigarri** izond. *g.er.***gaitzi izan**. *zaio* ad. *Ipar.:* *deus ez zaio hain gaitzi nola eskergabekeria*.**gaitzikor** izond. *Ipar.***gaitzikortasun** iz. *g.er.***gaitzirizte** iz.**gaitzitu**, gaitzi(tu), gaitzitzen. *da/zaio* ad. *Ipar.:* *bikarioaren jokoa biziki gaitzitu zitzaion Oxalderi*.**gaitzizen****gaitzondo** iz. *Zah.* *g.er.***gaitzurre** iz. *g.g.er.* 'arriskua'.gaitzuru* e. **gaitzeru**.**gaixo 1** iz. eta izond. 'eria'. 2 izond. 'errukarria'.**gaixorik****gaixoaldi****gaixobera** izond. 'erikorra'.

gaixoetxe
gaixokor izond. *g.er.* 'erikorra'.
gaixondo iz. 'eriondoa'.
gaixotasun
gaixotegi
gaixoti izond. 'erikorra'.
gaixotu, gaixo(tu), gaixotzen. *da/du* ad.
gaioxain iz. 'erizaina'.
gaioxaintza iz. 'erizaintza'.
 gaixto* e. **gaizto**.
gaizbera
gaizgabe izond.
 gaizgabeko
gaizkata iz. *Acipenser sturio*.
gaizki 1 adlag. 2 iz.: *ongiaren eta gaizkiaren arbola*.
gaizkiagotu, gaizkiago(tu), gaizkiagotzen. *da/du* ad.
gaizkide iz.
 gaizkigile* e. **gaizkile**.
gaizkika adlag. *Ipar*.
gaizkikatu, gaizkika(tu), gaizkikatzen. *du* ad. *Ipar. g.er.*
gaizkile
gaizkin
gaizkinahi iz.: *onginahia eta gaizkinahia*.
gaizkindu izond. *g.er.* 'deabrutua, deabruak hartua'.
gaizkintza iz. *g.er.*
gaizkitu, gaizki(tu), gaizkitzen. *da/du* ad.: *gaixoa gaizkitu egin da*.
gaizkoatu, gaizkoa, gaizkoatzen. *da/du* ad. *Jas.:* *zauria gaizkoatu zaió*.
gaizkondu, gaizkon, gaizkontzen. *da/du* ad. *Ipar.* 'gaizkiagotu, gaiztotu'.
gaizo *Ipar. Adkor.* 'errukarria': *gaizo ni!*
gaizpide
gaiztagin
gaiztakeria
 gaiztarazi* e. **gaiztoarazi**.
gaiztasun iz. 'zailtasuna'.
 gaiztetsi* e. **gaitzetsi**.
gaizto
gaiztoarazi, gaiztoaraz, gaiztoarazten. *du* ad.
gaiztoki adlag.
gaiztotasun
gaiztotu, gaizto(tu), gaiztotzen. *da/du* ad. 1 'gaizto bihurtu'. 2 '(zauria) gaizkitu'.
gaiztu, gaitz/gaiztu, gaizten. 1 *da/du* ad. *Ipar.* 'gaiztotu'. 2 *da* ad. *Ipar.* 'gaitzitu'.
gajo izond. *Gip.* (emakumezkoei dagokie).
 gakatu* e. **gakotu**.
gako iz. *Ipar.* 'giltza'.
gakotu, gako(tu), gakotzen. *du* ad. *Ipar.* 'giltzatu, giltzaz itxi'.
gala iz. *Heg.*
galai
galaiki
galaitasun
galanki
galanperna iz. *Cystoderma sp; Lepiota sp.*
galant
galantasun
galanto adlag. *Bizk.*
galarazi, galaraz, galarazten. *du* ad. 1 'eragotzi'. 2 'galtzera behartu'.
galarazle
galarazpen

galarazte
galarrots
galartzu
galauts
galaxia
 galazi 1* e. **gari-hazi**.
 galazi 2* e. **galarazi**.
galbahe
galbahetu, galbahe(tu), galbahetzen. *du* ad.
galbahetze
galbide
galbideratu, galbidera(tu), galbideratzen. *du* ad.
galbidetsu
galbizar iz. 'gari-bizarra'.
galburu
galda
galdagarri
galdaketa iz. 'metala urtzea'.
galdara
galदारगile iz. *g.er.*
galdategi iz. 'galda, metala urtzeko lantegia'.
galdatu, galda, galdatzen. *du* ad. 1 'goritu'. 2 *Ipar.* 'galdegin'; 'eskatu'.
galde iz. 1 'galdera, itauna'. 2 *Ipar.* 'eskaera'.
-(r)en galdea egin
galdea egin
galdean adlag. 'galdez'.
galde-erantzunak
galdearazi, galdearaz, galdearazten. *dio* ad.
galdegai
galdegile
galdegin, galdegiten. *du* ad. 1 'galdetu'. 2 *Ipar.* 'eskatu'.
galdeginarazi, galdeginaraz, galdeginarazten. 1 *dio* ad. 2 *du* ad. *Ipar.* 'eskarazi'.
galdegite
 galdegitza* e. **galdeitza**.
 galdeikur* e. **galdera(-)marka**.
galdeitza iz. *Ipar. g.g.er.* 1 'eskea'. 2 'galdera'.
galdeka adlag. h. **galdezka**.
galdekatu, galdeka(tu), galdekatzen. *du* ad.
galdekatzaile
galdeketa
galdekizun
 galdemarka* e. **galdera(-)marka**.
galdera
galdera(-)marka
galderna iz. 'landare-zorria' (*Fam. Aphididae*).
galdetegi iz.
galdetu, galde(tu), galdetzen. *du* ad.
galdetzaile
galdez
galdezko izlag. a) *galdezko otoitza*; b) *galdezko perpausa*.
 galde-zeinu* e. **galdera(-)marka**.
galdezka
galdu, gal, galtzen. *da/du* ad.
galdu-gordean adlag. 1 'galtzeko zorian'. 2 'noraeezan, helbururik gabe'.
galdukeria
gale iz. *g.er.* 'gogoa'.
galego iz. (hizkuntza). *Sin.* **galiziera**.

galen iz. *Goi. g.er.* 1 ‘zigorra’. 2 ‘etsipena’.

galena iz. *Miner.*

galendu, galen(du), galentzen. *daldu* ad. *Goi. g.er.* ‘zentzagarria hartu edo eman’.

galeoi

galeper iz. *Coturnix coturnix.*

galeperki iz. ‘galeperraren okela’.

galera 1 iz. ‘galtzea’.

galera 2 iz. (itsasontzi mota): *galeretara kondenatua.*

galeria

galerna

galernatsu izond. *g.er.*

galetsi, galets, galesten. *du* ad. *Goi.* 1 ‘galdutzat eman’. 2 ‘hondatu’.

galga

galga eman

gal-gal adlag.

galgalka adlag.

galgarau

galgarri

galgatu, galga(tu), galgatzen. *du* ad. ‘galga eman’.

galiar (herritarra).

galikano

galipot iz. *Sin. brea.*

galiziar

galiziera iz. (hizkuntza). *Sin. galego.*

galkatu, galka, galkatzen. 1 *du* ad. ‘mukuru bete’. 2* e. **kalkatu.**

galkor

galkortasun

galmen

galmenta iz. *Zah. g.er.* ‘arriskua’.

galmotz iz. ‘gari motza’.

galo* e. **galiar.**

galoi iz. 1 ‘neurri unitatea’. 2 ‘xingola’.

galoitu, galoi(tu), galoitzen. *du* ad. *g.er.* ‘galoi hornitu’.

galpar* e. **kalpar.**

galpen iz. *Zah.*

galsoro iz. ‘gari soroa’.

galtatu* e. **galdatu.**

galtzagorri* e. **galtzagorri.**

galtxoim iz. *Ipar.*

galtza iz. pl.

galtzada

galtzadatu, galtzada(tu), galtzadatzen. *du* ad. ‘lauzatu’: *bide galtzadatuaren bi saihetsak.*

galtzadun

galtzagorri

galtzaile

galtzairu* e. **altzairu.**

galtzamotz iz. pl.

galtzapen iz. ‘hondamena’; ‘galera’.

galtzar iz. ‘altzoa’.

galtzaratu, galtzara, galtzaratzen. *du* ad. *Ipar.:* *lursagararak, artoak galtzaratzea.*

galtzarbe

galtzazale izond. *g.er.*

galtzazpi iz. *g.er.*

galtze

galtzerdi

galtzeta iz. *g.er.* ‘galtzerdia’.

galtzeta-orratz. *Sin. galtzorratz.*

galtzetin iz. *Heg. Beh.* ‘galtzerdi (motza)’.

galtzina iz. *Naf.* ‘karea’.

galtzipurdi

galtzorratz iz. *Sin.* **galtzeta-orratz.**

galtzuri* e. **gari-zuri.**

galzori

galzorian

galzuri* e. **gari-zuri.**

gambiar (herritarra).

gamelu iz. *Camelus bactrianus.*

gameluzain

gameto

gametofito iz. *Bot.*

gametogenesi iz. *Biol.*

ganaderitza* e. **abeltzaintza.**

ganadero* e. **abeltzain.**

ganadu

ganadutegi

ganba iz. *Heg.*

ganbara iz. *Heg.* ‘teilatueko solairua’.

ganbara-musika* e. **ganbera(-)musika.**

ganbela

ganbelu izond. *Lgart.* ‘kirtena, inozoa’.

ganbera iz. 1 *Ipar.* ‘logela’. 2 *Admin.:* *diputatuen ganbera; merkataritza ganbera; ganbera musika.*

ganberatxo

ganbiatu* e. **kanbiatu** eta **aldatu.**

ganbil izond. *Sin.* **konbexu.**

ganbito iz. (xake-jokokoa).

ganbusia iz. *Gambusia affinis.*

gandeler* e. **ganderailu.**

ganderailu iz. *Ipar.* 1 ‘argimutila’. 2 ‘kandelario(-eguna)’.

gando iz. *g.er.* ‘aldaxka’.

gandola iz. *g.er.* ‘edontzia, basoa’.

gandor

gandu

gandutsu

gandutu, **gandu(tu)**, **gandutzen.** *da/du* ad.

ganer iz. *Ipar.* ‘ganbara’.

ganga iz. *Anat., Arkit.*

gangaila* e. **gingil.**

gangailen* e. **gingil.**

gangailu* e. **kankailu.**

gangar 1 iz. *Bizk.* ‘gandorra’. 2 izond. *Bizk.* ‘ergela, harroa’.

gangarabil* e. **gingil, gongoil.**

gangarkeria iz. *Bizk.*

gangor* e. **gandor.**

gangrena

gangrenatu, **gangrena(tu)**, **gangrenatzen.** *da/du* ad.

gangster

ganibet

gano iz. *Zub.* ‘gogoa’; ‘funtsa, ganora’.

ganora

ganoraz

ganorazko

ganorabako izlag. *Bizk.*

ganoradun izond. *Bizk. g.er.*

ganoragabe izond.

ganoragabeko

ganoragabekeria

ganoratsu

gantxigor

gantxo

gantz

gantzatsu izond.

gantz

gantzadura

gantzugailu iz. *Jas.* ‘gantzua, ukendua’.

gantzukari iz. *g.er.* ‘gantzua’.

gantzuki iz. *g.er.* ‘gantzua’.

gantzutu, gantzutu(tu), gantzutzen. *du ad.*

gantzutze

gapar* e. **kapar**.

gapelu* e. **kapelu**.

gapirio

gapoin iz. *Ipar. h. kapoi*.

gar iz. 1 (suarena). 2 *Irud. h. kar: zure amodioaren kar saildua*.

gara 1 iz. ‘arbiaren eta beste landare batzuen zurtoina’.

gara 2* *Ipar. e. geltoki*.

garabi

garabi-auto

garabiauto* e. **garabi-auto**.

garagar

garagardi iz. *g.er.*

garagardo

garagardogile

garagardogintza

garagardotegi

garagarri iz. 1 *Gip. eta Naf. h. ekain*. 2 *Bişk. h. uztail*.

garai 1 iz.: *Rubensen garaiko poeta*. 2 izond.: *Normandia Garaia; Alpe Garaiak*.

garai atera (honen gisako beste esapideok ere erabiltzen dira: *garai irten, garai gelditu, garai jaiki, garai jarri*).

garai izan. *da ad.* ‘nagusi izan’.

garaiz

garaiarazi, garaiaraz, garaiarazten. *dio ad.*

garaiera iz.: *garaiera handiko mendi bat*.

garaiezin izond.

garaikide

garaikunde

garailari izond. eta iz. h. **garaile**.

garaile

garaino* e. **garaño**.

garaipen

garaisari

garaita* e. **garaitia**.

garaitasun iz.: *zure arimaren handitasun eta garaitasuna*.

garaitia iz. *Ipar. Jas.* ‘garaipena’.

garaitiar izond. eta iz. *Ipar.* ‘garailea’.

garaitiko izlag. *Ipar.* 1 ‘gainerakoa’. 2 ‘goi(t)koa’.

garaitu, garai(tu), garaitzen. *du ad.*

garaitza iz. *Batez ere Bişk.* ‘garaipena’.

garaitzaile

garaitzapen iz. h. **garaipen**.

garaitze

garaje

garako izlag. ‘heldutasunera iritsia’.

garandu, garan, garantzen. *du* ad. *Bizk.* ‘aleak kendu’.

garangorri iz. ‘gurbitzaren fruitua’.

garaño

garapen

gararazi, gararaz, gararazten. *du* ad.

garasti* e. **garesti**.

garatosa* e. **karatosa**.

garatu, gara, garatzen. *da/du* ad.

garatxa* e. **garatxo**.

garatxo

garatxo(-)belar *Daphne laureola*.

garatzaile

garau iz.: *garaurik ere ez da gelditu. Sin. ale, bihi.*

garaun* e. **garau** eta **garun**.

garautegi

garautsu izond. *g.er. Sin. aletsu, bihitsu.*

garautu* e. **garandu**.

garazia* e. **grazia**.

garba iz. ‘garrama, tresna’.

garbai iz. *Bizk.* ‘damua’.

garbaitu, garbai(tu), garbaitzen. *da* ad. *Bizk.* ‘damutu’.

garbantzu iz. h. *txitxirio*.

garbari

garbatu, garba(tu), garbatzen. *du* ad. ‘lihoa zehatu’.

garbatze

garbi izond. eta adlag.: *garbi azaldu digu auzia.*

argi eta **garbi**

garbi-ikuzi iz.

garbialdi

garbiarazi, garbiaraz, garbiarazten. *du* ad.

garbigailu

garbigarri

garbigela

garbikeria

Ust-Orda Buryat Okrug / Ust-Orda Buryatia	Ust-Orda Buriatia
Utrecht	Utrecht
Uusimaa	Nilandia/Uusimaa
Valais	Valais
Valencian Community	Valentziako Erkidegoa (-a)
Valle d'Aosta / Aosta Valley	Aostako Harana (-a)
Vaud	Vaud
Veneto/Venetia	Veneto
Vienna	Vienna
Vojvodina	Voivodina
Volhynia / Volynia	Volinia
Vorarlberg	Vorarlberg
Wales	Gales
Wallachia/Walachia	Valakia

INGELESA	EUSKARA
Wallonia	Valonia
Walloon Brabant	Valoniako Brabante
Warmia	Varmia
Wessex	Wessex
West Attica	Mendebaldeko Atika
West Flanders	Mendebaldeko Flandria
West Greece	Mendebaldeko Grezia
West Macedonia	Mendebaldeko Mazedonia
West Midlands	Mendebaldeko Midlands
West Prussia	Mendebaldeko Prusia
Western Finland	Mendebaldeko Finlandia
Western Transdanubia	Mendebaldeko Transdanubia
Westphalia	Westfalia
White Carniola	Karniola Zuria (-a)
White Russia	Errusia Zuria (-a)
Württemberg	Württemberg
Xanthi	Xanti
Yamalia	Jamalia
Yorkshire and the Humber	Yorkshire eta Humber
Zakynthos / Zante	Zante/Zazinto
Zealand	Seelandia
Zeeland/Zealand	Zeelanda
Zemgale/Semigalia/ Semigallia	Semigalia
Zug	Zug
Zürich	Zürich

GREKO MODERNOAREN NAZIOARTEKO ERROMANIZAZIO-TAULA

(*Europako eskualde historiko-politiko nagusiak arauaren eranskina*)

1997an, antzinateko izen grekoak euskaraz emateko irizpideak eman zituen Euskaltzaindiak 76. arauan⁶⁰. Latinaren bidezko tradiziozko egokitzapena aldeztu zuen arauak, eta transkripzio jaso bat ere eskaini zuen goi-mailako ikerketetan erabiltzeko eta oso maiztasun urriko izenentarako. Tradiziozko egokitzapen horri jarraitu behar zaio, beraz, erabilera orokorrean, Greziako pertsona- eta leku-izen klasikoak euskaraz idazteko.

Gaur eguneko pertsona- eta leku-izen grekoak, ordea, greko modernoari dagozkio, eta greko moderno eta antzinako grekoa –greko klasikoa– hizkuntza desberdinak dira, alfabetoa aldatu ez bada ere⁶¹. Greko modernoan erromanizatze, erdara nagusiek zeinek bere transkripzio-sistema –edo sistema bat baino gehiago– erabili dute oraintsu arte.

Adibidez, Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan (eta, beraz, ingelesa ofiziala den gainerako herrialdeetan), guztiz nagusi zen BGN/PCGN⁶² erakunde ofizialek 1962an onartutako sistema. 1941ean PCGNren sistema onartu zuen BGPK eta, bi erakundeek berrikusi ondoren, 1962an erabaki eta argitaratu zuten greko erromanizatze sistema hobetua. Hala ere, katalogaziorako, ALA-LC sistema erabiltzen da oraindik Estatu Batuetan (ALA, American Library Association; LC, Library of Congress).

Espanian eta, oro har, gaztelaniaren eremuan, EFE agentziaren taula erabili izan da.

Nolanahi ere, Greziako ELOT estandarizazio-erakunde ofizialak, 1982an, grekoa latindar alfabetora aldatzeko bihurteta-sistema bat onartu zuen⁶³. Sistema hori ofiziala da, gaur egun, Grezian eta Zipren. Sistema hori erabiltzen da, adibidez, estatu horietako bide-seinaleetan.

Euskarara etorrita, nazioartean batasunik ez zegoela ikusita, Elhuyarrek, 1990. urtean, ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez erabiltzen ziren sistemak bat ez zetzela ikusita, greko modernoaren euskararako erromanizazio-taula bat proposatu zuen *Munduko leku-izenak* liburuan.

Alabaina, urteak pasatu ahala, aldatu egin da egoera. Gaur egun, izen greko klasikoak hizkuntza bakoitzean emateko hizkuntzaz hizkuntzako transkripzio-sistemak atzera egiten ari dira. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak, 1987an, nazioartean Greziako ELOT 743 estandarra erabiltzeko aholkua eman zuen. Hona hemen erabakia⁶⁴:

V/19 Romanisation de l'alphabet grec dans les noms géographiques

La Conférence,

Notant que la conversion de l'alphabet grec en caractères latins a fait l'objet de débats approfondis lors de précédentes conférences des Nations Unies sur la normalisation des noms géographiques et de sessions antérieures du Groupe d'experts des Nations Unies sur les noms géographiques,

Notant également l'accueil favorable reçu à la quatrième Conférence par le système No 743 (ELOT 743) de l'Organisation grecque de normalisation, qui a été mis au point par la Grèce et Chypre,

Constatant que ce système est linguistiquement viable et qu'il se prête à la transcription et/ou à la translittération des noms grecs,

Constatant également que ce système a été officiellement approuvé par les Gouvernements grec et chypriote aux fins de cartographie et d'administration et qu'il a été utilisé pour des cartes de la Grèce ainsi que des cartes et nomenclatures toponymiques de Chypre,

Constatant en outre qu'une période de transition sera nécessaire pour sa pleine application et que les pays d'origine devraient fournir aux pays d'arrivée une assistance pratique à cette fin,

Recommande que le système de conversion ELOT 743 reproduit en annexe à la présente résolution soit adopté comme système international de romanisation des noms géographiques écrits en alphabet grec.

⁶⁰ *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*, Euskaltzaindiak, Hendaia, 1997ko irailaren 26an onartua.

⁶¹ 1453. urteaz geroztik idatzitako grekozko testuen hizkuntza greko modernotzat jotzen da. 1454. urtea baino lehen idatzitako grekozko testuen hizkuntza greko klasikoetat jotzen da (ALA-LC Romanization Tables) (<http://www.loc.gov/catdir/cpsd/romanization/greek.pdf>)

⁶² BNG, US Board on Geographic Names; PCGN, Permanent Committee on Geographical Names for British Official Use.

⁶³ ELOT.1982. Hellenic Standard ELOT 743. Standard for Conversion of Greek Alphabet into Latin. Hellenic Organization for Standardization, Athens. 7pp

⁶⁴ (Fifth United Nations Conference on the Standardization of Geographical Names. Montreal, 18-31 August 1987. Vol. I. Report of the Conference, pp. 42-43) (http://www.eki.ee/wgrs/rom1_el.htm) (<http://unstats.un.org/unsd/geoinfo/UNCSGN-Reports/5-UNCSGN-Rpt-en.pdf>).

Sistemak bi bertsio ditu: bata, erabilera orokorretarako; bestea, dokumentaziorako (sistema guztiz itzulgarria lortzeko). Itzulgarritasuna erdiesteko, diakritikoak erabiltzen dira anbiguitasuna saihestearren.

Bestalde, ISO nazioarteko erakundeak ere bere sistema onartu zuen 1997an: ISO 843⁶⁵. ISOn sistema ere ELOT 743 sistema da, funtsean. Nazio Batuen Erakundearen sistemaren oso-oso antzekoa da, baina karaktere greko bakoitzari karaktere latindar bakarra esleitzen dio itzulgarritasuna lortzearen, eta diakritikoak erabiltzen ditu.

ELOT 743 sistema nagusituz joan da, beraz. Hona hemen beste datu bat, garrantzitsua: 1996an, BGN/PCGN erakundeek ELOT 743 sistema onartu zuten, eta ordura arte erabiltzen zuten sistema, 1962koa, bazter utzi zuten⁶⁶. Sistema hori ofiziala da, beraz, Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan ere; sistema hori erabiltzen du, adibidez, Estatu Batuetako NGA agendiak (NGA, National Geospatial-Intelligence Agency) bere datu-base toponimikoan⁶⁷.

Europari dagokionez, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoak ELOT 743 bihurteta-sistema erabiltzen du. Eta, adibidez, Europako Batzordeko testugile eta itzultzaileentzako ingelesezko estilo-liburuak⁶⁸ ELOT sistema aldeztu du. Honela dio:

Grekoa: Erabil bedi ELOT estandar fonetikoa transliteraziorako, ingelesezko egokitzapen klasiko bat ezagunagoa edo egokiagoa denean izan ezik⁶⁹.

Frantsesezko Wikipediak, adibidez, << Romanisation du grec >> sarreran, honela dio⁷⁰:

Pour le grec moderne, le système qui se rapproche le plus de la prononciation grecque est celui de «BGN/PCGN» ou «Nations unies/ELOT». Pour toute création d'un article ayant pour titre un nom grec non francisé, il est préférable de suivre ces principes.

Joera nagusiak ikusita, komeni da euskara ere nazioarteko bide horretan jartzea Greziako eta Zipreko onomastika modernoari dagokionez. Euskaraz ere, ELOT 743 bihurteta-sistemara biltzea da zuhurrena. Hala ere, ondo adierazi behar da leku- eta pertsona-izen berrietarako sistema dela, ez izen klasikoetarakoa. Leku-izenen kasuan, izen klasiko asko eta asko badira leku-izen gaur egun ere. Halakoetan, izen klasikoaren ohiko grafia atxikiko da, 76.arauan ageri den moduan, nahiz eta informazio entziklopedikoan edo leku-izenen zerrendak erabiltzean gaur eguneko transkripzioa ere eman daitekeen osagarri gisa. Tradiziorik ez duten izenetan, ELOT 743 sistema erabiliko da.

* * *

⁶⁵ ISO 843:1997. Information and documentation – Conversion of Greek characters into Latin characters. International Organization for Standardization, 1997.

⁶⁶ Romanization system for Greek: ELOT 743 System: BGN/PCGN 1996 Agreement (This romanization system supersedes the one which was approved by the BGN and the PCGN in 1962. It corresponds to the system devised by the Hellenic Organization for Standardization and approved for international use at the Fifth United Nations Conference on the Standardization of Geographical Names in 1987.) (<http://earth-info.nga.mil/gns/html/romanization.html>)

⁶⁷ GEOnet Names Server (GNS) (<http://gnswww.nga.mil/geonames/GNS/index.jsp>). (<http://earth-info.nga.mil/gns/html/romanization.html#table>)

⁶⁸ *English Style Guide: a handbook for authors and translators in the European Commission*, 5. argitalpena, 2008ko utarrilaren berrikusia.

⁶⁹ Jatorrizko testua: «Greek. Use the ELOT phonetic standard for transliteration, except where a classical rendering is more familiar or appropriate in English.» (*English Style Guide*. Romanisation systems. 33. or.)

⁷⁰ http://fr.wikipedia.org/wiki/Romanisation_du_grec

GREKOA ERROMANIZATZEKO SISTEMA

ELOT 743 SISTEMA

Nazio Batuen Izen Geografikoen Estandarizazioari buruzko V. Konferentziak nazioartean erabiltzeko onartua 1987an.

	Grekoa					Erromanizazioa	Adibidea	
1.	A	α	Α	α		a	Άρτα	Άρτα
	Αι	αι	Αι	αι		ai	Ακταίο	Aktaío
	Αϊ	αϊ	Αϊ	αϊ		aï	Νεράϊδα	Neráïda
	Αυ	αυ	Αυ	αυ	β, γ, δ, ζ, λ, μ, ν, ρ kontsonanteen eta bokal guztien aurretik	av	Μαυροβούνι	Mavrouvóini
					θ, κ, ξ, π, σ, τ, φ, χ, ψ kontsonanteen aurretik eta hitzaren bukaeran	af	Ναύπλιο	Náflpio
					α azentuduna denean, edo υ letrak dieresia duenean	ay	Ταΐγετος	Taïgetos
2.	B	β	Β	β		v	Βόλος	Vólos
3.	Γ	γ	Γ	γ	bokal eta kontsonante guztien aurretik, γ, ξ eta χ kontsonanteen aurretik izan ezik	g	Γαράζο Γουριά Άγναντα Γλυφάδα	Garázo Gouriá Ágnanta Glyfáda
					ξ eta χ aurretik	n	Αγχιαλος	Anchialos
	Γγ	γγ	Γγ	γγ		ng	Λόγγος	Lóngos
	Γκ	γκ	Γκ	γκ		gk	Λαγκάδα	Lagkáda
4.	Δ	δ	Δ	δ		d	Δένδρα	Déndra
5.	E	ε	Ε	ε		e	Ερέτρια	Erétria
	Eι	ει	Eι	ει		eí	Ηράκλειο	Irákleio
	Eϊ	εϊ	Eϊ	εϊ		eï	Μαρινείκα	Marinéika
	Ευ	ευ	Ευ	ευ	β, γ, δ, ζ, λ, μ, ν, ρ kontsonanteen eta bokal guztien aurretik	ev	Ρεύματα	Révmata
					θ, κ, ξ, π, σ, τ, φ, χ, ψ kontsonanteen aurretik eta hitzaren bukaeran	ef	Λευκάδα	Lefkáda
					ε azentuduna denean, edo υ letrak dieresia duenean	ey	bakana	
6.	Z	ζ	Z	ζ		z	Ζεμενό	Zemenó

		Grekoa				Errromanizazioa	Adibidea	
7.	H	η	H	η		i	Ηράκλειο	Irákleio
					β, γ, δ, ζ, λ, μ, ν, ρ kontsonanteen eta bokal guztien aurretik	iv	bakana	
	Hυ	ηυ	Hυ	ηυ	θ, κ, ξ, π, σ, τ, φ, χ, ψ kontsonanteen aurretik eta hitzaren bukaeran	if	bakana	
					η azentuduna denean, edo υ letrak dieresia duenean	iy	bakana	
8.	Θ	θ	Θ	θ		th	Θεσπέες	Thespiés
9.	I	ι	I	ι		i	Ίρια	Íria
10.	K	κ	K	κ		k	Καλαμάκι	Kalamáki
11.	Λ	λ	Λ	λ		l	Λίμνη	Lími
12.	M	μ	M	μ		m	Μαραθόνας	Marathónas
	Mπ	μπ	Mπ	μπ	hitzaren hasieran eta bukaeran	b	Μπέχρος	Béchros
					hitzaren erdian	mp	Τέμπη	Témpi
13.	N	ν	N	ν		n	Νεστιάνη	Nestáni
	Nτ	ντ	Nτ	ντ		nt	Ντία	Ntía
14.	Ξ	ξ	Ξ	ξ		x	Ξάνθη	Xánthi
15.	O	ο	O	ο		o	Όθος	Óthos
	Oι	οι	Oι	οι		oi	Δελφοί	Delfoí
	Oϊ	οϊ	Oϊ	οϊ		oï	Δοϊράνι	Doiráni
						ou	Βούναργο	Vounargo
	Oυ	ου	Oυ	ου	o azentuduna denean, edo υ letrak dieresia duenean	oy	bakana	
16.	Π	π	Π	π		p	Παύλος	Pávlos
	Mπ	μπ	Mπ	μπ	hitzaren hasieran eta bukaeran	b	Μπέχρος	Béchros
					hitzaren erdian	mp	Τέμπη	Témpi
17.	P	ρ	P	ρ		r	Μερόπι	Merópi
18.	Σ	σ	Σ	σ		s	Άσσος	Ássos
		ς		ς	hitzaren bukaeran	s	Σάμος	Sámos
19.	T	τ	T	τ		t	Τίρυνθα	Tíryntha
		ντ		ντ		nt	Πέντε Βρύσες	Pénte Vryses

	Grekoa					Erromanizazioa	Adibidea	
20.	Υ	υ	Υ	υ		y	Υλική	Ylíki
21.	Φ	φ	Φ	φ		f	Φιλοθέη	Filothéi
22.	Χ	χ	Χ	χ		ch	Χαραυγή	Charavgi
23.	Ψ	ψ	Ψ	ψ		ps	Ψαρά	Psará
24.	Ω	ω	Ω	ω		o	Ωρωπός	Oropós

OHARRAK

1. Grekoz, azentua adierazteko, azentu grafiko zorrotza erabiltzen da. Erromanizazioa egitean, azentu grafiko zorrotza erabil daiteke. Adibidez: Αθήνα → **Athína**, Ντρία → **Ntía**. Bokal azentuduna bi bokal-karaktereren segida gisa idazten denean grekoz, bigarren bokal-karaktetereak eraman ohi du azentu grafikoa. Erromanizazioan, orobat, bigarren bokalaren gainean ezartzekoa da. Adibidez: Οινόσσης → **Oinoússes**, Οίτη → **Oíti**.

au, eu edo **ñu** konbinazioetariko bat daukan silaba batek azentua duenean, grekoz **u** karakterearen gainean jarri ohi da. Karaktere-konbinazio horiek **av, af, ev, ef, iv** edo **if** erromanizatzen direnean, azentu grafikoa aurreko bokalean jarri behar da. Adibidez: Άύρα → **Ávra**, Γάύριο → **Gávrio**, Καλλιπέικα → **Kallipéika**. Baina **au, eu, ñu** or **ou** karaktere-konbinazioak **ay, ey, iy** edo **oy** erromanizatzen direnean eta azentu grafikoa, grekoz, **u** karakterearen gainean dagoenean, erromanizazioan azentu grafikoa **y** letraren gainean jarri behar da. Adibidez: Ταύγετος → **Taýgetos**.

Grekoz, batzuetan, azentu grafikoak ez dira jartzen; adibidez, letra guztiak maiuskulaz idatziz dituzten hitz eta izenetan; erromanizatzean, baina, azentua beti adierazi behar da azentu grafiko zorrotz baten bidez. Hitz silababakarren bokalek, eskuarki, ez dute azentu grafikorik izaten. Adibidez: Κως → **Kos**. Grekozko laburduretan azentu grafikoa aurkituz gero, ez da adierazi behar erromanizatzean.

2. Grekoz dieresia agertuz gero, erromanizazioan ere jarri beharrekoa da. Adibidez: Μαρινέικα → **Mari-*néika***, Αχαΐα → **Achaí*α***.
3. Grekoaren aldaera zaharra erabiltzen duten mapa eta argitalpen batzuetan, gerta daiteke azentu grafiko batzuk eta karaktere ez-alfabetiko batzuk agertzea. Halakoetan, honela jokatu behar:

Grekozko azentu grafikoa	Adierazpena erromanizazioan
´ (azentu zorrotza)	´ (azentu zorrotza)
˘ (azentu kamutsa)	˘ (azentu zorrotza)
˜ (azentu zirkunflexua)	´ (azentu zorrotza)

Hemen aipatu ez den beste edozein marka eta azentu grafiko agertuz gero, ez da erromanizatu behar.

Arau honetako zerrendak toki eta egun haueetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

- Bilbon, 2007ko azaroaren 30ean.
- Senperen, 2007ko abenduaren 21ean.
- Bilbon, 2008ko urtarrilaren 25ean.
- Bilbon, 2008ko otsailaren 29an.
- Bilbon, 2008ko apirilaren 4an.
- Donostian, 2008ko apirilaren 25ean.
- Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean.

BERRIAK

JOSE ANTONIO ARANA MARTIXARI GORAZARREA

Bilbo, 2008-VI-27

Eusko Ikaskuntzaren Musika Sailak Jose Antonio Arana Martixa omendu zuen Bilbon, ekainaren 27an. Bilboko Korral Elkartearekin batera antolatutako ekitaldi honetan, hauek hartu zuten parte: Cecilio Gerrikabeitia, Bilboko Korral Elkartearen presidentea; Jon Kortazar, Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko buruordea; Itziar Larrinaga, Eusko Ikaskuntzaren Musika Saileko burua; Antton Zubikarai «Musikene», Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegiaren ordezkaria; eta Jon Bagües, «Eresbil» Musikaren Euskal Atxiboaren ordezkaria.

Guztiek Gernikako euskaltzain osoak «euskal kulturari egindako ekarpena publikoki aitortu» nahi izan zuten. Gainera, Eusko Ikaskuntzaren Musiker: *Cuadernos de Música* aldizkariak Arana Martixa omentzen du bere 15. zenbakian eta horren aurkezpena ere egin zen ekitaldian. Aldizkariaren ale bat oparitu zioten Arana Martixari, baita plaka bat ere. Amaitzeko, *Berziztu Txistuzale* Elkartea kontzertu bat eskaini zuen.



EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPENAK



Aurkezpenak

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA ELEBERRIAREN EKARPENA XX. MENDEKO EUSKAL NARRATIBAREN TESTUINGURUAN

Maiatzaren 23an, *Leturiaren egunkari ezkutua eleberraren ekarpena XX. Mendeko euskal narratibaren testuinguruan* izeneko argitalpena aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, Donostiako Doctor Camino liburutegian. Argitalpen hori *Euskera* Euskaltzaindiaren Agerkari ofizialaren etapa berriaren lehen zenbakia da, eta haren bitartez *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria argitaratu zeneko 50. urteurrenaren kariatara, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegik» omendu nahi izan du Akademiak. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak, Jean Haritschelhar Literatura Ikerketa batzordeburuak eta Txillardegik berak.

2007an, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberrari buruzko hitzaldi-sorta prestatu zuen. Hitzaldi horien emankizuna Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Udako Ikastaroen barnean txertatu zen, biltzar moduan. Bertan, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak euskal eleberrigintzaren bilakaeran *Leturiaren egunkari ezkutua* idazlanak ekarri zuen berriztapena eta gizartean eragin zuen oihartzuna hartu zituen hausnarketa kritikoa egiteko helburutzat, haren zenbait alderdi jakin aztertzearekin batera. Biltzarraren zuzendaria Lourdes Otaegi Imaz Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordearen idazkaria izan zen.

Egun batzuk geroago, ekainaren 3an, Bilbok Liburu Azokan aurkeztu zen liburua. Egun horretan, euskaltzainburuarekin batera, Sebastian Gartzia Trujillo Literatura Ikerketa batzordeko kidea mintzatu zen.



Jose Luis Alvarez Enparantza / Txillardegi

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA
eleberraren ekarpena
XX. mendeko euskal narratibaren
testuinguruan

EUSKERA
2007, 2
52. liburukia (2. aldia)
2008, BILBO

BILBOKO LIBURU AZOKA: 2008

Bilbon, 2008ko ekainaren 3an

Sebastian Gartzia Trujillo

Jaun andreok, egunon:

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik idatzitako *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren berrogeita hamar urte bete ziren 2007.urtean. Askoren iritziz, *Leturia* da lehen euskal eleberri modernoa. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordean, jardunaldi batzuk antolatzea bururatu zitzaigun, *Leturiaren egunkari ezkutuaren* berrietasunak eta ekarpena aztertzeko asmoz. Jardunaldi horietan egindako hamaika hitzaldiak Udako Euskal Unibertsitatearen esparruan egin genituen, Donostiako Miramongo jauregian, 2007ko uztailaren 16, 17 eta 18 egunetan eta Euskaltzaindiak, gaur aurkezten dizuegun liburuan, bildu eta argitaratu egin ditu, beste eranskin interesgarri batzuekin.





Henrike Knörr

1947-2008

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

www.euskaltzaindia.net

Txillardegik bere lehen eleberria burutu baino lehentxoago Euskal Herrian zer-nolako eleberriak idazten ziren aztertzen dute lehendabiziko bost hitzaldiek: Jean-Pierre Iratcheten *Antton*, Jose Eizagirrereren *Ekaitzpean*, Yon Echaideren *Alostorrea* eta *Joanak joan* eta Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgain'en*.

Eleberri hauek guztiok 1946tik 1955ra bitartean argitaratuak izan ziren. Ohitura, historia eta poliziazko eleberriak ditugu aipaturiko horiek guztiok, baserri-munduko narrazioak, euskaldun zaharrek idatzitakoak.

Urtebete geroago, 1956an, Txillardegik goitizendaturiko hogeita zazpi urteko euskaldunberri batek, euskara neutro samarrean, Euskaltzaindian antolatutako lehiaketa batean, *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria aurkeztu eta irabazle bilakatu zen, hurrengo urtean, hots: 1957an, Euskaltzaindiak berak argitaratu zuena.

Eleberri horretan, lehenengoz, gure tartean, istorioa euskal hiri batean hasi (Donostian demagun) eta Parisen gertatzen da eta eleberrien ohiko korapiloa ez zen mendi edo euskal herri batean suertatzen, protagonistaren barruan baizik, European zehar modan zegoen filosofia heterodoxoaren koordinatuetan, gainera: existentzialismo giroan, hain zuzen, eta Leturia, zeinen heriotza (suizidioa ote) ilun geratzen den narrazioan, sinesmenaren eta agnostizismoaren muga mugitzen da, protagonista koroarik gabeko gizaki arrunta delarik: gu gehienok bezalako.

Azken sei hitzaldietan, *Leturia* eleberriaren narrazio osagaiak aztertzen ditugu: literatura genero aldetik Leturia indefinitu samarra da: filosofia narra-



zioa ala narrazio filosofikoa; nola hartu zuten Leturiaren garaikideek testu berri berezi hura; eleberrigile ezezagun horrek nola irudikatu zituen, berrogeita hamar urte direla, orain horren modan jarri zaizkigun gizon eta emakume paradigmak eta erlazioak; zer motatakoak ziren Leturiaren erlijio kezka: sinestun ala agnostiko batenak? zeintzuk ziren literatura testu honen narrazio osagai klasikoen erabilera: denbora, espazioa, subjektoak eta abar..

Baliteke aztertu ditugunez gain, beste azterpuntuak ere interesgarriak izatea, baina bai lehen multzoan, bai bigarrenean aztertu ditugun horiek oinarritzko bezain interesgarriak direla ez digu inork ukatuko... eta, lehen interesatuaren, Txillardegiren beraren iritziz alegia, oso ongi aukeratu eta burutuak izan ditugu.

Txillardegi buru, aro berri bat sortu zen, orain berrogeita hamar urte, euskal eleberrigintzan. Urte luze horietan euskal eleberrigileek zer edo ozer erakutsi badigute, hauxe izan da: euskaldunok eleberrigintzaren moda berriak eta ausartienak geureganatzeko gauzak izan eta izaten garela. Eta ez hori bakarrik. Berritasunak berritasun eta modak moda, eleberri on batzuk ere idazti dizkigute euskal idazleek. Nahi genituzkeenak baino gutxiago: eleberriak, oro har, kopuruari begira, gutxi izaten dira gure tartean, ipuin edo olerkien parean. Hala ere, munduan zehar itzuliak, sarituak eta argitaratuak izan dira bat eta bi baino gehiago. Ez da gutxi. Ez gara, hain txarto, liga-txapelketa horretan ibili.

Erronka ez dago, beraz, batzuek maltzurkeriaz aldarrikatzen duten bezala moldagaitza eta laburra omen zaigun euskal hizkuntzan, eleberrigileen kantidad eta kalitatean baizik. Arazoa, bestalde, ez da eleberrigile gutxi ditugula. Baliteke, batez beste, inguruko literaturan baino eleberrigile gehiago izatea. Arazoa da, euskal eleberrigilerik onenetariko batek, Ramon Saizarbitoriak alegia, gogoratu digunez, euskaldunok, hain gutxi izanik, onenak izatera behartuta gaudela. Ez da erronka makala, eskergarria baino.

Lan egin dezagun, beraz, zaila den (zailena ote?) literatura genero hau lantzen. Asma ditzagun istorio interesgarriak. Horixe baita Txillardegi aurrelariari eta euskarari egin diezaiekegun ohorerik benetakoena.

* * *

En el año 2007 celebramos el cincuenta aniversario de la edición de *Leturiaren egunkari ezkutua* de Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, primera novela moderna escrita en euskara. Con ese motivo Euskatzaindia organizó unas jornadas en la Universidad Vasca de Verano, la publicación de cuyas ponencias presentamos hoy ante ustedes.

Txillardegi inició este resto en un contexto dominado principalmente por novelas de corte costumbrista. *Leturia* es la primera novela vasca que trascurre íntegramente en ambiente urbano y en la que el conflicto que se nos narra se libra en el interior de un protagonista, angustiado por el existencialismo,


que vive, además, en frontera misma de la increencia religiosa. Leturia es un protagonista corriente e individualista, similar a muchos de los europeos de los años sesenta. Estos aspectos y otros de índole más estrictamente narrativa son los que se recogen en las ponencias de este libro, que el propio Txillardegui ha valorado como de mucho interés.

El camino iniciado por Txillardegui ha sido proseguido y superado por otros novelistas vascos, que se han ganado un merecido prestigio, incluso más allá de los límites de Euskal Herria. Los novelistas vascos se han mostrado abiertos a las influencias narrativas de la literatura universal y han demostrado, con creces, que el euskara posibilita, como cualquier otro de los idiomas, escribir textos literarios de calidad. El reto está en que los escritores vascos sigan dispuestos a transportar, mejorando incluso la carrera, el testigo de los pioneros.

EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ. XV. BILTZARRAREN AGIRIAK

2008ko martxoan, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra* liburua argitaratu zuen Euskaltzaindiak.

Lan horretan, 2001ean, Bilboko Euskalduna Jauregian, Euskaltzaindiak burutu zuen XV. Nazioarteko Biltzarraren emaitza jasotzen da. Liburua Akademiaren Iker bildumaren 19. zenbakia da eta euskararen historia, hiztegegintza eta hizkuntza erduei buruz egindako hitzaldiak, txostenak eta mahai-inguruak biltzen ditu.



2001eko irailaren 17tik 21era bitartean, Euskaltzaindiak bere Nazioarteko XV. Biltzarra egin zuen, Bilbon. «Euskalgintza XXI. mendeari buruz» lemapean egin zen biltzar horretan Euskaltzaindiak gogoeta bideratu nahi izan zuen, euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz. Horretarako, 9 hitzaldi eta 29 txosten aurkeztu eta eztabaidatu ziren hiru egunetan, eta bi mahai-inguru egin ziren.

Bilbon hizkuntzalari, hiztegi-gile, irakasle, kazetari, eta oro har, hizkuntzan adituak bildu ziren, xede nagusi batekin: XXI. mendearen atarian, euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz gogoeta egitea. Euskal Herriko unibertsitateez gain –EHU, UEU, Deustuko Unibertsitatea, NUP, Baionako Unibertsitatea– kanpo-ko zentroetako ordezkariak ere izan ziren, hala nola Université de Genève, ILPGA – Institut de Phonétique, Valentziako Unibertsitatea, Helsinkiko Research Institute, Galeseko Unibertsitatea) eta baita UZEI, EIZIE, Elhuyar, AEK, HABE, Labayru, Mendebalde elkarte, Kazeterm edota Bostak Bat erakunde eta taldeetakoak ere. Orotara, 288 lagunek hartu zuten parte.

Irailaren 17tik 19ra bitarte horretan, hiru arlo nagusi landu zituzten biltzarkideek, egun bakoitza alor bati eskainiz. Lehenengo egunean, hizkuntza ereduen arloa landu zen, hots, hizkuntza estandarra eta aldaerak –euskalkiak, ahozko hizkerak, esparru berezietan erabiltzeko bestelako ereduak...–. Bigarren egunean, hiztegi-gintza izan zen hizpide nagusia, eta horrekin batera euskararen normalkuntzaz ere hitz egin zen. Azkenik, hirugarren egunean, hizkuntzaren historia aztertu zen. Bestalde, mahai-inguru bi ere egin ziren: «Gaurko hiztegi-gintzaren premiak eta arazoak», batetik, eta «Lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?», bestetik.

PIARRES LAFITTEREN EKINTZABIDEAK (1920-1944)
Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan

Otsailaren 21ean, *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944)*. *Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan* liburua aurkeztu zuten Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Bilbon, Akademiaren egoitzan. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak, Ludger Mees, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordeak, eta Amelia Hernández Mata egileak. Liburua Akademiaren *Iker* bildumaren 20. zenbakia da eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker argitaratu da.



Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) liburua Amelia Hernández doktorego tesia da eta Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Díaz Nociren zuzendaritzapean burutua da. Izenburuak adierazi bezala, Piarres Lafitte idazle lapurtarraren figura eta lana aztertzen ditu zehatz-mehatz. Lehenbiziz, testuinguru historikoan kokatzen gaitu egileak. Amelia Hernándezen hitzetan, «Lafitte pentsalariaren aro entzutetsuaren aurretiko urteak ekintza intelektualez josirik baino ezin dira egon; pentsalari, intelektual eta zientifikoez inguraturik baino ezin dira egon, ekintzok burutu ahal izateko. Izan ere, intelektual baten emaitzak emankorrak izanez joango dira besteekiko ez adostasunek eta ezta-baidek eraginda, iritziok pentsalari horren pentsamoldea landuaraziko baitute. Erakusle gisa, Piarres Lafitteri buruzko gure lan hau, non jende ikasia baino ez zaigun agertuko irakaslearen sarekideen artean».

LITERATURA TERMINOEN HIZTEGIA

Ekainaren 20an, *Literatura Terminoen Hiztegia* aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, egoitzan. Hiztegia Akademiaren «Hiztegiak» bildumaren zenbaki berria da –Hiztegiak 13– eta Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak egin du. Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz argitaratu da. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Jean Haritschelhar, Literatura Ikerketa batzordeburuak; Lourdes Otaegi, batzordearen idazkariak; eta Gorka Martinez, BBK Fundazioaren buruak.

Andres Urrutia pozik agertu zen, «bide luze baten ondoren» Hiztegia kalean dagoelako. Hiztegiaren xede nagusia azpimarratu zuen –«Literaturaren teoria, historia, eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa

LITERATURA TERMINOEN HIZTEGIA

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2008

agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea»– eta Hiztegia egin duten guztiak zoriontzear gain, Bilbao Bizkaia Kutzari eman zizkion eskerrak, «BBK-k posible egin duelako Hiztegi hau gure artean agertzea».

Gorka Martinez BBK Fundazioaren burua mintzatu zen ondoren. BBK-k Akademiari zor dion errespetua aipatu zuen –«hau bezalako egitasmoetan behin eta berriro hartuko dugu parte, Akademiak egiten duen lana ezinbestekotzat jotzen baitugu»– eta aurrerantzean ere Euskaltzaindiarekin elkarlanean aritzeko asmo irmoa erakutsi zuen.

Literatura Terminoen Hiztegia euskal literaturako terminoen hiztegiaren lehen edizioa eta saioa da eta haxe da bere xede nagusia: literaturaren teoria, historia, eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea.

Hiztegi hau Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak 17 urteetan egin duen lanaren emaitza da. Izan ere, Literatura Ikerketa Batzordea sortu zen une beretik, hots 1991tik, literatura arloko lanetan erabiltzen den terminologia finkatzeko eta ikertzeko beharra azpimarratu zen. Batzordearen lehen bileretan hiztegiaren oinarritzko egitura eta sarrera zerrenda finkatu ziren, baita lan metodologia ere.

EUSKALTZAINDIA SARAKO EUSKAL IDAZLEEN XXV. BILTZARREAN: EUSKALTZAINAK BILDUMA BERRIAREN HASIERA ETA AURKEZPENA

2008ko martxoaren 24an, urtero bezala Pazko astelehenez, Sarako Idazleen Biltzarra egin zen herriko polikiroldegian. Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatzen duten biltzarrera Euskaltzaindia urtero joaten da, eta hor bere azken argitalpenak erakusten ditu.

Euskaltzainak bilduma berria da, eta horren 1. liburukia 2007ko abenduan aurkeztu zen Senperen: Henri Duhauk paratu zuen *Gratien Adema, Zaldubi, saindu batzuen biziaz*.

Euskaltzainak bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratzeari ekin dio Akademiak.



EUSKALTZAINAK BILDUMAREN 2. ETA 3. ZENBAKIAK

2008an, Akademiak bi liburu berri aurkeztu zituen Sarako Biltzarrean, hots: *Pierre Broussain. Sa contribution aux etudes basques*, Pierre Charrittonek idatzia, eta *Pierre Lhande. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak*, Jon Casenavek paratua. Aurkezpenean hauek izan ziren: Andres Urrutia, Jean Haritschelhar, Jon Casenave eta Pierre Charritton.

Aipatu bi liburuak Euskaltzaindiaren Euskaltzainak izeneko bildumaren 2. eta 3. liburukiak dira.


PIERRE CHARRITTON

PIERRE BROUSSAIN

Sa contribution aux etudes basques



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



* * *

Sarako Biltzarrak bi urtean behin bi idazle omentzen ditu. Aurten Txomin Peillen euskaltzain emeritua eta Xipri Arbelbide euskaltzain urgazlea izan dira hautatuak. Biek euren poza adierazi zuten: Txomin Peillenek saria euskarari eman diotela azpimarratu zuen eta Xipri Arbelbidek Sarako Biltzarraren xarma azpimarratu zuen, idazle eta irakurlearen arteko harremana sendotzen duelako.

PEDRO DE YRIZARREK EUSKAL ADITZ LAGUNTZAILEARI ESKAINITAKO LAN OSOAREN AZKEN LIBURUKIA

Uztailaren 10ean, *Morfología del verbo auxiliar vasco (compendio/índice/index)* liburua aurkeztu zen Euskaltzaindiaren egoitzan. Liburua Pedro de Yrizar izan zenaren *Morfología del verbo auxiliar* liburu sortaren azken emaitza da: hamabosgarren liburukia. Liburu horietan guztietan euskal aditz laguntzailea bere azterketaren oinarri izan zuen Yrizarrek.

Euskal aditza eta euskalkiak dira Yrizarrek gehien jorratu zituen gaiak. Beti ere Louis-Lucien Bonaparteri jarraikiz, euskalki guztietako aditz laguntzailearen morfologia oso-osorik aztertu zuen eta liburu zehatzak osatu zituen, mapa ugariz hornituak. Liburu horiek guztiak Euskaltzaindiak argitaratu ditu.

Morfología del verbo auxiliar vasco liburu sorta honetan, Yrizarrek Koldo Artola ohorezko euskaltzaina izan du laguntzaile.



Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Jose Luis Lizundia diruzainak; Koldo Artola ohorezko euskaltzainak; eta Iñigo Yrizar Pedro de Yrizarren semeak.

Andres Urrutiak esan zuenez, «zin-zinez ohore handia da niretzat lan honen azken liburuari sarrera hitzak jartzea. Izan ere, eskuan du irakurleak euskal aditza osoa, lekuz leku eta euskalkiz euskalki, ederki atondua eta aurkeztua, ezin baztertzeko ikerketa baten bidez».

Koldo Artolak egindakoaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: «Perspektibarekin begiratuta, lehenengo liburuak argitaratu zirenetik denbora gutxi samar igaro bada ere, iruditzen zait lanak merezi zuela, zenbait lekutan gertatazen ari den transmisio-higaturaren tamalak, alde batetik, eta leku guztietan edo gehienetan euskara batuaren eraginak, bestetik, oso zail egingo bailukete etorkizun hurbilean arestiko urteetan bildu moduko informazioa eskuratzea».

Ondoren, Jose Luis Lizundia mintzatu zen. Gogora ekarri zuen bera ere «Yrizarren laguntzaileen sare»ko kide izan zela: «Euskaltzain oso, ohorezko edo urgazle askoren bidez, J. San Martin, L. Villasante, E. Erkiaga, J. M. Satrustegi eta bestez baliaturik, izugarritzko harreman sare oparoa sortu zuen Pedro Yrizarrek, euskal herrialde guztietako informatzaileekin hornitua. Egunen baten, familiaren baimen eta laguntzarekin, “Pedro Yrizar Sarea” deituko niokoen harreman gutuneria biltzea, sailkatzea eta digitalizatzea litzateke egitasmo oso interesgarria; zeren eta gutunerian ez lirateke gaur aurkezten dugun Euskal Aditz Laguntzailearen bilduma osoari buruzko, tokian tokiko galdera-erantzunak bakarrik aurkituko, baita dialektologiari buruzko iritzi trukaketa aberasgarriak ere».


Iñigo Yrizarrek esker oneko hitzak izan zituen, «Liburu honek nire aitaren lana biribiltzen du»- bai Euskaltzaindiarentzat, bai eta bere aitari laguntza eman zioten guztientzat ere, bereziki Koldo Artolarentzat «nire aitak esaten zuen Koldo bere oinak, bere eskuak eta bere burua, dena batera zela»-. Berziki, Henrike Knörr zena izan du gogoan Iñigo Yrizarrek. Betidanik aitari emandako laguntzagatik, batetik, eta modu berezian, *Memorias de un vasólogo* liburua kaleratzako egin zuen lanagatik: «Bera izan baitzen benetan liburu horren argitalpena posible egin zuena».

Amaitzeko, Yrizarrek egindako lana euskarri informatikoan ipintzeko konpromisoa azaldu zuen euskaltzainburuak.

III. ONOMASTIKA JARDUNALDIEN AGIRIAK

Uztailaren 30ean, *III. Onomastika Jardunaldien agiriak* (Lizarra, 1990eko iraila) liburua kaleratu zuen Euskaltzaindiak. Egun horretan, egoitzan egin zen ekitaldi batean, eskura eman zitzaaien ale bana hauei:

- Txari Santiagori –Henrike Knörren alargunari– eta Eneko Knörri, Henrikeren semeari, Henrike Knörr izan baitzen argitalpen honen arduradun.
- Maria Ángeles Líbanori, argitalpena gainbegiratzen Henrike Knörri laguntza eman zionari.



Esan bezala, Henrike Knörr zenak egin zituen liburu honen koordinazio lanak, Maria Angeles LÍbanoren laguntzarekin. Knörrrek berak sortu zuen Akademiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumaren zazpigarren zenbaki hau inprimategiko bidean utzita hil zen, eta ez zuen ikusi argitaratuta. Hori dela eta, zabaltzen hasi baino lehen, Akademiak Henrikeren familiari eman nahi izan zion liburua, baita LÍbanori ere. Iker sailburua zena gogoan edukitzeko ekitaldi xumea izan zen.

III. Onomastika Jardunaldien agiriak (Lizarra, 1990eko iraila) Akademiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 7. liburukia da. Liburu horrek, 1990eko irailean burutu ziren III. Onomastika Jardunaldietan aurkeztutako ponentzia eta komunikazio guztiak biltzen ditu. Lizarran egin ziren, herri horren Foruaren 900.urteurrenaren ospakizunekin bat eginez eta bertako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Guztira, 27 lan jaso dira, Europa mailako aditu eta ikerlari puntakoen eskutik. Horietarik askok Lizarrerriko toponimia dute hizpide –euskarak eskualdean izan zuen bilakaera historikoa ere azaldu zuen Jose Mari Satrustegi zenak–, baina beste ikerketa-arlo batzuk ere nabarmendu daitezke.

BESTE BERRI BATZUK

EUSKARAZKO TESIEN KOLDO MITXELENA SARIA-REN AURKEZPENA

Apirilaren 16an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak «Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria» aurkeztu zuten. Saria euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz sortu dute bi erakundeok eta bi urterik behin deituko da.

Aurkezpenean honako hauek izan ziren: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Ludger Mees, EHUKo Euskara errektoreordea; Joseba Lakarra, euskaltzain osoa eta EHUKo irakaslea; Koldo Mitxelenaren familiaren ordezkaria; Juan Ignacio Pérez Iglesias, EHUKo errektorea.

Haiek azaldu bezala, bost jakintza-arlo nagusi sarituko dira: Zientzia esperimentalak; Ikasketa teknikoak; Osasun zientziak; Gizarte zientziak eta Zientzia juridikoak; eta Giza zientziak.

Saria sortu ez ezik, 2008ko deialdia ere egin zuten aipatu bi erakundeok. Sari honen epaimahaia honako hauek osatuko dute: EHUKo Euskara errektoreordea, epaimahaiburua izango denak; Euskaltzaindiaren Iker sailburua, epaimahaibuorde gisa arituko denak; EHUKo Euskara Zerbitzuaren zuzendariak; eta bost jakintza-arloetako bina doktorek. Bestetik, EHUKo errektorea eta euskaltzainburua ohorezko buruak izango dira eta botorik ez dute izango. Azkenik, Euskara Errektoreordetzako teknikariak idazkari lana egingo du eta, ohorezko buruek bezala, botorik ez du izango. Irabazleek oroigarria, diploma eta 2.000 euro jasoko dituzte.

EUSKALTZAINDIA ETA OLASO DORREA SORRERAKUNDEA

Otsailaren 13an, Euskaltzaindiak eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten, Bergarako Olaso Dorrean, Sorrerakundearen egoitzan. Hitzarmen horri esker, Olaso Dorrea Sorrerakundearena den ondare bibliografiko eta artxibistikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da, hots: George Lacomberen Biblioteka eta Olaso Dorrea Sorrerakundearen Artxibo Historikoaren XX. mendeko atala, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza emaztearen familiaren ondareak barne.

Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du hitzarmena eta Olaso Dorrearen Sorrerakundearenean, Jose Luis Elkoro lehen-dakariak. Horren ondorioz:

- Olaso Dorrea Sorrerakundearena den George Lacombe zenaren ondare bibliografikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da. Hamar urtez izango da bertan eta Akademiak bere gain hartzen du ondare horren kontserbazioa eta katalogazioa. Katalogazioa jada eginda dauka Euskaltzaindiak.
- Olaso Dorrea Sorrerakundearen Artxibo Historikoaren XX. mendeko atala Euskaltzaindiaren egoitzan taxutu eta ordenatuko da. Lan hori hiru urteko epean egingo du Akademiak.

Maria Dolores, Isidro eta Telesforo Monzonek eta Maria Josefa Ganuzak sortu zuten Olaso Dorrea Sorrerakundeak. Gaur egun, hainbat kidek osatzen dute Fundazioa, horien artean Euskaltzaindia bera delarik.

Olaso Dorrea ondare dokumental eta bibliografiko hauen jabea da:

1. Georges Lacombe Ondarea:

- Artxiboa. Edukia: Europako euskalari nagusien artxiboak (Bonaparte, Uhlenbeck, Van Eys, Dodgson, Vinson...).
- Biblioteka. Edukia: XVI-XVII-XVIII. mendeetako euskal literatura-ko liburu garrantzitsuenak. Historia liburu esanguratsuak, gehienak Ipar Euskal Herriko ikuspuntutik (Lancre, Oihenart, Xaho, Diharce de Bidassouet, Cenac Moncaut, etab.).

2. OIasoko Ondarea:

– OIasoko Artxiboa, bi zatitan banatuta:

- Artxibo historikoa I (1990eko hamarkadaren hasieran Borja Aginagaldeek taxutua).
- Artxibo historikoa II.

– OIasoko Biblioteka.

3. Eskuratutako Ondare dokumentalak:

– Iturri ezberdinetako hainbat artxibo eta material.

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA: 2008

Maiatzaren 30ean sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo hitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen eta, Foru Gobernuaren izenean, Xabier Azanza Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari-kudeatzaileak.

Akordio horrek babesten dituen Euskaltzaindiaren izaera orokorreko eginkizunez gain, honakoak adostu dira 2008rako:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) egiteko Nafarroako 3 herri-tako grabazioak euskarritan paratu eta ematea.
- Euskal Corpus Onomastikoa: Nafarroari dagozkien lanei jarraipena ematea.
- Argitalpenen hauek kaleratzea: Axularren *Gero* (berrargitalpena, euskaraz eta gaztelaniaz) eta Edu Zelaietaren *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*.
- Nafarroako Legeen lexiko juridiko-administratiboa lantzea.
- Aipaturiko lexikoarekin zerikusia duen terminologiari buruzko mintegia.

EUSKALERRIA IRRATIA

Ekainaren 12an (2008-VI-12), *Euskalerria* Irratiak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten, Iruñean, irradiaren egoitzan. Hitzarmen horrek, bi erakundeen arteko loturak sortzea du helburu, elkarren aitopenetik abiatuz. Biak elkarlanean arituko dira, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko eta Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak zabaltzeko.

Euskalerria Irratiaren izenean Jose Antonio Solano Iruñeko Komunikabideak S.A. enpresaren kontseiluburuak eta Mikel Bujanda zuzendariak sinatu zuten eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Sinatze ekitaldian Andres Iñigo, Sagrario Aleman eta Patxi Zabaleta euskaltzain nafarrak; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Juan Jose Zearreta, kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea ere izan ziren.

ZUZENKIZUNAK / FE DE ERRATAS
EUSKERA, LII (2007, 3)

Or. / Pág.	Dio / Dice	Esan behar du / Debe decir
1165	« Irunberri / Lumbier »	« Lumbier / Irunberri »
